# EUSKADIKO EMAKUME ETA GIZON HELDUEN EGOERARI BURUZKO ZIFRAK

## 2. TOMOA

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna
Organismo Autónomo del
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

# EUSKADIKO EMAKUME ETA GIZON HELDUEN EGOERARI BURUZKO ZIFRAK

EMAKUNDE / EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

Vitoria-Gasteiz 2005

| | |
|---|---|
| **IZENBURUA (Lan osoa):** | "Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak" |
| **IZENBURUA (2. Tomoa):** | Euskadiko emakume eta gizon helduen egoerari buruzko zifrak" |
| **EGILEA:** | EMAKUNDE/Emakumearen Euskal Erakundea. Manuel Iradier, 36. 01005 Vitoria-Gasteiz |
| **AUTOREAK:** | Arantxa Elizondo Lopetegi, Eva Martínez Hernández, Raquel Sanz Álvarez, Ainhoa Novo Arbona. Genero Azterlanen taldea. Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Politika eta Administrazioa Zientzien Saila |
| **IRUDI DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** | Ana Rincón |
| **ILUSTRATZAILEA:** | Iñigo Ordozgoiti |
| **DATA:** | 2005eko maiatza |
| **ALE-ZENBAKIA:** | 1.300 |
| **DESKRIBATZAILEAK (Lan osoa):** | Emakumeen egoera, gazteak, helduak, adinekoak, partaidetza politikoa, datu estatistikoak |
| **DESKRIBATZAILEAK (2. Tomoa):** | Emakumeen egoera, helduak, datu estatistikoak |
| **INPRIMAKETA:** | Gráficas Santamaría. Bekolarra, 4. 01010 Vitoria-Gasteiz |
| **ISBN (Lan osoa):** | 84-87595-04-9 |
| **ISBN (2. Tomoa):** | 84-87595-78-2 |
| **LEGE GORDAILUA:** | VI-198/05 |

# AURKIBIDEA


AURKEZPENA .......... 7

1. SARRERA .......... 11

2. BIZTANLERIA .......... 15
   2.1. Datu orokorrak .......... 17
   2.2. Biztanleria atzerritarra .......... 23

3. FAMILIAK, UGALKETA ETA EZKONTZA TASA .......... 31
   3.1. Familiak eta familien egitura .......... 33
   3.2. Ugalketa .......... 35
   3.3. Ezkontza-tasa .......... 44

4. FAMILIA BIZITZA ETA LAN BIZITZA BATERAGARRI EGITEA .......... 47
   4.1. Seme-alaben zainketa .......... 50
   4.2. Mendeko pertsonen zainketa: adineko pertsonak eta ezintasunak dituztenak .......... 61
   4.3. Etxeko lanak .......... 64

5. AUTONOMIA EKONOMIKOA .......... 67
   5.1. Jarduera eta lana .......... 69
   5.2. Lan-ezegonkortasuna .......... 76
   5.3. Langabezia .......... 80
   5.4. Laneko arriskuak .......... 83
   5.5. Pobrezia .......... 86

6. **HEZKUNTZA ETA EUSKARA** . . . . . . . . . . 95

7. **AISIALDIA ETA GIZARTE BIZITZA** . . . . . . . . . . 105

8. **PERTSONA HELDUEN OSASUNA** . . . . . . . . . . 119

9. **EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA** . . . . . . . . . . 133

## AURKEZPENA

Otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak, honelaxe definitzen du aukera-desberdintasuna: emakumeek eta gizonek eskubide politikoak, zibilak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak, eta arauetan aitor lekizkiekeen gainerako oinarrizko eskubideak, aukera berdinekin baliatzea, boterea eta baliabide eta etekin ekonomikoak eta sozialak eskuratu eta kontrolatzea barne.

Halaber, emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko, gaur egun nazioarte-mailan egokienentzat jotako bi printzipio edo estrategia osagarriak definitzen ditu: genero-ikuspegiaren integrazioa eta ekintza positiboa. Printzipio horiek aplikatzeak ekarriko du emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrizan desberdinak modu sistematikoan kontsideratzea, eta, horretarako, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-fase guztietan, ezberdintasuna ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduketa zehatzak txertatzea.

Aurrekoa lortzeko beharrezkoa da, besteak beste, sexukako estatistikak izatea. Izan ere, haien bidez zehatzago ezagutuko dira kolektibo bakoitzaren egoera, genero-harremanak eta berauek oraindik gure gizarte-ereduaren ezaugarri den eta sexuaren arabera hierarkizatutako gizarte-antolaketaren mantenimenduan eta eraikuntzan duten papera.

Datuak ere sentsibilizazio sozialerako baliabide indartsu dira errealitatearen eta gure inguru hurbilenean imajinatu edo antzemandako egoeraren arteko distantzia eta aldea erakusten baitituzte. Pertzepzio hori hainbat diskurtso sozialetan adierazi eta desiratutako egoeratik hurbil dago, teorikoki behintzat. Datuek berdintasunaren espejismoa deritzona ezabatzen dute. Distantzia horren kontzientzia pertsonala eta soziala beharrezko elementuak dira botere publikoen ekintza positiborako politikak ezartzea onartzeko. Politikok, batzuetan, ondoen dagoen kolektiboak, kasu honetan gizonezkoek, eskubide eta aukeren murrizketatzat hartzen du, gizarte osoaren onuratzat baino. Desberdintasunen kontzientzia sozialak exijitu eta, aldi berean, ahalbi-

detzen du ekintza politikoa. Halaber, lortu nahi den ereduranzko jokabide pertsonalen eta sozialen aldaketa sustatzen du.

Emakundek 1991.urtean argitaratu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeen egoerari buruzko lehenengo txostena. Harrezkero, urtero, datuak eguneratuz eta esku hartzeko sektore edo arloei buruzko informazioa sartuz joan da, administrazio publikoek emakumeen eta gizonen berdintasunerako neurrien garapenean eta konpromisoan izandako aurrerapenari esker. Horren isla dira orain arte Euskal Autonomia Erkidegoan egindako hiru ekintza positiboko planen urteko ebaluazioak eta ebaluazio globalak. Aurreko guztiak sexu-aldagaia estatistika-eragiketetan zein gure administrazioetako eskumeneko sailek eta atalek egindako ikerketetan sartzea ahalbidetu du.

Txostenak Eusko Legebiltzarrari aurkeztu eta hainbat komunikabideren bidez -hitzaldiak, artikuluak, web-orria, e.a.- zabaldu dira. Horietariko bat, paper-euskarridun argitalpena edo liburua, Euskadiko emakumeentzako ekintza positiboko plan bakoitzarekin batera erabili da. Orain, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea egitearekin eta onartzearekin batera, beste argitalpen hau aurkezten dugu hiritarrek Legearen beraren edukiak ulertzen eta botere publikoek benetan aplikatzen lagunduko duelakoan.

Txostena, nagusiki, ikuspegi kuantitatibo batetik egin da, eta bizitzaren etapak –gaztaroa, helduaroa, 3. adina- hartu ditu oinarrizko erreferentzia, kolektibo bakoitzaren egoera espezifikoak bereizteko eta aztertzeko. Txostenaren osagarri gisa, politika-arloan emakumeek duten parte-hartzeari buruzko analisi espezifiko bat dator. Ez ditu bete nahi arestian aipatutako Legeak planteatutako estatistikak hobetzeko eskakizun guztiak, eta, zentzu honetan, emakumeen eta gizonen desberdintasun-egoera ezagutzeko ekarpen garrantzitsutzat, baina partzialtzat hartu behar da. Izan ere, ezagutza horren alde kuantitatiboetan zein kualitatiboetan sakontzen jarraitu beharko da.

Berdintasunaren kontzeptuak, ezbairik gabe, biei egiten die erreferentzia. Ikuspegi kuantitatibotik, emakumeen eta gizonen banketa berdina, %50 ingurukoa, litzateke

gizarte, hezkuntza, lan, aisialdi eta boterearen arlo guztietan. Ikuspegi kualitatibotik, eremu publikoan zein pribatuan norberaren gaitasunak garatzeko eta erabakiak hartzeko askatasunari egiten dio erreferentzia, batetik; eta bestetik, emakumeen eta gizonen ezagutzak, baloreak, ekarpenak eta esperientziak, jokabideak, jomugak eta beharrizanak berdin balioesten eta sustatzen dituen gizarteari.

Berdintasuna lortzea XXI. mendearen lehenengo urte hauetan, oraindik ere, benetako erronka da munduko herrialde guztientzat, salbuespenik gabe. Argitalpen honek erronka horri tresna onekin, eta profesionaltasunik eta gogorik handienekin aurre egiten laguntzea espero dugu.



TXARO ARTEAGA ANSA

EMAKUNDE / Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria

# 1
# SARRERA

Azken urteetan areagotu egin da Herri Administrazioek xede duten gizarte-errealitatea ezagutzeko agertutako interesa. Horrela, gizarte-errealitatea aztertzeko ikuspegiak aniztu egin dira eta gero eta korapilatsuagoak dira eta, ondorioz, zehatzagoak eta sofistikatuagoak dira egiten diren azterketak. Azken helburua da gizartea osatzen duten taldeei erantzuteko politika publiko eraginkorragoak garatzen laguntzea. Hain zuzen, azterketen politikak izandako garapenaren isla zuzena da gizarteko sektore jakin batzuk berariaz aukeratu eta horien bizimodua eta izan ditzaketen berariazko behar eta eskariak ezagutzeko egiten diren azterketak. Eta gizartea ikertzeko jarduera publikoaren baitan, Emakundek urtero lantzen ditu Euskadiko emakume eta gizonen egoerari buruzko txostenak; txosten horietan gizarteko hainbat esparrutako adierazleak erabiltzen dira eta helburu bakarra dute, sexuen arteko desberdintasunak antzemateko eta ikusteko bitarteko egokiak eskaintzea alegia. Aurten landu den azterlana diseinatzeko orduan aldagai berri bat barne hartu da: adina. Datuak adinaren arabera xehatuz hobeto ezagutuko dugu Euskadiko gizarte-errealitatea, izan ere, emakume eta gizonen bizi-baldintzak gaztaroan, helduaroan eta zahartzaroan ezagutzeko aukera eskaintzen digu adinaren araberako bereizketak.

Bigarren tomo honetan Euskadiko gizon-emakume helduen egoerari buruzko datuak barne hartu dira. Xede horrekin, hainbat esparrutako adierazleak erabili dira, besteak bete: demografia, familia-bizitza eta lan-bizitza bateragarri egitea, autonomia ekonomikoko mailak, hezkuntza-maila eta euskara, aisialdia eta bizitza soziala, eta osasun-arazoak eta indarkeria. Ezinezkoa da xede dugun bizi-etapa objektiboki mugatzea, hortaz, tomo honetan heldua izatearen kontzeptu nahiko malguki definitu da adin-muga desberdinak erabiliz eta adierazle bakoitzari dagokion iturria kontuan hartuz, nahiz eta, eskuarki, 30 urtetan jarri da gutxienezko muga eta 65 urtetan gehienezkoa.

# 2

# BIZTANLERIA

Euskal gizartearen errealitatea ahalik eta zehatzen ezagutzeko funtsezkoa eta lehentasunezkoa da biztanleria aztertzea. Hasteko, lurralde bateko biztanleriaren egitura aztertuz, gizarte batean eragina duten oinarrizko fenomeno geografikoak ezagutu ahal izango ditugu (jaiotza-tasa, heriotza-tasa, migrazioak, bai eta gizartean eragiten duten ezaugarri historikoak eta kulturalak ere). Bigarrenik, gizarte bat osatzen duten gizon eta emakumeen bizi-baldintzak islatzeko funtsezkoa da biztanleriaren ezaugarriak ezagutzea.

## DATU OROKORRAK 2.1

2001eko Biztanleria eta Etxebizitza Erroldaren datuen arabera, gaur egun, 2 milioi pertsona inguruk osatzen dute Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria, eta horietatik erdia baino pixka bat gehiago emakumeak dira (%51,1). Azken hamarkadetan biztanleriak izandako bilakaerari erreparatuz, datu horiek biztanleriaren gutxitzea ekarri duen joera baten barruan ulertu behar dira, hain zuzen joan den mendeko 80ko hamarkadaren hasiera aldera ekin zitzaion joera. Biztanleriaren pixkanakako gutxitzearekin batera, Euskadiko bitzanleria-egiturak aldaketa nabarmenak ezagutu ditu. Lurralde bateko biztanleria-egitura aipatzean, bertako biztanleriak sexuaren eta adinaren arabera duen banaketa ulertu behar da. Banaketa hori grafikoki adierazteko biztanleria-piramideak edo adin-piramideak erabiltzen dira.

## 2.1. TAULA Biztanleriak izandako aldaketak. 1981-2001

| | BIZTANLERIA | | BIZIRIK JAIOTAKOA | | HERIOTZAK | | HAZKUNDE BEGETATIBOA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | GIZONAK | EMAKUMEAK | GIZONAK | EMAKUMEAK | GIZONAK | EMAKUMEAK | |
| 1981 | 1.061.644 | 1.080.323 | 14.151 | 13.104 | 8.150 | 6.478 | 12.627 |
| 1986 | 1.053.935 | 1.082.165 | 10.645 | 9.615 | 8.475 | 7.006 | 4.779 |
| 1991 | 1.033.980 | 1.070.061 | 8.374 | 7.918 | 9.250 | 7.481 | -439 |
| 1996 | 1.027.114 | 1.070.941 | 8.138 | 7.847 | 9.705 | 8.330 | -2.050 |
| 2001 | 1.017.881 | 1.064.706 | 9.163 | 8.486 | 9.671 | 8.416 | -438 |

ITURRIA: EUSTAT, Biztanleria Erroldak eta INE, Biztanleriaren Mugimendu Naturala.

Biztanle-multzo jakin baten adinaren eta sexuaren araberako irudikapen grafikoa da biztanleria-piramidea; eta piramide izena ematen zaio, izan ere, arauzko suposamenduen arabera, piramide baten itxura hartzen dute biztanleria-egitura egokia duten gizarteek, hau da, oinarria zabala dute (jaiotza-kopuruaren ondorioz) eta pixkanaka, adinak aurrera egin ahala eta, ondorioz, heriotza-tasak gora egin ahala, estutzen joaten dira. Gainera, adin-piramidearen bitartez, adin-talde bakoitzeko gizon eta emakumeen kopurua zehazten denez, errazagoa zaigu biztanleriaren oinarrizko ezaugarriak ezagutzea eta horren baitan garatzen diren dinamika soziodemografikoak ezagutzea, hala nola jaiotza-tasaren eta heriotza-tasaren eragina.

2001eko Biztanleria Erroldako datuen arabera, EAEko biztanleria-piramideak erronbo baten itxura du; horrelakoetan, biztanleria erregresiboko piramide baten aurrean gaudela esan ohi da, edo beste modu batera esanda, piramidearen oinarria erdiko zatia baino zabalagoa da eta erpin bat zertxobait zabalagoa. Sundbarg-indizearen arabera —hiru adin-talde bereizten ditu eta biztanleriaren guztizkoarekiko duten pisua zehazten du—, %11,9ko portzentajezko pisua dute 15 urtetik beherako pertsonek, %52,4koa 15-50 urte bitartekoek eta, azkenik, %35,8koa 50 urtetik gorakoek. Herrialde garatuetan aurkituko ditugu mota horretako piramideak: trantsizio demogra-

fikoa amaitu dute eta oraindik azken belaunaldiak bizirik daude. Azken finean, biztanleria nahiko heldua da eta zahartzen ari da eta jaiotza-tasa heriotza-tasa baxuak dira. Hain zuzen, EAEko adin-egituren ikuspegi orokorrarekin jarraituz, orain aurkezten dugun azterketa honen xede pertsona helduak dira eta, zehazkiago, 30-64 adintarteko pertsonak.

## 2.1. GRAFIKOA Biztanleria-piramidea. 2001




ITURRIA: Biztanleria eta Etxebizitza Errolda. INE.

Azken bi hamarkadetan, orain aztertuko dugun adin-taldeak (30-64 urte artean) areagotu egin du guztizko biztanleriarekiko pisua: ia zortzi portzentajezko puntu irabazi ditu. 1981ean biztanleriaren %41,3 pertsona helduak baziren, gaur egun, azken Erroldaren arabera, %49,3 dira. Pertsona gazteenen bolumenak behera egin duelako eta, aldi berean, pertsona zaharrenen (65 urtetik gorakoak) proportzioak gora egin duelako gertatu da pertsona helduen taldeak izandako hazkundea.

*— EAEko biztanleriaren %49,3 pertsona helduak dira.*
*— Pertsona helduen artetik %51,1 emakumeak dira.*

2001ean, EAEko 30-65 urte arteko biztanleriaren bolumena milioi bat pertsonakoa zen, gutxi gorabehera, hau da, biztanleriaren erdia inguru. Adin-talde horrek sexuen arabera duen banaketa eta biztanleriaren guztizkoak duena berdinak dira: %51,1 emakumeak dira eta %49,9 gizonak.

## 2.2. TAULA Biztanleriaren bilakaera adin-talde handien arabera. 1981-2001

| | GUZTIRA | | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Abs. | % | Abs. | % | Abs. | % |
| 1981 | | | | | | |
| 29 urte arte | 1.059.686 | 49,5 | 519.875 | 48,1 | 539.805 | 50,8 |
| 30-64 urte bitartean | 885.350 | 41,3 | 440.932 | 40,8 | 444.424 | 41,9 |
| 65 urte eta gehiago | 196.931 | 9,2 | 119.516 | 11,1 | 77.415 | 7,3 |
| **Guztira** | **2.141.967** | **100,0** | **1.080.323** | **100,0** | **1.061.644** | **100,0** |
| 1991 | | | | | | |
| 29 urte arte | 887.875 | 42,2 | 434.236 | 40,6 | 453.639 | 43,9 |
| 30-64 urte bitartean | 949.540 | 45,1 | 475.768 | 44,5 | 473.772 | 45,8 |
| 65 urte eta gehiago | 266.626 | 12,7 | 160.057 | 15,0 | 106.569 | 10,3 |
| **Guztira** | **2.104.041** | **100,0** | **1.070.061** | **100,0** | **1.033.980** | **100,0** |
| 2001 | | | | | | |
| 29 urte arte | 683.683 | 32,8 | 332.772 | 31,3 | 350.911 | 34,5 |
| 30-64 urte bitartean | 1.025.675 | 49,3 | 514.008 | 48,3 | 511.667 | 50,3 |
| 65 urte eta gehiago | 373.229 | 17,9 | 217.926 | 20,5 | 155.303 | 15,3 |
| **Guztira** | **2.082.587** | **100,0** | **1.064.706** | **100,0** | **1.017.881** | **100,0** |

ITURRIA: INE. Biztanleria eta Etxebizitza Erroldak, 1981, 1991, 2001.

Adinaren eta sexuaren araberako banaketaz gain, oso interesgarria da 30-65 urte arteko pertsona helduen egoera zibila kontuan hartzea, izan ere, kategoria soziodemografiko erabilgarri bat da gizon eta emakumeen arteko elkartze zibilak noiz osatzen, indartzen eta bereizten diren jakiteko. Azken Biztanleria eta Etxebizitza Erroldako datuen arabera, pertsona helduen (30-65 urte bitartean) guztizkoaren gehiengo bat —hamarretik zazpi inguru—, ezkondu egin da bikotekidearekiko harremana formalizatzeko: emakumeen %72,5 eta gizonen %70,5. Gainerako pertsonei dagokienez, emakumeen %17,4 eta gizonen %25,4 ezkongabeak dira. Horrez gain, nahiz eta gutxiago izan, pertsona helduen %4,9 emakume alargunak dira eta %1 bakarrik gizon alargunak, eta emakumeen %5,2 bananduta edo dibortziatuta daude eta gizonen kasuan, amaitzeko, %3,6.

## 2.3. TAULA 30-64 urte bitarteko biztanleria egoera zibilaren eta adinaren arabera. 2001. (Portzentaje horizontalak)

| | | EMAKUMEAK | | | | | GIZONAK | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | EZKONGABEA | EZKONDUA | ALARGUNA | BANANDUA/ DIBORTZIATUA | GUZTIRA | EZKONGABEA | EZKONDUA | ALARGUNA | BANANDUA/ DIBORTZIATUA | GUZTIRA |
| 30-64 urte | Abs. | 88.964 | 371.458 | 25.089 | 26.570 | 512.081 | 129.515 | 356.461 | 5.180 | 18.363 | 509.519 |
| bitartean | % | 17,4 | 72,5 | 4,9 | 5,2 | 100,0 | 25,4 | 70,0 | 1,0 | 3,6 | 100,0 |
| 30-39 urte | Abs. | 54.285 | 105.450 | 1.339 | 7.405 | 168.479 | 80.513 | 87.621 | 258 | 4.390 | 172.782 |
| bitartean | % | 32,2 | 62,6 | 0,8 | 4,4 | 100,0 | 46,6 | 50,7 | 0,1 | 2,5 | 100,0 |
| 40-49 urte | Abs. | 21.172 | 120.086 | 4.423 | 11.125 | 156.806 | 28.726 | 117.132 | 1.020 | 7.663 | 154.541 |
| bitartean | % | 13,5 | 76,6 | 2,8 | 7,1 | 100,0 | 18,6 | 75,8 | 0,7 | 5,0 | 100,0 |
| 50-59 urte | Abs. | 10.175 | 107.577 | 11.023 | 6.540 | 135.315 | 15.562 | 110.398 | 2.252 | 5.117 | 133.329 |
| bitartean | % | 7,5 | 79,5 | 8,2 | 4,8 | 100,0 | 11,7 | 82,8 | 1,7 | 3,8 | 100,0 |
| 60-64 urte | Abs. | 3.332 | 38.345 | 8.304 | 1.500 | 51.481 | 4.714 | 41.310 | 1.650 | 1.193 | 48.867 |
| bitartean | % | 6,5 | 74,5 | 16,1 | 2,9 | 100,0 | 9,6 | 84,5 | 3,4 | 2,4 | 100,0 |
| **Adin guztiak** | **Abs.** | **416.298** | **488.302** | **119.117** | **29.978** | **1.053.695** | **480.475** | **488.087** | **22.568** | **20.651** | **1.011.781** |
| **GUZTIRA** | % | **39,5** | **46,3** | **11,3** | **2,8** | **100,0** | **47,5** | **48,2** | **2,2** | **2,0** | **100,0** |

ITURRIA: INE. Biztanleria eta Etxebizitza Errolda 2001.

# BIZTANLERIA ATZERRITARRA 2.2

Gaur egun EAEn bizi den biztanleria atzerritarrari buruzko datuei erreparatuz, gizartea fenomeno berri baten aurrean dagoela esan daiteke; eta fenomeno hori gure biztanleriaren bolumena eta osaera aldatzen ari da pixkanaka. Egia da EAEn bizi diren pertsona atzerritar guztiak ez daudela erroldatuta (hainbat arrazoirengatik), baina egia da, halaber, Biztanleria eta Etxebizitza Errolda dela, estatistika zehatza izanik, biztanleriari buruzko informazioa lortzeko iturririk egokienetakoa: sexu eta adinaren araberako banaketa, prestakuntza-maila, bizi diren etxebizitzen ezaugarriak, jarduera, lana eta langabezia, eta abar.

2001 Biztanleria eta Etxebizitza Erroldaren arabera, EAEn nazionalitate atzerritarra duten 31.168 pertsona bizi dira. Gainera, azken hamar urteetan, hirukoiztu egin da talde horren kopurua (1991ko Erroldako datuen arabera). Eurostat erakundeak 1999. urtean landutako datuen arabera, EAEko guztizko biztanleriaren %1,5 atzerritarrak dira; gehiago dira estatu espainolean (%4) eta Europar Batasunean (%4,9), eta askoz ere gehiago Belgikan (%9,3) edo Alemanian (%9,9).

Biztanleria atzerritarrak sexuen arabera duen banaketa orokorrari dagokionez, emakumeen (%50,6) eta gizonen (%49,4) arteko banaketa nahiko orekatua da. Adinaren arabera, bestalde, desberdintasun nabarmenak ikus daitezke guztizko biztanleriarekin alderatuta. Horren arrazoia da inmigrazioak ekarri duela biztanleria atzerritarra eta tarteko belaunaldiak izaten direla, nagusiki, inmigrazioaren fenomenoaren protagonistak.

## 2.2. GRAFIKOA Biztanleria atzerritarraren adin-piramidea. 2001




ITURRIA: Biztanleria eta Etxebizitza Errolda. INE.

Gure erkidegoan bizi diren biztanle atzerritarren erdia inguru (%50,9) pertsona helduen taldean sartzen dira, hau da, 30-64 adin-tartean sailkatzen dira. Horietatik %50,6 emakumeak dira eta %49,4 gizonak. Pertsona helduei dagokienez, 30-39 adin-tartean aurkituko dugu talderik zabalena, hain zuzen EAEko biztanle atzerritar guztien %28,1.

*— EAEn bizi diren pertsona atzerritarren %50,9k 30-64 urte bitartean dituzte.*
*— Biztanle heldu atzerritarren %50,6 emakumeak dira.*

Adinen araberako banaketa orokorrari dagokionez, eta biztanleriaren guztizkoarekin alderatuta, biztanleria atzerritarraren artean asko dira hogeita hamar urte baino gutxiago dituzten pertsonak (%45,2), guztizko biztanleriaren kasuan %32,8 direlarik; gainera, oso gutxi dira 65 urte eta urte gehiago dituzten pertsonak (%3,9), EAEko biztanleriaren guztizkoaren kasuan %17,9 direlarik. Horrela, pertsona gehienak adin helduetan multzokatu ahal badira ere, biztanleria orokorrean hartuta gertatzen den bezalaxe, biztanleria-egitura gaztea eta heldua dela esan daiteke, non ez den zahartze-prozesurik ezagutzen.

**2.4. TAULA Biztanleria atzerritarra adin-talde handien arabera. 2001. (Portzentaje bertikalak)**

| | GUZTIRA | | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | % | ABS. | % | ABS. | % |
| 29 urte bitartean | 14.094 | 45,2 | 7.062 | 44,8 | 7.032 | 45,7 |
| 30-64 urte bitartean | 15.865 | 50,9 | 8.024 | 50,9 | 7.841 | 50,9 |
| 30-39 urte bitartean | 8.760 | 28,1 | 4.355 | 27,6 | 4.405 | 28,6 |
| 40-49 urte bitartean | 4.819 | 15,5 | 2.458 | 15,6 | 2.361 | 15,3 |
| 50-59 urte bitartean | 1.834 | 5,9 | 972 | 6,2 | 862 | 5,6 |
| 60-64 urte bitartean | 452 | 1,5 | 239 | 1,5 | 213 | 1,4 |
| 65 urte eta gehiago | 1.209 | 3,9 | 691 | 4,4 | 518 | 3,4 |
| **GUZTIRA** | **31.168** | **100,0** | **15.777** | **100,0** | **15.391** | **100,0** |

ITURRIA: INE. Biztanleria eta Etxebizitza Errolda 2001.

Pertsona heldu eta atzerritarren egoera zibilari erreparatuz, biztanleriaren guztizkoarekiko desberdintasunak ikus daitezke, baita sexuen araberakoak ere. Horrela, ema-

kumeen kasuan, emakume heldu atzerritarren %59,3 ezkonduta daude eta %25,9 ezkondu gabe. Gizonen kasuan, ordea, gehiago dira ezkonduta eta ezkondu gabe daudenak: %63,9 ezkonduta eta %29,7 ezkondu gabe. Modu berean, emakume helduen taldean gehiago dira alargunak (%4,4) eta bananduta edo dibortziatuta daudena (%10), gizon helduen taldean baino, non %0,7 besterik ez diren alargunak eta %5,7 bakarrik dauden bananduta.

**2.5. TAULA 30-64 urte bitarteko biztanleria atzerritarra egoera zibilaren eta adinaren arabera. 2001. (Portzentaje horizontalak)**

| | | EMAKUMEAK | | | | | GIZONAK | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | EZKONGABEA | EZKONDUA | ALARGUNA | BANANDUA/ DIBORTZIATUA | GUZTIRA | EZKONGABEA | EZKONDUA | ALARGUNA | BANANDUA/ DIBORTZIATUA | GUZTIRA |
| 30-64 urte | Abs. | 2.043 | 4.674 | 347 | 817 | 7.881 | 2.240 | 4.825 | 54 | 427 | 7.546 |
| bitartean | % | 25,9 | 59,3 | 4,4 | 10,4 | 100,0 | 29,7 | 63,9 | 0,7 | 5,7 | 100,0 |
| 30-39 urte | Abs. | 1.351 | 2.473 | 75 | 357 | 4.256 | 1.666 | 2.367 | 6 | 189 | 4.228 |
| bitartean | % | 31,7 | 58,1 | 1,8 | 8,4 | 100,0 | 39,4 | 56,0 | 0,1 | 4,5 | 100,0 |
| 40-49 urte | Abs. | 520 | 1.491 | 106 | 315 | 2.432 | 437 | 1.658 | 24 | 157 | 2.276 |
| bitartean | % | 21,4 | 61,3 | 4,4 | 13,0 | 100,0 | 19,2 | 72,8 | 1,1 | 6,9 | 100,0 |
| 50-59 urte | Abs. | 139 | 577 | 117 | 123 | 956 | 111 | 644 | 13 | 66 | 834 |
| bitartean | % | 14,5 | 60,4 | 12,2 | 12,9 | 100,0 | 13,3 | 77,2 | 1,6 | 7,9 | 100,0 |
| 60-64 urte | Abs. | 33 | 133 | 49 | 22 | 237 | 26 | 156 | 11 | 15 | 208 |
| bitartean | % | 13,9 | 56,1 | 20,7 | 9,3 | 100,0 | 12,5 | 75,0 | 5,3 | 7,2 | 100,0 |
| **Adin guztiak** | **Abs.** | **7.249** | **6.451** | **720** | **976** | **15.396** | **7.909** | **6.100** | **117** | **495** | **14.621** |
| **guztira** | **%** | **47,1** | **41,9** | **4,7** | **6,3** | **100,0** | **54,1** | **41,7** | **0,8** | **3,4** | **100,0** |

ITURRIA: INE. Biztanleria eta Etxebizitza Errolda 2001.

Biztanleria atzerritarraren jatorria zehaztea, hots, bakoitzaren jatorrizko herrialdea ezagutzea oso erabilgarria zaigu gero eta ugaritsuago den biztanleria-talde horren osaera hobeto ezagutzeko. Jatorrizko kontinenteen arabera, biztanle atzerritar heldu gehienak Amerikatik (%43,7) eta Europatik (%35,6) etorriak dira. Kontinente afrika-

rretik %15,8 biztanle atzerritar heldu etorri dira, Asiatik baino gehiago (%4,6). Sexuen araberako banaketari erreparatuz, desberdintasun nabarmenak ikus daitezke. Emakumeen kasuan, gehiago dira Amerikatik etorritakoak: %55,8 eta gizonak %30,9 dira. Aurkakoa gertatzen da Europatik etorritako biztanle atzerritarrei dagokienez: gizon atzerritar helduak %41,2 dira, emakumeak baino gehiago (%30,4). Era berean, Afrikatik etorri dira gizon atzerritarren %22,3 eta emakumeen %9,5.

*Biztanleria atzerritarraren artean, emakumeen %55,8 eta gizonen %30,9 Amerikatik etorri dira.*

Pertsona atzerritarren proportzioa jatorrizko herrialdearen arabera aztertuz ere hainbat desberdintasun aurkituko ditugu inmigrazioaren fenomenoarekin erlazionatuta. Kontinente amerikarrari dagokionez —bertatik iritsi da etorkin gehien—, Kolonbia eta Ekuador dira etorkin gehienen jatorrizko herrialdeak. EAEn bizi diren pertsona atzerritar guztien artetik gehienak emakumeak dira, %68,2, eta gizonak %31,8 dira. Ekuadorri dagokionez, emakumeak dira %55,7 eta gizonak %44,3. Brasil da etorkin gehien bidali duen hirugarren herrialdea (594 pertsona), eta bertako etorkinen artean ikus daiteke emakumeen eta gizonen proportzioen arteko alderik handiena, alegia: %84,3 emakumeak dira eta %15,7 gizonak.

**2.6. TAULA** **30-64 urte bitarteko biztanleria atzerritarra jatorrizko kontinentearen arabera. 2001**

| | GUZTIRA | | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | % | ABS. | % | ABS. | % |
| Europa | 5.499 | 35,6 | 2.392 | 30,4 | 3.107 | 41,2 |
| Afrika | 2.430 | 15,8 | 745 | 9,5 | 1.685 | 22,3 |
| Amerika | 6.735 | 43,7 | 4.400 | 55,8 | 2.335 | 30,9 |
| Asia | 716 | 4,6 | 327 | 4,1 | 389 | 5,2 |
| Ozeania | 46 | 0,3 | 16 | 0,2 | 30 | 0,4 |
| Aberri gabeak | 1 | 0,0 | 1 | 0,0 | 0 | 0,0 |
| **GUZTIRA** | **15.427** | **100,0** | **7.881** | **100,0** | **7.546** | **100,0** |

ITURRIA: INE. Biztanleria eta Etxebizitza Errolda 2001.

Kontinente afrikarrari dagokionez, Marokotik iritsi da pertsona atzerritarren multzo zabalena, hain zuzen biztanleria atzerritar afrikarraren erdia inguru (%49,7); ondoren dauden Aljeria (%14,4) eta Senegal (%7,4). Kontinente afrikarreko etorkinak sexuen arabera aztertuz, gehiago dira gizonak emakumeak baino. Marokkoarrei dagokienez, %65,3 gizonak dira eta andreak, berriz, %34,7. Bestalde, biztanleria atzerritar aljeriarraren kasuan, askoz ere gehiago dira gizonak (%80,5), emakumeak %19,5 besterik ez diren bitartean.

**2.7. TAULA 30-64 urte bitarteko biztanleria atzerritarra kontinentearen eta jatorrizko herrialde nagusien arabera. 2001. (Portzentaje horizontalak)**

| | GUZTIRA | GIZONAK | | EMAKUMEAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % | ABS. | % |
| EUROPA | | | | | |
| EB (15) | 4.686 | 2.695 | 57,5 | 1.991 | 42,5 |
| Gainerakoa | 813 | 412 | 50,7 | 401 | 49,3 |
| **Guztira** | **5.499** | **3.107** | **56,5** | **2.392** | **43,5** |
| AFRIKA | | | | | |
| Maroko | 1.207 | 788 | 65,3 | 419 | 34,7 |
| Aljeria | 349 | 281 | 80,5 | 68 | 19,5 |
| Senegal | 179 | 164 | 91,6 | 15 | 8,4 |
| Ekuatore Ginea | 96 | 17 | 17,7 | 79 | 82,3 |
| Angola | 114 | 74 | 64,9 | 40 | 35,1 |
| Nigeria | 51 | 32 | 62,7 | 19 | 37,3 |
| Gainerakoa | 434 | 329 | 75,8 | 105 | 24,2 |
| **Guztira** | **2.430** | **1.685** | **69,3** | **745** | **30,7** |
| AMERIKA | | | | | |
| Ipar Amerika | 421 | 184 | 43,7 | 237 | 56,3 |
| Kolonbia | 2.631 | 837 | 31,8 | 1.794 | 68,2 |
| Ekuador | 1.043 | 462 | 44,3 | 581 | 55,7 |
| Brasil | 594 | 93 | 15,7 | 501 | 84,3 |
| Kuba | 528 | 181 | 34,3 | 347 | 65,7 |
| Gainerakoa | 1.518 | 578 | 38,1 | 940 | 61,9 |
| **Guztira** | **6.735** | **2.335** | **34,7** | **4.400** | **65,3** |
| ASIA | | | | | |
| Txina | 387 | 217 | 56,1 | 170 | 43,9 |
| Filipinak | 135 | 44 | 32,6 | 91 | 67,4 |
| Gainerakoa | 194 | 129 | 66,5 | 66 | 34,0 |
| **Guztira** | **716** | **389** | **54,3** | **327** | **45,7** |
| OZEANIA | | | | | |
| Australia | 40 | 27 | 67,5 | 13 | 32,5 |
| Zeelanda Berria | 6 | 3 | 50,0 | 3 | 50,0 |
| **Guztira** | **46** | **30** | **65,2** | **16** | **34,8** |

ITURRIA: INE. Biztanleria eta Etxebizitza Errolda 2001.

Kontinente europarra aztertuz ere sexuaren araberako desberdintasunak ikusiko ditugu, nahiz eta ez izan desberdintasun handiegiak. Europar Batasuneko herrialde batetik etorritako biztanleria helduari dagokionez, gehiago dira gizonak (%57,5) emakumeak baino (%42,5), eta bi kasuetan, Portugal eta Frantziatik iristen dira etorkin gehienak.

**2.8. TAULA 30-64 urte bitarteko biztanleria atzerritarra nazionalitatearen arabera. 2001**

| | GUZTIRA | | GIZONAK | | EMAKUMEAK | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | % | ABS. | % | ABS. | % |
| Austria | 20 | 0,4 | 11 | 0,3 | 9 | 0,4 |
| Belgika | 77 | 1,4 | 50 | 1,6 | 27 | 1,2 |
| Danimarka | 22 | 0,4 | 12 | 0,4 | 10 | 0,4 |
| Finlandia | 14 | 0,3 | 4 | 0,1 | 10 | 0,4 |
| Frantzia | 710 | 13,1 | 338 | 10,7 | 372 | 16,5 |
| Grezia | 9 | 0,2 | 7 | 0,2 | 2 | 0,1 |
| Irlanda | 136 | 2,5 | 79 | 2,5 | 57 | 2,5 |
| Italia | 353 | 6,5 | 242 | 7,6 | 111 | 4,9 |
| Luxenburgo | 2 | 0,0 | 1 | 0,0 | 1 | 0,0 |
| Herbehereak | 85 | 1,6 | 58 | 1,8 | 27 | 1,2 |
| Portugal | 2.051 | 37,8 | 1.157 | 36,5 | 894 | 39,7 |
| Erresuma Batua | 635 | 11,7 | 396 | 12,5 | 239 | 10,6 |
| Alemania | 536 | 9,9 | 322 | 10,2 | 214 | 9,5 |
| Suedia | 36 | 0,7 | 18 | 0,6 | 18 | 0,8 |
| EB (15) | 5.420 | 100,0 | 3.168 | 100,0 | 2.252 | 100,0 |

ITURRIA: INE. Biztanleria eta Etxebizitza Errolda 2001.

# 3

# FAMILIAK, UGALKETA ETA EZKOTZA TASA

## FAMILIAK ETA FAMILIEN EGITURA

# 3.1

Hasteko, kontuan hartu behar da ezinezkoa dela "familia" eredu bakar eta aldaezin gisa definitu; horrela, gaur egun eragin handiko elementua dira familiak gizarte ororen antolakuntzan. 2001eko Biztanleria eta Etxebizitza Erroldaren arabera, eta datu zehatzagorik ezean, aurreko Erroldetan barne hartutako datuekiko aldaketa nabarmenak gertatu direla esan daiteke, batez ere familia-mota desberdinen pisuari dagokionez. Familia-moten banaketak izandako aldaketa esanguratsuenetako bat da familia tradizionalak orain arteko hegemonia galdu duela estreinakoz eta, ondorioz, gaur egun, euskal familien erdia baino gutxiago sartu ahal dira familia tradizionalen multzoan. Murrizketa horren parean, bakarrik bizi diren pertsonak ugaritu egin dira eta, gaur egun, bost familiaren artetik bat pertsona bakar batek osatutakoak dira. Bakarrik bizi diren pertsonen %59 emakumeak dira; gainera, horien %48 ezkongabeak dira eta alargunak %36. Era berean, gora egin du seme-alabarik gabeko bikoteen kopuruak, gaur egun euskal familien %18,5 direlarik. Jende gehien biltzen duen laugarren tipologia amak eta seme-alabak(ek) bakarrik osatutako familiek eta emakumea familiaburu den familiek osatzen dute (%9,6). Datu azpimarragarria da gaur egun guraso bakarreko bost familiaren artetik lautan emakumea dela familiaburua.

### 3.1. GRAFIKOA Familia-moten bilakaera. 1981-2001 (%)




ITURRIA: EUSTAT. Biztanleria eta Etxebizitza Errolda 2001.

Laburbilduz, azken hamarkadetan seme-alabak dituzten familia nuklearrek pisua galdu dute, familia nuklearrak desagertzearen ondorioz (heriotzagatik edo familia hautsi delako); hortaz, gaur egun agerpen handiagoa dute lehen pisu gutxiago zuten familia-motek.

*— Bakarrik bizi diren pertsonen %89 emakumeak dira.*
*— Guraso bakarreko bost familiaren artetik lautan emakumeak dira familiaburu.*

UGALKETA

# 3.2

Orokorrean, ezkontza-tasa eta ugalketa garrantzi handiko fenomenoak dira helduaroaren bizi-zikloaren baitan. Era berean, eta ikuspegi demografikoari jarraituz, ezkontza-tasa eta ugalketa estuki lotutako bi fenomeno dira, izan ere, oraingoz ezkontzaz kanpo jaiotzen diren haurrak gutxiengoa dira EAEn: 2002an jaiotako haur guztien %18 ama ezkongabeek izan zituzten. Nahiz eta azken urteetan kopuru hori areagotu egin den eta 1987tik hirukoiztu egin den, oraindik Europako hainbat herrialdetatik oso urrun dago EAE, besteak beste Suedia (%56), Norvegia (%50,3) edo Danimarka (%44,6%)(1).

**3.1. TAULA Bizirik jaiotako pertsonak amaren egoera zibilaren arabera. 1986-2002**

| | EZKONDUA | | EZKONGABEA | |
|---|---|---|---|---|
| | ABS. | % | ABS. | % |
| 1986 | 18.916 | 94,1 | 1.178 | 5,9 |
| 1987 | 17.453 | 93,9 | 1.140 | 6,1 |
| 1988 | 16.830 | 93,4 | 1.191 | 6,6 |
| 1989 | 15.762 | 92,6 | 1.262 | 7,4 |
| 1990 | 15.095 | 92,3 | 1.266 | 7,7 |
| 1991 | 14.929 | 92,0 | 1.299 | 8,0 |
| 1992 | 14.769 | 90,9 | 1.481 | 9,1 |
| 1993 | 14.344 | 90,8 | 1.457 | 9,2 |
| 1994 | 13.784 | 90,2 | 1.500 | 9,8 |
| 1995 | 13.787 | 90,0 | 1.535 | 10,0 |
| 1996 | 14.305 | 89,5 | 1.682 | 10,5 |
| 1997 | 14.321 | 87,7 | 2.004 | 12,3 |
| 1998 | 14.039 | 87,1 | 2.074 | 12,9 |
| 1999 | 14.495 | 86,3 | 2.292 | 13,7 |
| 2000 | 14.679 | 84,8 | 2.637 | 15,2 |
| 2001 | 14.772 | 83,7 | 2.875 | 16,3 |
| 2002 | 14.861 | 82,0 | 3.272 | 18,0 |

ITURRIA: EUSTAT. Jaiotzen estatistika.

(1) Eurostatetik ateratako datuak, 2002. urtekoak.

EUSTATen Jaiotzen Estatistikaren arabera, EAEn 18.133 haur jaio ziren 2002an; horietatik erdia baino gehiago (%50,8) mutilak izan ziren eta %49,2 neskak. Iazko datuekin alderatuta, oraingoan %2,8 egin du gora jaiotza-kopuruak: Bizkaian erregistratu da hazkunderik handiena (%3,7) eta ondoren Araban (%2,3) eta Gipuzkoan (%1,6). Horrela, hazkunde-tasa 8,8 pertsona/1.000 biztanleko da eta emaitza horrek oso urrunetik begiratzen dio 1975ean lortutakoari (‰19,1), baina 1994 eta 1995ean (‰7,3) erregistratutako emaitza baxua baino hobea da. Gauzak horrela, jaiotza-tasa indartzea lortu dela esan daiteke. Hala ere, oraindik Europako batez bestekotik behera dago Euskadi jaiotza-tasari dagokionez (‰10,6), bai eta Espainiako batez bestekotik behera ere (‰10,1). Gainera, jaiotza baino heriotza gehiago gertatzen dira eta, ondorioz, eta migrazio-mugimenduak alde batera utzita, balantzea negatiboa da.

## 3.2. TAULA Bizirik jaiotako pertsonen eta jaiotza-tasen bilakaera (‰). 1975-2002

| | EAE | | ARABA | | BIZKAIA | | GIPUZKOA | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | JAIOTAKO PERTSONAK | TASA | JAIOTAKO PERTSONAK | TASA | JAIOTAKO PERTSONAK | TASA | JAIOTAKO PERTSONAK | TASA |
| 1975 | 39.646 | 19,1 | 4.833 | 20,4 | 22.075 | 19,1 | 12.738 | 18,7 |
| 1976 | 41.100 | 19,7 | 4.809 | 20,1 | 22.924 | 19,8 | 13.367 | 19,6 |
| 1977 | 38.806 | 18,5 | 4.634 | 19,0 | 21.754 | 18,6 | 12.418 | 18,1 |
| 1978 | 35.657 | 16,8 | 4.560 | 18,4 | 19.987 | 17,0 | 11.110 | 16,1 |
| 1979 | 31.835 | 15,0 | 4.163 | 16,5 | 18.356 | 15,5 | 9.316 | 13,5 |
| 1980 | 28.812 | 13,5 | 3.917 | 15,3 | 16.569 | 13,9 | 8.326 | 12,0 |
| 1981 | 27.255 | 12,7 | 3.710 | 14,3 | 15.419 | 13,0 | 8.126 | 11,7 |
| 1982 | 25.670 | 12,0 | 3.436 | 13,2 | 14.142 | 11,9 | 8.092 | 11,6 |
| 1983 | 23.920 | 11,1 | 3.374 | 12,8 | 13.092 | 11,0 | 7.454 | 10,7 |
| 1984 | 22.411 | 10,4 | 3.108 | 11,7 | 12.426 | 10,5 | 6.877 | 9,9 |
| 1985 | 20.970 | 9,8 | 3.008 | 11,2 | 11.582 | 9,8 | 6.380 | 9,2 |
| 1986 | 20.094 | 9,4 | 2.693 | 10,0 | 10.981 | 9,3 | 6.420 | 9,3 |
| 1987 | 18.593 | 8,7 | 2.572 | 9,5 | 10.148 | 8,6 | 5.873 | 8,5 |
| 1988 | 18.021 | 8,5 | 2.577 | 9,5 | 9.724 | 8,3 | 5.720 | 8,4 |
| 1989 | 17.024 | 8,0 | 2.389 | 8,8 | 9.024 | 7,7 | 5.611 | 8,2 |
| 1990 | 16.361 | 7,8 | 2.290 | 8,4 | 8.724 | 7,5 | 5.347 | 7,9 |

**3.2. TAULA Bizirik jaiotako pertsonen eta jaiotza-tasen bilakaera (‰). 1975-2002 (jarraipena)**

| | EAE | | ARABA | | BIZKAIA | | GIPUZKOA | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | JAIOTAKO PERTSONAK | TASA | JAIOTAKO PERTSONAK | TASA | JAIOTAKO PERTSONAK | TASA | JAIOTAKO PERTSONAK | TASA |
| 1991 | 16.228 | 7,7 | 2.276 | 8,3 | 8.557 | 7,4 | 5.395 | 8,0 |
| 1992 | 16.250 | 7,7 | 2.221 | 8,0 | 8.587 | 7,5 | 5.442 | 8,0 |
| 1993 | 15.801 | 7,5 | 2.239 | 8,1 | 8.203 | 7,1 | 5.359 | 7,9 |
| 1994 | 15.248 | 7,3 | 2.024 | 7,2 | 7.991 | 7,0 | 5.269 | 7,8 |
| 1995 | 15.322 | 7,3 | 2.082 | 7,4 | 7.879 | 6,9 | 5.361 | 7,9 |
| 1996 | 15.987 | 7,6 | 2.249 | 8,0 | 8.148 | 7,2 | 5.590 | 8,3 |
| 1997 | 16.325 | 7,8 | 2.226 | 7,9 | 8.333 | 7,4 | 5.766 | 8,6 |
| 1998 | 16.113 | 7,7 | 2.249 | 7,9 | 8.216 | 7,3 | 5.648 | 8,4 |
| 1999 | 16.787 | 8,1 | 2.321 | 8,2 | 8.599 | 7,6 | 5.867 | 8,7 |
| 2000 | 17.316 | 8,3 | 2.487 | 8,8 | 8.818 | 7,9 | 6.011 | 8,9 |
| 2001 | 17.647 | 8,5 | 2.436 | 8,5 | 9.040 | 8,1 | 6.171 | 9,2 |
| 2002 | 18.133 | 8,8 | 2.491 | 8,7 | 9.372 | 8,4 | 6.270 | 9,4 |

ITURRIA: EUSTAT. Jaiotzen estatistika.

Ama izateko adina atzeratu egin da eta horrek eragin du 1976tik aurrera jaiotza-tasak ezagutu duen beherapen handia. Zentzu horretan, bereziki azpimarragarria da 2002an izandako lau jaiotzen artetik ia hirutan amek 30-34 urte bitartean zituztela. Kide gehien dituen taldea 30-34 urte bitarteko amen taldea da eta bertan kokatzen dira jaiotza guztien %45,4. Bestalde, 35-39 urte bitarteko amen taldeak bost portzentajezko puntutan gainditzen du 25-29 urte bitarteko amen taldea. Datu horiek nahiko argi islatzen dute gizarteko errealitatea, eta errealitate horretan amek erabakitzen dute 30 urtetik aurrera edukitzea seme-alabak, aurreko belaunaldietako ama izateko adina nabarmenki atzeratuz.

### 3.3. TAULA Bizirik jaiotako pertsonak, amaren adinaren arabera. 2002

| | GUZTIRA | | MUTILAK | NESKAK |
|---|---|---|---|---|
| | ABS. | % | ABS. | ABS. |
| 19 urte arte | 205 | 1,1 | 90 | 71 |
| 20-24 urte bitartean | 818 | 4,5 | 392 | 357 |
| 25-29 urte bitartean | 3.641 | 20,1 | 1.565 | 1.547 |
| 30-34 urte bitartean | 8.232 | 45,4 | 4.115 | 4.015 |
| 35-39 urte bitartean | 4.660 | 25,7 | 2.673 | 2.563 |
| 40-44 urte bitartean | 558 | 3,1 | 374 | 345 |
| 45 urte eta gehiago | 19 | 0,1 | 10 | 16 |
| **GUZTIRA** | **18.133** | **100,0** | **9.219** | **8.914** |

ITURRIA: EUSTAT. Jaiotzen estatistika.

Azken bi hamarkadetako datuei erreparatuz, nabarmen geratzen da ama izateko adina atzeratu egin dela. 1987an emakume gehien biltzen zituen taldea 25-29 urteko taldea zen (%41,9) eta 30 urte eta gehiagoko emakumeen artean erregistratutako jaiotzen proportzioa %38,5 zen; datozen urteetan badirudi joera hori aldatu egingo dela. Adin gutxiagoko emakumeen taldeak pisua galdu du eta adin gehiagoko emakumeek bereganatu dute. 1987an 30 urtetik beherako emakumeen adin-taldean izan ziren jaiotzen %61,5 eta 30 urtetik gorako emakumeenean %38,5; 2002. urtean, berriz, azken talde horren baitan jaio dira haurren %74,3 eta 30 urtetik beherako emakumeen taldean %25,7.

*2002an 30-34 urte bitarteko amen artean izan ziren jaiotza guztien %45,4.*

**3.4. TAULA Bizirik jaiotako pertsonak amaren adinaren arabera. 1987-1992-1997-2002**

| | 1987 | | 1992 | | 1997 | | 2002 | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | % | ABS. | % | ABS. | % | ABS. | % |
| <=19 | 595 | 3,2 | 294 | 1,8 | 203 | 1,2 | 205 | 1,1 |
| 20-24 | 3.046 | 16,4 | 1.563 | 9,6 | 845 | 5,2 | 818 | 4,5 |
| 25-29 | 7.787 | 41,9 | 5.882 | 36,2 | 4.117 | 25,2 | 3.641 | 20,1 |
| 30-34 | 5.155 | 27,7 | 6.512 | 40,1 | 7.819 | 47,9 | 8.232 | 45,4 |
| 35-39 | 1.697 | 9,1 | 1.809 | 11,1 | 3.038 | 18,6 | 4.660 | 25,7 |
| 40-44 | 298 | 1,6 | 182 | 1,1 | 294 | 1,8 | 558 | 3,1 |
| >=45 | 15 | 0,1 | 8 | 0,0 | 9 | 0,1 | 19 | 0,1 |
| **GUZTIRA** | **18.593** | **100,0** | **16.250** | **100,0** | **16.325** | **100,0** | **18.133** | **100,0** |

ITURRIA: EUSTAT. Jaiotzen estatistika.

Bestalde, jaiotzen hurrenkerari, edo beste modu batera esanda, jaiotako haurrak amaren amaierako ondorengoetan betetzen duen lekuari dagokionez, 2002an %58,1 lehenengo seme/alabak izan ziren, %36,1 bigarrenak eta %5,8 bakarrik hirugarren edo ondorengoak. Kopuru horiei erreparatuz, gure erkidegoaren jaiotza-tasa baxuaren arrazoiak hobeto ulertu ahal dira, izan ere, lehenengo seme/alaba edukitzeko adina atzeratzeaz gain, seme/alaba gutxiago edukitzen dira.

**3.5. TAULA Bizirik jaiotako pertsonak amaren adinaren eta jaiotza-hurrenkeraren arabera. 2002**

| | LEHENENGOA | | BIGARRENA | | HIRUGARRENA EDO ONDORENGOA | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | % | ABS. | % | ABS. | % |
| <15-19 | 144 | 1,4 | 17 | 0,3 | 0 | 0,0 |
| 20-24 | 572 | 5,4 | 143 | 2,2 | 34 | 3,2 |
| 25-29 | 2.437 | 23,1 | 561 | 8,6 | 114 | 10,8 |
| 30-34 | 5.063 | 48,1 | 2.795 | 42,7 | 272 | 25,8 |
| 35-39 | 2.046 | 19,4 | 2.705 | 41,3 | 485 | 46,1 |
| 40-45 | 261 | 2,5 | 325 | 5,0 | 146 | 13,9 |
| >=46 | 9 | 0,1 | 2 | 0,0 | 2 | 0,2 |
| **GUZTIRA** | **10.532** | **100,0** | **6.548** | **100,0** | **1.053** | **100,0** |

ITURRIA: EUSTAT. Jaiotzen estatistika.

EUSTATek 2002an egindako Inkesta Demografikoan hainbat adierazle erabili ziren EA-Eko emakumeek izaten zituzten ondorengoen azterketa islatzeko (belaunaldien araberakoa); era berean, amek azkenean eduki nahi dituzten ondorengoak erabakitzeko orduan eragina duten hainbat ezaugarri sozio-profesional erabili ziren. Zentzu horretan, argi ikus daiteke pixkanaka gutxitzen ari dela emakume bakoitzak batez beste izaten duen seme-alaben kopurua. Bereziki azpimarragarria da, egun 70 urte inguru dituzten emakumeek (1931-35 urteetako belaunaldiak) batez beste 2,68 seme-alaba dituztela; gaur egun berrogei urte inguru dituztenek, ordea (1956-1960 urteetako belaunaldiak) batez beste 1,54 seme-alaba edukitzen dituzte. Eta 40 urte baino gutxiago dituzten belaunaldiei dagokienez, oraindik ezinezkoa da jakitea azkenean izango dituzten seme-alabak baina, orain arteko datuei erreparatuz, litekeena da gutxiago izatea.

## 3.6. TAULA Seme-alaben batez bestekoa kopurua amen belaunaldien arabera. 2002

| | EAE | ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA |
|---|---|---|---|---|
| **GUZTIRA** | **1,52** | **1,54** | **1,49** | **1,57** |
| 1985-1981 | 0,01 | 0,02 | 0,01 | 0,01 |
| 1980-1976 | 0,04 | 0,03 | 0,05 | 0,04 |
| 1975-1971 | 0,27 | 0,19 | 0,29 | 0,29 |
| 1970-1966 | 0,81 | 0,83 | 0,76 | 0,90 |
| 1965-1961 | 1,21 | 1,38 | 1,14 | 1,26 |
| 1960-1956 | 1,54 | 1,55 | 1,55 | 1,53 |
| 1955-1951 | 1,87 | 1,95 | 1,85 | 1,89 |
| 1950-1946 | 2,25 | 2,14 | 2,22 | 2,34 |
| 1945-1941 | 2,42 | 2,82 | 2,30 | 2,45 |
| 1940-1936 | 2,76 | 2,70 | 2,79 | 2,73 |
| 1935-1931 | 2,68 | 2,87 | 2,56 | 2,83 |
| 1930-1926 | 2,60 | 3,03 | 2,54 | 2,54 |
| 1925-1921 | 2,42 | 2,46 | 2,45 | 2,35 |
| 1920-1916 | 2,32 | 2,35 | 2,29 | 2,35 |

ITURRIA: EUSTAT. Inkesta Demografikoa, 2002.

Emakumeen belaunaldi batean amaieran izandako seme-alaben kopurua eragin ahal izan duten faktoreei dagokienez, bereziki azpimarragarria da emakumeen egoera sozio-ekonomikoa eta hezkuntza-maila. Lehenengoari dagokionez, argi hitz egiten dute lortutako kopuruek: egun 40 urte edo gehiago dituzten emakumeen belaunaldi guztietan Ugalkortasun Indize Sintetikoa (hau da, emakume bakoitzak batez beste dituen seme-alabak) altuagoa izan da, beti, "mendeko ez-aktibotzat" sailkatutako emakumeen taldean. Aitzitik, "goi-taldean" eta "erdi-mailako profesional eta enplegatuen" taldean aurkituko dugu guztizkoarekin alderatuta ondorengo gutxiago izan dituzten emakumeen taldea. Zentzu horretan, kontuan hartu behar da emakumeen ugalkortasuna eta lan-munduan sartzeko aukerak erlazio handia duten bi faktore direla. Are gehiago esango dugu: enpleguaren kualifikazioak gora egin duen neurrian, gutxitu egin da emakume horiek amaieran izandako seme-alaben kopurua.

## 3.7. TAULA 40 urte eta gehiagoko emakumeek izaten dituzten ondorengoak belaunaldiaren eta ezaugarri sozio-ekonomikoen arabera. 2002

| | GUZTIRA | GOI-TALDEAK | ERDI-MAILAKO LANBIDEAK ETA ENPLEGATUAK | ARTISAUTZA ETA NEKAZARITZA | LANGILE KUALIFIKATUAK | LANGILE EZ-KUALIFIKATUAK | MENDEKO EZ-AKTIBOAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **GUZTIRA** | **2,15** | **1,69** | **1,72** | **2,24** | **1,95** | **2,23** | **2,51** |
| 1960-1956 | 1,53 | 1,33 | 1,44 | 1,67 | 1,53 | 1,57 | 1,80 |
| 1955-1951 | 1,87 | 1,76 | 1,58 | 2,04 | 1,66 | 2,03 | 2,21 |
| 1950-1946 | 2,23 | 1,93 | 1,98 | 2,04 | 2,11 | 2,41 | 2,49 |
| 1945-1941 | 2,38 | 1,96 | 2,00 | 2,47 | 2,12 | 2,72 | 2,59 |
| 1940-1936 | 2,71 | 2,07 | 2,42 | 2,76 | 2,29 | 2,86 | 2,86 |
| 1935-1931 | 2,54 | 2,24 | 2,07 | 2,63 | 2,07 | 2,61 | 2,72 |
| 1930-1926 | 2,41 | 1,82 | 1,66 | 2,41 | 2,30 | 2,37 | 2,69 |
| 1925-1921 | 2,19 | 1,77 | 2,02 | 2,20 | 1,76 | 2,00 | 2,47 |
| 1920-1916 | 2,12 | 1,45 | 1,35 | 2,01 | 2,33 | 1,83 | 2,49 |

ITURRIA: EUSTAT. Inkesta Demografikoa, 2002.

Hezkuntza-mailak —aurreko faktorearekin oso erlazionatuta dagoen aldagaia hau ere— eragin handia du; horrela, goi-mailako eta erdi-mailako ikasketak dituzten emakumeak dira ondorengo gutxien dituztenak, hezkuntza-maila baxuagoa duten emakumeekin alderatuta.

**3.8. TAULA** **40 urte eta gehiagoko emakumeen amaierako ondorengoak belaunaldiaren eta hezkuntza-mailaren arabera. 2002**

| | GUZTIRA | ANALF. | IKASKETARIK EZ | ESKOLAURREA LEHEN MAILAKOAK | LANB.-HEZ. | BIGARREN MAILAKOAK | ERDI--MAILAKOA GOI--MAILAKOAK | GOI--MAILAKOAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **GUZTIRA** | **2,15** | **2,76** | **2,46** | **2,27** | **1,71** | **1,83** | **1,72** | **1,60** |
| 1960-1956 | 1,53 | 0,18 | 2,07 | 1,67 | 1,41 | 1,39 | 1,37 | 1,44 |
| 1955-1951 | 1,87 | - | 2,55 | 2,03 | 1,80 | 1,63 | 1,35 | 1,75 |
| 1950-1946 | 2,23 | 3,22 | 2,89 | 2,30 | 2,13 | 2,06 | 2,03 | 1,56 |
| 1945-1941 | 2,38 | 2,53 | 2,96 | 2,40 | 2,07 | 2,37 | 2,06 | 2,15 |
| 1940-1936 | 2,71 | 3,90 | 3,24 | 2,68 | 2,34 | 2,53 | 2,40 | 2,65 |
| 1935-1931 | 2,54 | 3,43 | 2,66 | 2,54 | 2,21 | 2,71 | 1,83 | 2,69 |
| 1930-1926 | 2,41 | 2,84 | 2,58 | 2,43 | 1,73 | 1,98 | 2,15 | 1,79 |
| 1925-1921 | 2,19 | 2,68 | 2,25 | 2,23 | 1,13 | 1,51 | 1,81 | 2,23 |
| 1920-1916 | 2,12 | 3,04 | 2,06 | 2,18 | 0,79 | 1,53 | 1,29 | 2,44 |

ITURRIA: EUSTAT. Inkesta Demografikoa, 2002.

Laburbilduz, datu demografikoei erreparatuz esan daiteke gaur egun emakumeek amatasunari aurre egiteko erakutsitako jarrera eta aurreko belaunaldietakoek erakutsitakoa desberdinak direla. Ikuspegi demografikotik, gaur egungo jaiotza-tasa baxua ulertzeko kontuan hartu behar da gero eta seme-alaba gutxiago izaten direla eta, gainera, ama izateko adina atzeratzen ari dela. Hala ere, egungo egoera ikuspegi soziologikotik aztertuz gero, alderdi ugarik eragina dutela ikus daiteke: aurreko belaunaldiekin alderatuta, gehiago dira emantzipatzen diren emakumeak gaur egun eta, horrekin batera, prestakuntza handiagoa eta lan-aukera gehiago dituzte eta ongizate materiala ziurtatzeko aukera gehiago dituzte eta, ondorioz, amatasuna 30 urtera arte atzeratzeko erabakia hartu dute gehienek.

*Ikasketa-maila altueneko emakumeak dira ondorengo gutxien edukitzen dituztenak.*

# EZKONTZA-TASA 3.3

EUSTATek landutako Ezkontzen Estatistikaren arabera, 2002an 10.865 ezkontza izan ziren EAEn, hau da, 2001ean baino 273 gehiago. Gauzak horrela, mila biztanleko 4,8ko ezkontza-tasa lortu zen, Europar Batasunean (‰5,1) eta estatu espainolean (‰5,2) baino gutxiago. Ezkontza guztien artetik gehienak ezkontza katolikoak izan ziren (7.066), hau da, ezkontza guztien %65. 3.786 izan ziren ezkontza zibilak eta 13 bakarrik bestelako sinesmen erlijiosoren bitartez izandakoak. Zentzu horretan, azken urteetan ezkontza zibilak ugaritzen ari direla azpimarratu beharko litzateke.

Ezkontzen diren pertsonen adinari erreparatuz, 30-50 urterekin ezkondu ziren gizonak guztizkoaren %64,1 izan ziren, eta emakumeen artean, adin-tarte bereko emakumeen %44,8 ezkondu ziren. Desberdintasun hori ulertzeko kontuan hartu behar da emakumeak gizonak baino lehenago ezkontzen direla. Hain zuzen, ezkondu ziren gizon ezkongabeen batez besteko adina 31,6 urte zen eta emakumeena, berriz, 29,6 urte.

Era berean, kontuan hartu behar da, ama izateko adina atzeratzen ari den neurrian, areagotu egin dela ezkontzen diren pertsonen adina,, eta horrek eragin nabarmena izan du jaiotza-tasan. 1987an ezkondu ziren emakume gehienek (%86,8) hogeita hamar urte baino gutxiago zituzten eta %12,8k 30-59 urte artean. 2002an, alabaina, proportzio horiek orekatu egin ziren: ezkondu ziren pertsonen %54,8k 30 urte baino gutxiago zituzten eta %44,8, berriz, 30-59 urte-tartean sartzen ziren.

## 3.9. TAULA Ezkontideak, adinaren arabera. 1987-1992-1997-2002

| | | <=29 | 30-34 | 35-39 | 40-44 | 45-49 | 50-54 | 55-59 | 30-59 | >=60 | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| SENARRAK | | | | | | | | | | | |
| 1987 | Abs. | 6.924 | 1.704 | 419 | 187 | 70 | 58 | 52 | 2.490 | 62 | 9.476 |
| | % | 73,1 | 18,0 | 4,4 | 2,0 | 0,7 | 0,6 | 0,5 | 26,2 | 0,7 | 100,0 |
| 1992 | Abs. | 6.080 | 3.051 | 745 | 254 | 123 | 59 | 48 | 4.280 | 80 | 10.440 |
| | % | 58,2 | 29,2 | 7,1 | 2,4 | 1,2 | 0,6 | 0,5 | 41,0 | 0,8 | 100,0 |
| 1997 | Abs. | 4.274 | 3.656 | 1.080 | 318 | 141 | 82 | 46 | 5.323 | 68 | 9.665 |
| | % | 44,2 | 37,8 | 11,2 | 3,3 | 1,5 | 0,8 | 0,5 | 55,1 | 0,7 | 100,0 |
| 2002* | Abs. | 3.322 | 3.741 | 1.379 | 512 | 253 | 135 | 71 | 6.091 | 73 | 9.486 |
| | % | 35,0 | 39,4 | 14,5 | 5,4 | 2,7 | 1,4 | 0,7 | 64,1 | 0,8 | 100,0 |
| EMAZTEAK | | | | | | | | | | | |
| 1987 | Abs. | 8.394 | 823 | 209 | 96 | 43 | 37 | 29 | 1.237 | 35 | 9.666 |
| | % | 86,8 | 8,5 | 2,2 | 1,0 | 0,4 | 0,4 | 0,3 | 12,8 | 0,4 | 100,0 |
| 1992 | Abs. | 8.247 | 1.681 | 389 | 125 | 82 | 28 | 19 | 2.324 | 32 | 10.603 |
| | % | 77,8 | 15,9 | 3,7 | 1,2 | 0,8 | 0,3 | 0,2 | 22,1 | 0,3 | 100,0 |
| 1997 | Abs. | 6.344 | 2.523 | 593 | 189 | 79 | 47 | 14 | 3.445 | 27 | 9.816 |
| | % | 64,7 | 25,7 | 6,0 | 1,9 | 0,8 | 0,5 | 0,1 | 35,0 | 0,3 | 100,0 |
| 2002* | Abs. | 5.340 | 2.936 | 846 | 318 | 143 | 68 | 39 | 4.350 | 36 | 9.726 |
| | % | 54,8 | 30,2 | 8,7 | 3,3 | 1,5 | 0,7 | 0,4 | 44,8 | 0,4 | 100,0 |

ITURRIA: EUSTAT. Ezkontzen estatistika. Behin-behineko datuak.

Banantzeei dagokienez, INE erakundearen Estatistika Judizialen arabera, 2002an 2.491 bikote banandu ziren EAEn eta 1.471 dibortziatu egin ziren. Aurreko urteko datuekin alderatuta, 2002an 343 banantze gehiago izan ziren, hau da, %16ko hazkundea; gainera, 116 gehiago izan ziren dibortzioak, hots, %9ko hazkundea ezagutu zen. Logikoa denez, banantze eta dibortzio gehienak pertsona helduen artean gertatzen dira. Zentzu horretan, bereziki azpimarragarria da 40-49 urte arteko adin-tartea. Banantzeei erreparatuz, pertsona helduen artean aurkituko ditugu banandutako gizonen %34,2 eta emakumeen %28,9; dibortzioari erreparatuz, bestalde, antzekoak dira erregistratutako proportzioak.

## 3.10. TAULA Banantzea, banantze-motaren eta adinaren arabera. 2002

| | BANANTZEAK | | | | DIBORTZIOAK | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | GIZONAK | | EMAKUMEAK | | GIZONAK | | EMAKUMEAK | |
| | ABS. | % | ABS. | % | ABS. | % | ABS. | % |
| 30 urtetik behera | 176 | 7,1 | 380 | 15,3 | 50 | 3,5 | 125 | 8,8 |
| 30-59 urte bitartean | 2.149 | 86,3 | 1.974 | 79,2 | 1.245 | 87,9 | 1.199 | 84,6 |
| 30-34 urte bitartean | 439 | 17,6 | 495 | 19,9 | 210 | 14,8 | 268 | 18,9 |
| 35-39 urte bitartean | 518 | 20,8 | 539 | 21,6 | 303 | 21,4 | 338 | 23,9 |
| 40-49 urte bitartean | 853 | 34,2 | 720 | 28,9 | 488 | 34,4 | 405 | 28,6 |
| 50-59 urte bitartean | 339 | 13,6 | 220 | 8,8 | 244 | 17,2 | 188 | 13,3 |
| 60 urte eta gehiago | 94 | 3,8 | 53 | 2,1 | 75 | 5,3 | 39 | 2,8 |
| Ez da zehaztu | 72 | 2,9 | 84 | 3,4 | 47 | 3,3 | 54 | 3,8 |
| **GUZTIRA** | **2.491** | **100,0** | **2.491** | **100,0** | **1.417** | **100,0** | **1.417** | **100,0** |

ITURRIA: INE. Estatistika judizialak 2002.

*2002an ezkondu ziren emakumeen %44,8k 30-59 urte bitartean zituzten.*

# 4

# FAMILIA BIZITZA ETA LAN BIZITZA BATERAGARRI EGITEA

39/1999 Legean, azaroaren 5ekoa eta langileen familia-bizitza eta lan-bizitza bateragarri egiteko neurriak sustatzen duena, aipatutako bi esparruen arteko erlazio bidezkoa eta paritarioa garatzeko araudi juridikoa ezarri zen. Lan-esparruarekin lotutako bi alderdi horiek, ugalketa-familia eta ekoizpena-publikoa, funtsezkoak dira edozein gizarteren giza garapena eta garapen demokratikoa lortzeko.

Orain arte, ugalketarako lana, hots, etxeko esparruarekin lotutako alderdia, emakumeen ardura izan da, eta ekoizpen-lanak, hau da, etxetik kanpora ondasunak eta zerbitzuak ekoizteko soldatako zereginak, gizonen ardura izan dira batez ere. Ondorioz, bi rol bereizi dira, modu desorekatuan; eta bi rol horiek izan dira bizitza sozialean nagusi eta bi rol horiek baldintzatu dituzte, denbora luzean, gizonen eta emakumeen portaera desberdinak. Horrela, bereizketa horren arabera, "lanaren" kontzeptua soldatako jarduerarekin bakarrik erlazionatuta dago. Baina hirurogeita hamarreko hamarkadaren amaieran, emakumeen askapenarekin batera, kontzeptu hori aldatzen hasi zen eta ugalketarako lanaren garrantzia aldarrikatzen hasi ziren.

Etxeko lana edo ugalketarekin erlazionatutakoa, familia-nukleoaren eguneroko indartzearen eta familia osatzen duten kideen behar fisiko eta psikologikoen asetzearekin lotu izan da betidanik. Ikuspegi analitiko batetik, eta ekoizpen-lanarekin ez bezala (aldiroko neurketak eta azterketak izaten dituena), etxeko esparruan egiten den lanari buruzko azterketak, sarritan, alderdi bakar batera mugatu dira eta gehienetan sexuen arteko berdintasuna sustatu nahi duten erakunde publikoek bultzatu dituzte aipatutako azterketak. Zentzu horretan, salbuespen bakar bat ezagutzen da, hain zuzen: denboraren erabilerari buruzko azterlanak. Azterlan horietan argi eta garbi geratzen da etxeko lanen garrantzi handia.

## SEME-ALABEN ZAINKETA

# 4.1

Biologikoki emakumeak dira seme-alabak sabelean hazi ditzaketen bakarrak eta, ondorioz, haurrak zaintzeko orduan emakumeei egotzi zaie, bai sozialki bai kulturalki, seme-alabak zaintzeko ardura. Nahiz eta, gaur egun, seme-alabak zaintzeko erantzukizuna aiten eta amen artean gero eta gehiago banatzen ari dela iruditu, ildo horretan egin diren azterketek ez dute banaketa orekatua islatzen.

Eustat erakundeak egiten duen Denboraren Aurrekontuak azterketa dugu emakumeek eta gizonek beren eguneroko denbora banatzeko duten modua eta, ondorioz, lanean (ekoizpen-esparruan zein etxean) igarotzen duten denbora banatzeko modua ezagutzeko hurbilketa egokienetako bat. 2003an egindako azterketaren arabera berriro baieztatu ahal izan denez, emakumeek, eskuarki, gizonek baino denbora gehiago eskaintzen diete etxeko lanei eta denbora gehiago erabiltzen dute familiako kideak (adinekoak zein adin-txikikoak) zaintzeko.

Zehazkiago, adin-txikikoen zainketari erreparatuz, emakumeek orokorrean, baina emakume helduek batez ere, askoz ere denbora gehiago erabiltzen dute adin-txikikoak zaintzeko gizonek baino. Talde bakoitzak igarotzen duen denbora neurtzeko bi adierazle analitiko erabili dira: batez besteko denbora soziala eta parte-hartzaile bakoitzaren batez besteko denbora. Batez besteko denbora soziala esatean, 16 urtetik gorako biztanleek, oro har, jarduera jakin bati eskaintzen dioten batez besteko denbora ulertu behar da; parte-hartzaile bakoitzaren batez besteko denborak, berriz, jarduera hori egunero egiten duten pertsonek jarduera horretan igarotzen duten batez besteko denbora adierazten du.

35-59 urte bitarteko pertsonen taldeari dagokionez —hain zuzen familia-kargak edukitzeko aukera gehien duen taldea—, parte-hartzaile bakoitzaren batez besteko denborari erreparatuz, bereziki azpimarragarria da emakumeek gizonek baino ordu erdi gehiago igarotzen dutela, egunero, haurrak zaintzen.

**4.1. TAULA Biztanleriak guztira eta biztanle parte-hartzaileek haurrak zaintzen igarotzen duten batez besteko ordu-kopurua, adinaren arabera. 2002-03**

| | GUZTIRA | | | 35-59 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK |
| BATEZ BESTEKO DENBORA SOZIALA | | | | | | |
| **Guztira** | **0:12** | **0:06** | **0:17** | **0:17** | **0:11** | **0:23** |
| Astelehenetik ostegunera | 0:12 | 0:06 | 0:18 | 0:17 | 0:12 | 0:23 |
| Ostirala | 0:14 | 0:08 | 0:20 | 0:21 | 0:12 | 0:28 |
| Larunbata | 0:09 | 0:05 | 0:13 | 0:13 | 0:08 | 0:17 |
| Igandea | 0:10 | 0:06 | 0:14 | 0:15 | 0:09 | 0:21 |
| PARTE HARTZAILE BAKOITZAREN BATEZ BESTEKO DENBORA | | | | | | |
| **Guztira** | **1:22** | **1:01** | **1:33** | **1:18** | **1:01** | **1:31** |
| Astelehenetik ostegunera | 1:22 | 1:01 | 1:33 | 1:19 | 1:04 | 1:30 |
| Ostirala | 1:22 | 0:57 | 1:37 | 1:18 | 0:56 | 1:34 |
| Larunbata | 1:24 | 1:09 | 1:32 | 1:19 | 1:08 | 1:25 |
| Igandea | 1:19 | 0:56 | 1:34 | 1:17 | 0:52 | 1:37 |

ITURRIA: EUSTAT. Denboraren Aurrekontuei buruzko inkesta, 2003.

Asteburuei bakarrik erreparatuz, erabilitako denborari dagokionez hainbat desberdintasun aurkituko ditugu. Horrela, larunbatetan emakumeek gizonek baino 17 minutu gehiago erabiltzen dituzten bitartean, igandetan 45 minutura areagotzen da bien arteko aldea. Gizon helduen kasuan, igandea da seme-alabak zaintzeko denbora gutxien erabiltzen duten eguna eta emakumeen kasuan aurkakoa gertatzen da.

*— Emakume helduek gizonek baino ordu erdi gehiago erabiltzen dute, egunero, familiako adin-txikikoak zaintzeko.*

*— Igandetan areagotu egiten da alde hori: 45 minutu gehiago.*

Neska-mutilen zainketaz ari garela, kontuan hartu behar da sarritan lan fisikoa baino zerbait gehiago izaten dela (jaten eman, bainatu, janzten lagundu...). Gaur egun, garrantzi handia ematen zaio lan emozionalari. Zentzu horretan, lan emozionalaren baitan jolasekin eta heziketarekin erlazionatutako alderdiak barne hartzen dira. Denboraren Aurrekontuei buruzko Inkestaren arabera, emakume eta gizon helduek (35-59 urte) antzeko denbora eskaintzen diete, batez beste, mota horretako zereginei: ordu bat eta 9 minutu gizonen kasuan eta ordu bat eta 7 minutu emakumeen kasuan. Astelehenetik ostegunera eta larunbatetan, gizonak ageri dira lehenengo, 4 minutu eta 19 minuturekin. Hala ere, kontuan hartu behar da ostiraletan emakumeek gizonek baino ia ordu erdi gehiago (29 minutu) erabiltzen dutela haurrekin jolasteko eta haurrak hezteko.

**4.2. TAULA Biztanleriak guztira eta biztanle parte-hartzaileek jolasteko eta hezteko erabiltzen duen batez besteko ordu-kopurua, adinaren arabera. 2003**

| | GUZTIRA | | | 35-59 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK |
| BATEZ BESTEKO DENBORA SOZIALA | | | | | | |
| **Guztira** | **0:05** | **0:05** | **0:06** | **0:08** | **0:08** | **0:08** |
| Astelehenetik ostegunera | 0:05 | 0:04 | 0:06 | 0:08 | 0:08 | 0:08 |
| Ostirala | 0:06 | 0:03 | 0:08 | 0:08 | 0:05 | 0:11 |
| Larunbata | 0:05 | 0:05 | 0:05 | 0:08 | 0:10 | 0:06 |
| Igandea | 0:06 | 0:06 | 0:06 | 0:10 | 0:10 | 0:09 |
| PARTE HARTZAILE BAKOITZAREN BATEZ BESTEKO DENBORA | | | | | | |
| **Guztira** | **1:07** | **1:05** | **1:09** | **1:08** | **1:09** | **1:07** |
| Astelehenetik ostegunera | 1:00 | 0:59 | 1:00 | 1:00 | 1:02 | 0:58 |
| Ostirala | 1:17 | 0:51 | 1:34 | 1:14 | 0:57 | 1:26 |
| Larunbata | 1:16 | 1:17 | 1:15 | 1:17 | 1:25 | 1:06 |
| Igandea | 1:26 | 1:26 | 1:26 | 1:34 | 1:31 | 1:38 |

ITURRIA: EUSTAT. Denboraren Aurrekontuei buruzko inkesta, 2003.

*Gizon eta emakume helduek ia denbora berdina erabiltzen dute haurrekin jolasteko eta haurrak hezteko.*

Familia-bizitza eta lan-bizitza bateragarri egiteko ezinbestekoa da bikotearen baitan zereginak eta erantzukizunak banatzea. Zentzu horretan, estatistikan islatutako datuen arabera gauzak aldatzen hasi direla esan badaiteke ere (oso geldo), gehienetan, emakumeen erantzukizuna izaten da seme-alabak zaintzea.

**4.3. TAULA "Zein maiztasunekin garatzen dituzu zure seme/alabekin jarraian adierazitako jarduerak? (nahiz eta bakar batekin egin)"**

| | GIZONAK | EMAKUMEAK |
|---|---|---|
| 1. Beraiekin jolastu | | |
| - Egunero edo ia egunero | 33 | 52 |
| - Astean behin edo bitan | 9 | 7 |
| - Jaiegunetan bakarrik | 2 | 2 |
| - Noizean behinka | 22 | 15 |
| - Inoiz ez edo ia inoiz ez | 32 | 22 |
| 2. Parkera joan | | |
| - Egunero edo ia egunero | 23 | 49 |
| - Astean behin edo bitan | 10 | 5 |
| - Jaiegunetan bakarrik | 7 | 1 |
| - Noizean behinka | 11 | 4 |
| - Inoiz ez edo ia inoiz ez | 48 | 38 |
| 3. Ikasten edo eskolako lanak egiten lagundu | | |
| - Egunero edo ia egunero | 27 | 42 |
| - Astean behin edo bitan | 6 | 7 |
| - Jaiegunetan bakarrik | 1 | 0 |
| - Noizean behinka | 15 | 15 |
| - Inoiz ez edo ia inoiz ez | 48 | 33 |
| 4. Ipuin bat irakurri edo kontatu | | |
| - Egunero edo ia egunero | 23 | 42 |
| - Astean behin edo bitan | 7 | 5 |

**4.3. TAULA "Zein maiztasunekin garatzen dituzu zure seme/alabekin jarraian adierazitako jarduerak? (nahiz eta bakar batekin egin)" (jarraipena)**

| | GIZONAK | EMAKUMEAK |
|---|---|---|
| - Jaiegunetan bakarrik | 2 | 1 |
| - Noizean behinka | 15 | 10 |
| - Inoiz ez edo ia inoiz ez | 52 | 39 |
| 5. Ikastolara edo haurtzaindegira eraman | | |
| - Egunero edo ia egunero | 21 | 42 |
| - Astean behin edo bitan | 5 | 2 |
| - Jaiegunetan bakarrik | 1 | 0 |
| - Noizean behinka | 11 | 4 |
| - Inoiz ez edo ia inoiz ez | 61 | 49 |

ITURRIA: "Familia EAEn" Eusko Jaurlaritzak landutako txostena. 2002.

Eusko Jaurlaritzak 2002an EAEko familiei buruz egindako azterketa kuantitatiboaren arabera, emakumeek gizonek baino sarriagotan egiten dituzte seme-alaben zainketarekin erlazionatutako jarduera jakin batzuk. Horrela, emakumeen ia erdiak adierazi dutenez, beren seme-alabekin jolasten dira, parkera joaten dira, ikasketetan laguntzen diete, ipuinak irakurtzen edo kontatzen dizkiete, eta haurtzaindegira edo ikastolara eramaten dituzte egunero edo ia egunero edo astean behin edo bitan; gizonei galdetzean, %30ek bakarrik adierazi dute hori egiten dutela.

Ildo beretik, seme/alabekin nork igarotzen duen denbora gehien galdetu zaie eta emandako erantzuna aldatu egiten da sexuaren arabera. Horrela, emakumeen %56k adierazi dutenez, beraiek eskaintzen diete denbora gehien beren seme/alabei, eta %4k bakarrik erantzun dute bikotekideak igarotzen duela denbora gehiago. Gizonen portzentaje altu baten ustetan, alabaina, biek erabiltzen dute denbora librea mota horretako zereginetan (%45), baina ia gehienek adierazi dutenez, beren bikotekidea da zeregin horien arduradun nagusia (%39).

## 4.1. GRAFIKOA Nork igarotzen du denbora libre gehiago seme/alabekin? (%)




ITURRIA: "Familia EAEn" Eusko Jaurlaritzak landutako txostena. 2002

*Gizonek eta emakumeek pertzepzio desberdina adierazi dute beren seme-alabekin nork igarotzen duen denbora gehien galdetzean:*

*— Emakumeen %56k adierazi dute beraiek eskaintzen dietela denbora gehien eta %27k adierazi dute bikotekidearekin banatuta dutela egin beharreko lana.*

*— Gizonei dagokienez, %10ek bakarrik adierazi dute beraiek igarotzen dutela denbora gehien, nahiz eta gehienek uste duten (%45) biek modu berean garatzen dutela.*

Emakumeen lan-bizitzan seme-alabek duten eragina eztabaidaezina da, eta horrelaxe islatu da Eusko Jaurlaritzak landutako lanean. Azterketa horretan emakumeek seme/alabak eduki aurretik eta ondoren nolako lan-jarduna eduki beharko zuketen galdetzen zitzaien, besteak beste, parte-hartzaileei (2).

(2) Galdeketaren joera adierazi beharra dago, ez zen egin-eta galdera bera gizonei buruz.

**4.4. TAULA "Zure ustez, taulan zehaztutako egoeretan, egokiagoa al da emakumeek lan-jardun osoarekin etxetik kanpo lan egitea, ala emakumeek etxetik kanpora lanik ez egitea hobe dela uste al duzu?"**

| | GIZONAK | EMAKUMEAK |
|---|---|---|
| 1. Ezkondu ondoren eta seme-alabak eduki aurretik | | |
| - Lan-jardun osoa | 80 | 80 |
| - Lan-jardun erdia | 8 | 14 |
| - Lanik ez egitea | 9 | 4 |
| - ED/EE | 2 | 2 |
| 2. Eskolara joateko adinik ez duen seme/alaba bat badago | | |
| - Lan-jardun osoa | 34 | 25 |
| - Lan-jardun erdia | 33 | 45 |
| - Lanik ez egitea | 30 | 26 |
| - ED/EE | 3 | 4 |
| 3. Seme/alaba txikiena eskolan hasi ondoren | | |
| - Lan-jardun osoa | 55 | 51 |
| - Lan-jardun erdia | 27 | 37 |
| - Lanik ez egitea | 14 | 9 |
| - ED/EE | 4 | 3 |
| 4. Seme/alabak etxetik joan ondoren | | |
| - Lan-jardun osoa | 76 | 78 |
| - Lan-jardun erdia | 7 | 12 |
| - Lanik ez egitea | 13 | 8 |
| - ED/EE | 4 | 3 |



ITURRIA: "Familia EAEn" Eusko Jaurlaritzak landutako txostena. 2002.

Taula horretako datuek argi uzten dute emakumeen bizitzaren baitan lan-egoeraren iritzi publikoa. Gauzak horrela, inkestan parte hartu duten pertsonen %80k uste dute (proportzio berdina gizonen eta emakumeen kasuan) hobe dela emakumeek lan-jardun osoa edukitzea seme/alabak eduki aurretik edo seme/alabak etxetik joan ondoren. Hala ere, haurrak txikiak diren bitartean eta eskolara hasten ez diren bitartean,

pertsona gehienek uste dute (gizonen heren batek eta lau emakumearen artetik batek) amek ez luketela lan-jardun osoa eduki beharko. Lan-jardun erdiari eta lanik ez egiteko aukerari buruz galdetzean, bereziki azpimarragarria da baietz erantzun dutela emakumeen %71k eta gizonen %63k. Horrez gain, seme/alabak eskola-adinean badaude, galdetutakoen ia erdiak (gizonen eta emakumeen arteko bereizketarik gabe) egokiagotzat jo du lan-jardun osoa. Amaitzeko, eta seme/alabak etxetik joaten direnean zer egin galdetzean, lan-jardun osoaren alde agertu dira gizonak eta emakumeak.

Ildo beretik, Eusko Jaurlaritzak landutako inkestan gaur egungo amatasun-baja laburrei buruz galdetu zitzaien parte-hartzaileei eta lortutako erantzunek modu argian islatzen dute gaur egungo egoera. Horrela, 10 emakumeren artetik seik eta gizonen erdiak baino zertxobait gehiagok uste dute gaur egungo amatasun-bajak oso laburrak direla. Hamar pertsonen artetik hiruk uste dute, aitzitik, egokiak direla.

**4.2. GRAFIKOA "Zure ustez, gaur egungo amatasun-bajak oso luzeak, egokiak edo oso laburrak dira?" (%)**




ITURRIA: "Familia EAEn" Eusko Jaurlaritzak landutako txostena. 2002.

*Seme/alabak dituzten emakumeen %60k eta gizonen %54k uste dute amatasun-bajak oso laburrak direla.*

Euskal herritarren ustez erakundeek lan handia egin beharko lukete aita eta amei beren lana eta seme/alabak zaintzeko zeregina bateragarri egiteko eta bikoteek nahi bezain beste seme-alabak eduki ahal izateko.

**4.5. TAULA "Zein neurritan: asko, nahikoa, gutxi edo bat ere ez, uste duzu Herri Administrazioak bere gain hartu beharreko erantzukizunak direla jarraian adierazitakoak?"**

| | | GIZONAK | EMAKUMEAK |
|---|---|---|---|
| Aita eta amei beren lana eta seme/alabak zaintzeko zeregina bateragarri egiteko aukerak ematea | *Asko* | 46 | 50 |
| | *Nahiko* | 39 | 35 |
| | *Gutxi* | 7 | 7 |
| | *Bat ere ez* | 4 | 3 |
| | *ED/EE* | 4 | 5 |
| Bikoteek nahi bezain beste seme-alaba eduki ahal izatea | *Asko* | 35 | 34 |
| | *Nahiko* | 33 | 33 |
| | *Gutxi* | 15 | 17 |
| | *Bat ere ez* | 13 | 11 |
| | *ED/EE* | 5 | 5 |

ITURRIA: "Familia EAEn" Eusko Jaurlaritzak landutako txostena. 2002.

Eusko Jaurlaritzak 2000. urtean jaiotza-politikaren inguruan egindako azterlan baten arabera, inkestan parte hartutako pertsona gehienak Eusko Jaurlaritzak hartutako neurrien alde agertu ziren, batez ere seme/alaba bakoitzagatiko kostuak esparru jakin batzuetan murrizteari dagokionez (eskola, garraioa, tasa akademikoak), errenta baxua duten familiei seme/alabengatik zuzeneko diru-laguntzak emateari dagokionez edo seme/alabengatiko zerga-murrizketak areagotzeari dagokionez.

## 4.6. TAULA Jaiotza-tasa areagotzeko bi neurri egokienei buruzko iritzia. 2000 (%)

| | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK |
|---|---|---|---|
| Seme/alabarengatiko familia-gastua gutxitzea: eskola-materiala, garraioa, tasa akademikoak, kirola, aisialdia, osasun-arreta, eta abar | 67 | 68 | 65 |
| Errenta baxuko familiei seme/alabengatiko diru-laguntza zuzenak ematea | 60 | 58 | 62 |
| Seme/alabengatiko zerga-murrizketak areagotzea | 30 | 33 | 28 |
| Haurtzaindegiak, jangelak, eta abar bezalako zerbitzuak ugaritzea | 28 | 23 | 32 |
| Beste hainbat | 4 | 5 | 3 |
| ED/EE | 7 | 8 | 7 |

ITURRIA: "Familia EAEn" Eusko Jaurlaritzak landutako txostena. 2002.

Lan-esparruan hartu beharreko neurriei dagokienez, honakoak, gizonek eta emakumeek neurri berean gehien aipatu dituztenak: lan-ordutegi malguak, amatasun- zein aitatasun-baimen ordainduak luzatzea eta seme/alabak zaintzeko eszedentzia hartzeko aukera.

## 4.7. TAULA Euskal herritarren ustez, jaiotza-tasa sustatzeko lan-esparruan hartu beharreko neurri garrantzitsuenak. 2000 (%)

| | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK |
|---|---|---|---|
| Lan-ordutegi malguak | 52 | 51 | 53 |
| Amatasun- eta aitatasun-baimen ordainduak luzatzea | 36 | 36 | 36 |
| Seme/alabak zaintzeko eszedentzia hartzeko aukera | 35 | 34 | 36 |
| Lan-jarduna boluntarioki murriztea | 30 | 31 | 30 |
| Lan-jardun partziala | 27 | 23 | 31 |
| Beste hainbat | 4 | 5 | 2 |
| ED/EE | 11 | 12 | 10 |

ITURRIA: "Familia EAEn" Eusko Jaurlaritzak landutako txostena. 2002.

Zentzu horretan, Eusko Jaurlaritzak Lan Bizitza eta Familia Bizitza Bateragarri egiteko neurrien programa sustatu zuen. Programa horren bitartez ondorengoak zituzten langileei diruz laguntzeko neurriak sustatzen ziren. Modu horretan, diru-laguntzak ematen ziren eszedentziagatik edo lan-jarduna murrizteagatik. Aipatutako neurrien pertsona onuradunak aztertuz, bereziki azpimarragarria da 2002an emakumeek bakarrik eskatu zituztela diru-laguntzak. Eta pertsona onuradunen %5 besterik ez ziren gizonak izan. Horrenbestez, argi geratu da familia zaintzeko diru-laguntzak emateko neurriak ez direla nahikoa gizonek esparru horren gaineko interesa agertzeko.

**4.8. TAULA Eusko Jaurlaritzak martxan jarritako Lan Bizitza eta Familia bizitza Bateragarri egiteko neurrien bitartez diruz lagundutako langileak. 2002**

| | GIZONAK | | EMAKUMEAK | | GUZTIRA | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Kop. | Kantitatea | Kop. | Kantitatea | Kop. | Kantitatea |
| Guztira eszedentziak | 20 | 52.880,45 | 551 | 1.172.373,17 | 571 | 1.225.253,62 |
| %33-40 murrizk. | 73 | 171.893,80 | 1.055 | 2,339.369,07 | 1.128 | 171.893,80 |
| %40-45 murrizk. | 2 | 3.900,00 | 62 | 144.978,88 | 64 | 148.878,88 |
| > 45% murrizk. | 43 | 161.339,20 | 787 | 2.340.974,53 | 830 | 2.502.313,73 |
| Guztira murrizketak | 118 | 337.133,00 | 1.904 | 4.825.322,48 | 2.022 | 5.162.455,48 |
| Guztira langilek | 138 | 390.013,45 | 2.455 | 5.997.695,65 | 2.593 | 6.387.709,10 |

ITURRIA: Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Saila. Eusko Jaurlaritza.

*2002. urtean, Eusko Jaurlaritzak martxan jarritako Lan Bizitza eta Familia Bizitza Bateragarri egiteko neurrien bitartez diruz lagundutako pertsona langileen espedienteen artetik %95 emakumeentzat izan ziren.*

# MENDEKO PERTSONEN ZAINKETA: ADINEKO PERTSONAK ETA EZINTASUNAK DITUZTENAK

# 4.2

Adin-txikikoak zaintzeaz gain, etxeko lanen esparruan sailkatu da, betidanik, adineko pertsonak edo ezintasunak eduki eta mendekoak diren pertsonak zaintzeko lana. Adineko pertsonen zainketei dagokienez, batik bat, eta gure gizarteak bizi duen zahartze-prozesuaren eraginez, gero eta gehiago dira horrelako egoera bat bizi duten familiak.

Gehienetan, emakume helduen erantzukizuna da familiako kideen artean mendekoak diren pertsonak zaintzeko ardura, eta hor sartzen dira adineko pertsonak.

Familiaren baitako mendeko adineko pertsonen zainketei erreparatuz, haur txikien zainketekin gertatzen den bezalaxe, kontuan hartu behar da emakumeek gizonek baino denbora gehiago ematen dutela horrelakoak egiten. Mota horretako lanak egiten dituzten 35-59 urte bitarteko pertsonen kasuan, ordu eta erdi egiten dute egunero, batez beste, horrelako zereginetan. Hala ere, emakumeek gizonek eskaintzen duten denboraren hirukoitza baino gehiago eskaintzen diote adineko pertsonen zainketei: ordu bete eta 40 minutu hain zuzen, eta 31 minutu gizonek. Ordu bete eta bederatzi minutuko alde hori areagotu egiten da igandetan; alegia, emakumeek gizonek baino ordu bete eta 33 minutu gehiago eskaintzen dituzte familiaren baitako pertsona adineko eta mendekoak zaintzen.

**4.9. TAULA Biztanleriak guztira eta biztanle parte-hartzaileek adineko pertsonak zaintzen igarotzen duten batez besteko ordu-kopurua. 2003**

| | GUZTIRA | | | 35-59 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK |
| BATEZ BESTEKO DENBORA SOZIALA | | | | | | |
| **Guztira** | **0:04** | **0:01** | **0:06** | **0:03** | **0:00** | **0:07** |
| Astelehenetik ostegunera | 0:04 | 0:02 | 0:06 | 0:03 | 0:00 | 0:06 |
| Ostirala | 0:03 | 0:01 | 0:05 | 0:02 | 0:00 | 0:04 |
| Larunbata | 0:03 | 0:01 | 0:06 | 0:04 | 0:01 | 0:07 |
| Igandea | 0:04 | 0:01 | 0:06 | 0:06 | 0:01 | 0:12 |
| PARTE HARTZAILE BAKOITZAREN BATEZ BESTEKO DENBORA | | | | | | |
| **Guztira** | **1:43** | **1:21** | **1:48** | **1:30** | **0:31** | **1:40** |
| Astelehenetik ostegunera | 1:44 | 1:42 | 1:45 | 1:16 | 0:10 | 1:26 |
| Ostirala | 2:10 | 1:25 | 2:19 | 1:59 | 1:14 | 2:03 |
| Larunbata | 1:26 | 0:51 | 1:35 | 1:29 | 0:50 | 1:37 |
| Igandea | 1:35 | 0:47 | 1:58 | 2:04 | 0:50 | 2:23 |

ITURRIA: EUSTAT. Denboraren Aurrekontuei buruzko inkesta, 2003.

*35-59 urte bitarteko emakumeek adin bereko gizonek baino hiru aldiz denbora gehiago erabiltzen dute familiaren baitako mendeko pertsonak zaintzeko.*

Ezintasunak eduki eta arreta pertsonaleko laguntzak dituzten pertsonen kasuan (gehienetan senideak dira laguntza eskaintzen dutenak), oso interesgarria da pertsona zaintzailearenganako erlazioa aztertzea. Estatistika Institutu Nazionalak 1999an landutako Ezintasun, Urritasun eta Minusbaliotasunei buruzko Inkestaren arabera, ezintasunak dituzten 6-64 urte bitarteko pertsonei dagokienez, ama izaten da zaintzaile nagusia gizonen %44,7tan eta emakumeen %27,8tan. Bigarrenik, eta bi sexuetan pareko emaitzak lortuz, ezkontidea da zaintzailea gizonen eta emakumeen

%18,2tan. Bestalde, ezintasunak dituzten emakumeen 14,5en kasuan alabak dira horien zainketaz arduratzen diren pertsonak.

### 4.10. TAULA Ezintasunak dituzten 6-64 urte bitarteko pertsonak, laguntza pertsonala jasotzen dutenak, pertsona zaintzailearekiko erlazioaren arabera. 1999

| | GUZTIRA | | GIZONAK | | EMAKUMEAK | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | % | ABS. | % | ABS. | % |
| Ezkontidea | 3.430 | 18,2 | 1.186 | 18,2 | 2.244 | 18,2 |
| Alaba | 1.795 | 9,5 | 0 | 0,0 | 1.795 | 14,5 |
| Semea | 829 | 4,4 | 88 | 1,4 | 741 | 6,0 |
| Ahizpa/arreba | 385 | 2,0 | 385 | 5,9 | 0 | 0,0 |
| Anaia | 141 | 0,7 | 141 | 2,2 | 0 | 0,0 |
| Ama | 6.335 | 33,6 | 2.907 | 44,7 | 3.428 | 27,8 |
| Aita | 475 | 2,5 | 284 | 4,4 | 192 | 1,6 |
| Beste senide bat | 710 | 3,8 | 181 | 2,8 | 530 | 4,3 |
| Enplegatua, laguna edo bizilaguna | 420 | 2,2 | 0 | 0,0 | 420 | 3,4 |
| Gizarte-zerbitzuak | 1.122 | 6,0 | 299 | 4,6 | 823 | 6,7 |
| Beste erlazio bat | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 |
| Ez da adierazi | 3.203 | 17,0 | 1.036 | 15,9 | 2.167 | 17,6 |
| **GUZTIRA** | **18.847** | **100,0** | **6.507** | **100,0** | **12.340** | **100,0** |

ITURRIA: INE. Ezintasun, Urritasun eta Osasun Egoerari buruzko inkesta, 1999.

*Ezintasunak dituzten 6-64 urte bitarteko pertsonen artean (laguntza dutenak) ama da zaintzaile nagusia gizonen %44,7ren kasuan eta emakumeen %27,8ren kasuan.*

## ETXEKO LANAK 4.3

Nahiz eta, gaur egun, inork ez duen zalantzan jartzen lan-bizitza eta familia-bizitza bateragarri egitearen egokitasuna, jasotako datuen arabera, oraindik tarte izugarri handia dago emakumeek etxeko lanak egiteko igarotzen duten denboraren eta gizonek igarotzen dutenaren artean. Denboraren Aurrekontuei buruzko Inkestaren emaitzen arabera, 16 urtetik gorako biztanleen %78,6k adierazi dute horrelako lanak egiten denbora igarotzen duela, hain zuzen egunean 3 ordu eta 2 minutu, batez beste. 35-59 urte bitarteko adineko pertsonei berariaz erreparatuz, denbora gehiago igarotzen dute etxeko lanak egiten, hain zuzen 3 ordu eta 13 minutu. Era berean, emakume helduek 4 ordu eta 19 minutu igarotzen dituzte etxeko lanak egiten, adin bereko gizonek baino 2 ordu eta 36 minutu gehiago. Ildo horretan, astegunetan (astelehenetik ostiralera bitartean) etxeko lanak egiten igarotzen den denbora aztertuz gero aurkituko ditugu desberdintasun handienak.

**4.11. TAULA Biztanleriak guztira eta biztanle parte-hartzaileek etxeko lanak egiten igarotzen duten batez besteko ordu-kopurua, adinaren arabera. 2003**

| | GUZTIRA | | | 35-59 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK |
| BATEZ BESTEKO DENBORA SOZIALA | | | | | | |
| **Guztira** | **2:23** | **1:10** | **3:31** | **2:40** | **1:12** | **4:09** |
| Astelehenetik ostegunera | 2:23 | 1:07 | 3:35 | 2:39 | 1:04 | 4:17 |
| Ostirala | 2:28 | 1:04 | 3:46 | 2:39 | 0:58 | 4:18 |
| Larunbata | 2:34 | 1:32 | 3:32 | 2:55 | 1:49 | 3:59 |
| Igandea | 2:07 | 1:07 | 3:02 | 2:29 | 1:21 | 3:39 |
| PARTE HARTZAILE BAKOITZAREN BATEZ BESTEKO DENBORA | | | | | | |
| **Guztira** | **3:02** | **1:47** | **3:53** | **3:13** | **1:43** | **4:19** |
| Astelehenetik ostegunera | 3:05 | 1:43 | 4:00 | 3:12 | 1:32 | 4:27 |
| Ostirala | 3:11 | 1:45 | 4:05 | 3:24 | 1:36 | 4:30 |
| Larunbata | 3:09 | 2:11 | 3:51 | 3:24 | 2:27 | 4:08 |
| Igandea | 2:37 | 1:39 | 3:17 | 2:52 | 1:48 | 3:44 |

ITURRIA: EUSTAT. Denboraren Aurrekontuei buruzko inkesta, 2003.

## 4.3. GRAFIKOA 35-59 urte bitarteko pertsona parte-hartzaileek etxeko lanetan igarotzen duten batez besteko denbora. 2003




ITURRIA: EUSTAT. Denboraren Aurrekontuei buruzko inkesta, 2003.

*Emakume helduek egunero 4 ordu eta 19 minutu erabiltzen dituzte etxeko lanak egiteko, hau da, gizonek baino 2 ordu eta 36 minutu gehiago.*

Gaur egun, emakumeen eta gizonen rolak aldatzen ari badira ere —eta aldatzen ari dira, batez ere gero eta gehiago direlako lan-merkatuan sartzen diren emakumeak—, oraindik desberdintasunak ikus daitezke gizonek eta emakumeek bizitza sozialeko ugalketarako esparruan eta ekoizpenerako esparruan egiten duten parte-hartzeari dagokionez. Zentzu horretan, ekoizpen-lana emakumeen gain jartzeaz ez ezik, ez dago berdintasunik gizonek eta emakumeek soldatako ekoizpen-lanean egiten duten parte-hartzeari eta dituzten baldintzei dagokienez.

# 5

# AUTONOMIA EKONOMIKOA

Enplegua dugu gaur egun gure gizartean gizonak eta emakumeak bereizten dituen autonomia ekonomikoko maila desberdinak definitzeko eta ulertzeko adierazle nagusienetako bat. Enplegua esatean, gizabanakoek egunero egiten duten lanaz gain, gizonen eta emakumeen bizitzako funtsezko jardueretako bat dela ulertu behar da; gainera, gaur egungo gizarteetan gizarteratzeko faktore garrantzitsu bat dela kontuan hartu behar da. Horrez gain, enplegua eta, ondorioz, lan-merkatua, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak nabarmentzen diren espazio bat da. Are gehiago esan daiteke: gizonek eta emakumeek lan-merkatuan duten egoera aztertzeaz gain, estatus soziala kontuan hartu beharko litzateke, izan ere, kasu askotan enplegu-egoerek (lanean, langabezian, eta abar) definitzen dituzte sexu bakoitzerako jarrera profesional eta sozial desberdinak.

Gaur egun, eta nahiz eta lege-esparruan aurrerapenak egin diren berdintasunaren alde eta diskriminazioaren aurka, eta nahiz eta emakumeek prestakuntza-maila altua erakutsi, batez ere azken belaunaldien kasuan, eta nahiz eta gero eta gehiago izan lan-merkatuan sartzen diren emakumeak, oraindik desabantaila nabarmenak gainditu behar dituzte emakumeek.

## JARDUERA ETA LANA 5.1

Ugalketarako lanarekin ez bezala —ez da kontuan hartzen estatistika ofizialetan eta, oraingoz, ez da horren definizio ekonomiko zehatzik egin—, ekoizpen-lanaren inguruan makina bat datu eta adierazle ditugu berau aztertzeko. Zentzu horretan, 2001. urteko azken Biztanleria eta Etxebizitza Erroldak zehaztasunez islatzen du jarduerarekiko erlazioaren arabera biztanleriaren banaketa.

**5.1. TAULA Familiaren etxebizitzan bizi diren 30-64 urte bitarteko pertsonak, jarduerarekiko lehentasunezko erlazioaren arabera. 2001 (Portzentaje bertikalak)**

| | GUZTIRA | | GIZONAK | | EMAKUMEAK | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | % | ABS. | % | ABS. | % |
| Ikasleak | 11.211 | 1,1 | 2.501 | 0,5 | 8.710 | 1,7 |
| Lanean ari direnak | 652.894 | 63,9 | 409.216 | 80,3 | 243.678 | 47,6 |
| 1. enpleguaren bila ari diren langabetuak | 7.891 | 0,8 | 2.578 | 0,5 | 5.313 | 1,0 |
| Lehenagotik lan egin duten langabetuak | 60.495 | 5,9 | 25.731 | 5,1 | 34.764 | 6,8 |
| Ezintasunagatiko pentsiodunak | 24.834 | 2,4 | 17.402 | 3,4 | 7.432 | 1,5 |
| Alargun- edo umezurtz-pentsiodunak | 13.667 | 1,3 | 685 | 0,1 | 12.982 | 2,5 |
| Erretiroagatiko pentsiodunak | 44.818 | 4,4 | 37.147 | 7,3 | 7.671 | 1,5 |
| Etxeko lanak egiten dituztenak edo laguntzen dutenak | 182.581 | 17,9 | 1.970 | 0,4 | 180.611 | 35,3 |
| Beste hainbat egoera (errentadunak...) | 23.209 | 2,3 | 12.289 | 2,4 | 10.920 | 2,1 |
| **GUZTIRA** | **1.021.600** | **100,0** | **509.519** | **100,0** | **512.081** | **100,0** |

ITURRIA: INE. Biztanleria eta Etxebizitza Errolda, 2001.

Eskuarki, 2001. urtean EAEko 30-64 urte bitarteko pertsona helduen %63,9 lanean ari ziren, beste %6,7 langabezian, %8,2k pentsio-mota bat jasotzen zuten eta %17,9ren jarduera nagusia etxeko lanak ziren; azkenik, %1,1 ikasleak ziren.

Lanean ari diren biztanleei erreparatuz, 30-64 urte bitarteko hamar gizonen artetik zortzi lanean ari dira; adin bereko emakumeei erreparatuz, ordea, proportzio hori askoz baxuagoa da eta %47,6ra besterik ez da iristen. Bien arteko aldea nabarmena da, izan ere, emakume askok eta askok (hirutik batek ia-ia) etxeko lanak egitea dute jarduera nagusitzat.

*— 30-64 urte bitarteko hamar gizonen artetik zortzik lan egiten dute; emakumeen artean, berriz, hamar emakumeren artetik bostek baino gutxiagok lan egiten dute.*
*— Emakumeen heren baten jarduera nagusia etxeko lanak dira.*

EAEn bizi diren 30-64 urte bitarteko pertsona atzerritarrei dagokienez, eta jarduerarekiko erlazioa kontuan hartuta pertsona horien sexuen araberako banaketa eta biztanleriak oro har duena nahiko parekoak dira, nahiz eta zenbait desberdintasun ikus daitezkeen.

**5.2. TAULA Familiaren etxebizitzan bizi diren 30-64 urte bitarteko pertsona atzerritarrak, jarduerarekiko lehentasunezko erlazioaren arabera. 2001 (Portzentaje bertikalak)**

| | GUZTIRA | | GIZONAK | | EMAKUMEAK | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | % | ABS. | % | ABS. | % |
| Ikasleak | 470 | 3,0 | 146 | 1,9 | 324 | 4,1 |
| Lanean ari direnak | 9.240 | 59,9 | 5.580 | 73,9 | 3.660 | 46,4 |
| 1. enpleguaren bila ari diren langabetuak | 597 | 3,9 | 304 | 4,0 | 293 | 3,7 |
| Lehenagotik lan egin duten langabetuak | 1.389 | 9,0 | 754 | 10,0 | 635 | 8,1 |
| Ezintasunagatiko pentsiodunak | 121 | 0,8 | 89 | 1,2 | 32 | 0,4 |
| Alargun- edo umezurtz-pentsiodunak | 67 | 0,4 | 6 | 0,1 | 61 | 0,8 |
| Erretiroagatiko pentsiodunak | 152 | 1,0 | 100 | 1,3 | 52 | 0,7 |
| Etxeko lanak egiten dituztenak edo laguntzen dutenak | 2.513 | 16,3 | 119 | 1,6 | 2.394 | 30,4 |
| Beste hainbat egoera (errentadunak...) | 878 | 5,7 | 448 | 5,9 | 430 | 5,5 |
| **GUZTIRA** | **15.427** | **100,0** | **7.546** | **100,0** | **7.881** | **100,0** |

ITURRIA: INE. Biztanleria eta Etxebizitza Errolda, 2001.

Gizonak bakarrik aztertuz, guztizkotik %73,9 lanean ari dira eta %14 langabezian (%5,6 biztanleria bere osotasunean hartuta). Emakume helduei bakarrik erreparatuz, %46,4 lan egiten dute, %30,4k etxeko lanak egiten dituzte eta %11,7, azkenik, lan-

gabezian daude (emakume atzerritarren kasuan %7,8 dira). Zentzu horretan, biztanleria atzerritarraren artean langabezian dauden pertsona gehiago aurkituko ditugu, zailtasun handiagoak baitituzte lana aurkitzeko orduan.

**5.1. GRAFIKOA** **Familiaren etxebizitzan bizi diren 30-64 urte bitarteko pertsonak, jarduerarekiko lehentasunezko erlazioaren arabera (aktiboak edo ez-aktiboak). 2001**




ITURRIA: INE. Biztanleria eta Etxebizitza Errolda, 2001.

Pertsonak aktibotzat edo ez-aktibotzat desberdintzen dituen jardueraren gaineko oinarrizko sailkapenari dagokionez, orain artean adierazitako desberdintasunak azpimarratzen dituzten beste hainbat aurkituko ditugu. Hasteko, pertsona aktibotzat lanean ari diren edo lan bila ari diren pertsonak hartuko ditugu. Aitzitik, pertsona ez-aktibotzat joko ditugu aipatutako bi egoera horietan ez dauden pertsona guztiak, hots, etxeko lanak egiten dituztenak, ikasten ari direnak, erretiratuak eta pentsiodunak, errentadunak eta pertsona ezinduak.

Biztanleria eta Etxebizitza Errolda azterketan barne hartutako datuen arabera, eta adin helduaren baitan (30-64 urte) sartzen diren adin-talde guztiak hartuta, gizonak dira gehiengoa, beti, pertsona aktiboen multzoan. Horrela, gehiengoa dira gizonak 30-39 urte bitarteko adin-taldean (gizonen %95,2 eta emakumeen %76,5 dira aktiboak), eta gehiengoa dira gizonak 60-64 adin-tartera bitartean (gizonen %36,9 eta emakumeen %14,3 dira pertsona aktiboak.

**5.2. GRAFIKOA 25-54 urte bitarteko pertsonen lan-merkatuko kopuruak. 2003ko IV. Hiruhilekoa**




ITURRIA: INE. Biztanleria Aktiboari buruzko inkesta.

Erroldako datuez gain, Biztanleria Jardueraren Arabera (BJA) Inkesta dugu lan-merkatuari buruzko aldiroko informazio osoa lortzeko iturri garrantzitsuenetakoa, zalantzarik gabe. 2003ko azken hiruhilekoan lortutako datuei erreparatuz, 25-54 urte bitarteko pertsona helduen multzoan gizonen %56,1 eta emakumeen %43,9 pertsona aktiboak ziren. Lanean zirenen arteko % 56,9 gizonak ziren; emakumeak, berriz, lana zutenen arteko %43,1. Bestalde, langabezian zeuden pertsonen artean gehiago ziren emakumeak (%52,9 emakumeak eta %47,1 gizonak). Horrez gain, eta nahiz eta azken hamarkadetan gero eta gehiago diren lan-merkatura sartzen diren emakumeak, datuak ikusita baieztatu ahal dugu biztanle ez-aktiboen artean gehienak emakumeak zirela. 2003ko azken hiruhilekoan, 25-54 urte bitarteko pertsona ez-aktiboen guztizkotik %82,4 emakumeak ziren.

**5.3. TAULA 25-54 urte bitarteko biztanleria (milakotan), jarduerarekiko erlazioaren eta hiruhilekoaren arabera. 2003. (Portzentaje bertikalak)**

| | 2003 IH | | 2003 IIH | | 2003 IIIH | | 2003 IVH | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | % | ABS. | % | ABS. | % | ABS. | % |
| AKTIBOAK | | | | | | | | |
| Gizonak | 452,1 | 56,7 | 455,8 | 56,3 | 459,8 | 56,3 | 459 | 56,1 |
| Emakumeak | 345,8 | 43,3 | 353,6 | 43,7 | 356,5 | 43,7 | 359,5 | 43,9 |
| **Guztira** | **797,8** | **100,0** | **809,4** | **100,0** | **816,3** | **100,0** | **818,5** | **100,0** |
| Lanean ari direnak | | | | | | | | |
| Gizonak | 428,8 | 58,7 | 432,7 | 58,1 | 432,4 | 57,7 | 427 | 56,9 |
| Emakumeak | 301,8 | 41,3 | 311,9 | 41,9 | 317,3 | 42,3 | 323,3 | 43,1 |
| Guztira | 730,6 | 100,0 | 744,6 | 100,0 | 749,7 | 100,0 | 750,3 | 100,0 |
| Langabetuak | | | | | | | | |
| Gizonak | 23,3 | 34,7 | 23,1 | 35,6 | 27,4 | 41,1 | 32,1 | 47,0 |
| Emakumeak | 44 | 65,5 | 41,7 | 64,4 | 39,1 | 58,7 | 36,2 | 53,0 |
| Guztira | 67,2 | 100,0 | 64,8 | 100,0 | 66,6 | 100,0 | 68,3 | 100,0 |
| Lehen enpleguaren bila ari diren langabetuak | | | | | | | | |
| Gizonak | 1,9 | 27,5 | 2 | 23,5 | 2,6 | 32,9 | 3,4 | 48,6 |
| Emakumeak | 5 | 72,5 | 6,6 | 77,6 | 5,3 | 67,1 | 3,6 | 51,4 |
| Guztira | 6,9 | 100,0 | 8,5 | 100,0 | 7,9 | 100,0 | 7 | 100,0 |
| EZ-AKTIBOAK | | | | | | | | |
| Gizonak | 32,2 | 19,2 | 28,8 | 18,4 | 25 | 16,6 | 26,2 | 17,6 |
| Emakumeak | 135,5 | 80,8 | 127,9 | 81,6 | 125,5 | 83,4 | 122,8 | 82,4 |
| **Guztira** | **167,6** | **100,0** | **156,7** | **100,0** | **150,5** | **100,0** | **149** | **100,0** |

ITURRIA: INE. Biztanleria Aktiboari buruzko inkesta.

Lanean ari diren pertsonek jardueraren sektore ekonomikoen arabera duten banaketari erreparatuz, oraingoan ere baieztatu ahal izan da, aspalditik baieztatzen ari den moduan, gero eta gehiago direla hirugarren sektorean lan egiten duten pertsonak; horrela, 2003ko azken hiruhilekoan lortutako datuen arabera, 25-54 urte eduki eta lanean ari diren pertsona guztien %64,5ek hirugarren sektorean lan egiten dute.

Gainera, kontuan hartu behar da zerbitzuen sektoreak agerpen handia duela emakumeen lanari buruz ari garela. Hain zuzen, 25-54 urte eduki eta lanean ari diren emakumeen artetik gehienek (%86,7) zerbitzuen sektorean lan egiten dute, lanean ari diren gizonak %47,7 diren bitartean. Bestetik, lanean ari diren gizon gehienek industriaren sektorean (%36,9, eta emakumeen %11,3) eta eraikuntzaren sektorean (%14, eta emakumeen %1,4) egiten dute lan.

**5.4. TAULA 25 urte eta gehiago eduki eta lanean ari den biztanleria (milakotan), sektore ekonomikoen arabera. 2003ko IV. hiruhilekoa**

| | 25-54 URTE BITARTEAN | | | | 55 URTE ETA GEHIAGO | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | GIZONAK | | EMAKUMEAK | | GIZONAK | | EMAKUMEAK | |
| | Abs. | % | Abs. | % | Abs. | % | Abs. | % |
| Nekazaritza | 5,8 | 1,4 | 1,9 | 0,6 | 1,7 | 2,5 | 0,9 | 4,1 |
| Industria | 157,6 | 36,9 | 36,6 | 11,3 | 30,2 | 44,1 | 1,9 | 8,6 |
| Eraikuntza | 59,9 | 14,0 | 4,5 | 1,4 | 8,9 | 13,0 | 0,4 | 1,8 |
| Zerbitzuak | 203,6 | 47,7 | 280,3 | 86,7 | 27,6 | 40,3 | 18,8 | 85,1 |
| **GUZTIRA** | **426,9** | **100,0** | **323,3** | **100,0** | **68,5** | **100,0** | **22,1** | **100,0** |

ITURRIA: INE. Biztanleria Aktiboari buruzko inkesta.

INEk landutako Lan Kostuen Indizearen arabera, soldaten kostu altuenak gizon gehien dauden sektoreetan erregistratu dira (industria eta eraikuntza); eta zerbitzuen sektorea izan da soldaten kostu baxuena erregistratu duena, hain zuzen emakume gehien dauden sektorea. Kontuan hartu beharreko datua da hori, izan ere, soldaten

kostuak barne hartzen ditu besteren kontura lan egiten duten pertsona guztiei, beren lan-zerbitzuak eskaintzeagatik, egiten zaizkien ordainketa guztiak.

*— Lanean ari diren 10 emakumeren artetik zortzik zerbitzuen sektorean lan egiten dute.*
*— Lanean ari diren gizon gehienak industriaren sektorean (%36,9), zerbitzuen sektorean (%47,4) eta eraikuntzaren sektorean (%14) ari dira lanean.*
*— Soldaten kostu altueneko sektoreetan (industria eta eraikuntza) daude gizon gehien. Zerbitzuen sektorea da (emakume gehien dagoen sektorea) soldaten kostua baxuen izan duen sektorea.*

| | *Soldaten kostua Guztira (euro)* |
|---|---|
| *Guztira* | *1.860,9* |
| *Industria* | *2.181,9* |
| *Eraikuntza* | *1.852,2* |
| *Zerbitzuak* | *1.686,6* |

*ITURRIA: INE. Lan Kostuen Indizea. 2003.*

## LAN-EZEGONKORTASUNA 5.2

Lanean ari diren pertsona helduen jarduera-mailak eta okupazio-mailak kontuan hartzeaz gain, funtsezkoa da, enplegua aztertzeko orduan, kalitatearen irizpidea kontuan hartzea. Xede horrekin, kontratu-mota dugu lan-egonkortasunaren maila neurtzeko adierazle erabilgarrienetako bat.

2003an lanean ari ziren 25 urte eta gehiagoko pertsonen kontratu-motei dagokienez, eskuarki, lanean ari ziren gizonen %76,3k kontratu mugagabea zuten eta %23k aldi baterako kontratua. Lanean ari ziren emakumeen artean, bestalde, %27,6k bakarrik zuten aldi baterako kontratua eta %64k finkoa. Bestalde, emakumeen %8,5ek ez zuten kontraturik, eta gutxiago ziren kontraturik gabeko gizonak (%0,7).

**5.3. GRAFIKOA Lanean ari den soldatako 25 urte eta gehiagoko biztanleria (kooperatibistak kanpo), kontratu-motaren arabera. 2003**




ITURRIA: INE. Biztanleria Aktiboari buruzko inkesta.

*— Lanean ari diren gizonen %76,3k dute kontratu mugagabea-finkoa; emakumeen artean %63,9 dira.*
*— Aldi baterako kontratuak dituzte lanean ari diren emakumeen %27,6k eta gizonen %23k.*

**5.5. TAULA Lanean ari den soldatako 25 urte eta gehiagoko biztanleria (kooperatibistak kanpo), kontratu-motaren eta adin-taldearen arabera (milakotan)**

| | GUZTIRA | GIZONAK | | EMAKUMEAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % | ABS. | % |
| Mugagabea-finkoa | | | | | |
| 25-44 urte | 273,6 | 159,3 | 58,2 | 114,3 | 41,8 |
| 45 edo gehiago | 190 | 127,4 | 67,1 | 62,6 | 32,9 |
| Aldi baterakoa | | | | | |
| 25-44 urte | 139,3 | 72,5 | 52,0 | 66,8 | 48,0 |
| 45 edo gehiago | 23,4 | 13,8 | 59,0 | 9,6 | 41,0 |
| Kontraturik gabe eta beste hainbat | | | | | |
| 25-44 urte | 16,1 | 2,4 | 14,9 | 13,7 | 85,1 |
| 45 edo gehiago | 10,1 | 0,3 | 3,0 | 9,8 | 97,0 |

ITURRIA: INE. Biztanleria Aktiboari buruzko inkesta.

Bestalde, 2003an sinatutako kontratu-motei erreparatuz kontratazio berrien aldi baterakotasunari buruzko informazio osagarria lortuko dugu; horrela, nabarmen geratzen da langile askoren lan-ezegonkortasuna. 30 urtetik gorako gizonek sinatutako kontratuei dagokienez, gehienak obra edo zerbitzuko kontratuak izan ziren (%48,8, eta %26,5 emakumeen kasuan). Era berean, ekoizpenak eragindako aldi baterako kontratuei dagokienez, emakumeek sinatutako kontratuen %37,2 multzo horretan sailkatu ziren, 30 urtetik gorako gizonen %31,7 mota horretako kontratuak izan zirelarik.

Bestalde, 2003an emakumeek sinatutako 10 kontraturen artetik hiru bitarteko kontratuak izan ziren; gizonei dagokienez, 10en artetik 1 besterik ez zen izan mota horretako kontratua. Mota horretako kontratuak aldi baterako kontratuak dira: langile bat (plaza erreserbatu egiten zaio) ordezkatzeko kontratuak izaten dira. Emakumeek mota horretako kontratuetan erregistratu duten portzentaje altuaren arrazoi bat da amatasun-bajen ordezkapenak, sarritan, beste emakume batek egin ohi dituela.

Kontratu mugagabeei erreparatuz (arruntak edo enplegua sustatzekoak), hain zuzen enplegu-egonkortasun handien ziurtatzen duten kontratuak, oso portzentaje baxua erregistratu zen 2003an sinatutako kontratu guztiekiko. Hala ere, gizonek sinatutako kontratuen %6,6 eta emakumeek sinatutakoen %4,6 izan ziren kontratu mugagabeak.

**5.6. TAULA 30 urte eta gehiagoko pertsonen kontratuak, kontratu-motaren arabera. 2003**

| | ADIN GUZTIAK | | GIZONAK | | EMAKUMEAK | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | % | ABS. | % | ABS. | % |
| Mugagabe arrunta | 15.934 | 2,2 | 7.033 | 4,5 | 2.660 | 1,6 |
| Mugagabea, enplegu-sustapena | 14.163 | 2,0 | 3.279 | 2,1 | 4.941 | 3,0 |
| Ezinduak | 321 | 0,0 | 172 | 0,1 | 63 | 0,0 |
| Obra edo zerbitzua | 267.345 | 37,2 | 76.103 | 48,8 | 44.315 | 26,5 |
| Ekoizpenak eragindako aldi baterakoa | 285.075 | 39,7 | 49.426 | 31,7 | 62.167 | 37,2 |
| Bitartekoa | 116.026 | 16,1 | 14.730 | 9,4 | 50.649 | 30,3 |
| Aldi baterakoa, ezinduak | 803 | 0,1 | 356 | 0,2 | 197 | 0,1 |
| Lan-munduan txertatzeko aldi baterakoa | 2.904 | 0,4 | 871 | 0,6 | 987 | 0,6 |
| Txandakoa | 2.486 | 0,3 | 864 | 0,6 | 209 | 0,1 |
| Erretiro partziala | 2.684 | 0,4 | 2.411 | 1,5 | 273 | 0,2 |
| 64 urterekin erretiroagatiko ordezkapena | 97 | 0,0 | 46 | 0,0 | 18 | 0,0 |
| Praktikak | 6.486 | 0,9 | 106 | 0,1 | 105 | 0,1 |
| Prestakuntza | 2.548 | 0,4 | 111 | 0,1 | 180 | 0,1 |
| Beste hainbat kontratu-mota | 1.647 | 0,2 | 527 | 0,3 | 330 | 0,2 |
| **GUZTIRA** | **718.519** | **100,0** | **156.035** | **100,0** | **167.094** | **100,0** |

ITURRIA: INEM.

2003an 30 urte eta gehiagoko pertsonei dagokienez mugagabe bihurtutako kontratuei erreparatuz, bereziki azpimarragarria da horrelako aldaketa izan zuten hamar kontraturen artetik sei gizonek sinatu zituztela (%63,2).

**5.7. TAULA 30 urte eta gehiagoko pertsonen kasuan mugagabe bihurtutako kontratuak, kontratu-motaren arabera. 2003**

| | GIZONAK | | | | EMAKUMEAK | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 30-39 | 40-44 | >=45 | GUZTIRA | 30-39 | 40-44 | >=45 | GUZTIRA |
| Obra- eta zerbitzu-kontratuak | 1.675 | 348 | 287 | 2.310 | 820 | 161 | 147 | 1.128 |
| Ekoizpenak eragindako aldi baterako kontratuak | 2.745 | 613 | 325 | 3.683 | 1.699 | 417 | 230 | 2.346 |
| Bitarteko kontratuak | 102 | 26 | 7 | 135 | 82 | 21 | 23 | 126 |
| Ezinduen aldi baterako kontratuak | 34 | 22 | 36 | 92 | 17 | 7 | 16 | 40 |
| Ordezkapen-kontratuak 64 urtetan erretiroa hartzeagatik | 8 | 5 | 6 | 19 | 2 | 1 | 2 | 5 |
| Praktiketako kontratuak | 95 | 1 | 0 | 96 | 54 | 1 | 0 | 55 |
| Prestakuntza-kontratuak | 1 | 0 | 1 | 2 | 1 | | 0 | 1 |
| Beste hainbat kontratu | 9 | 3 | 3 | 15 | 2 | 1 | 1 | 4 |

ITURRIA: INEM.

## LANGABEZIA 5.3

Langabezian dauden pertsonak eta lan egiten dutenak dira enpleguaren bi aurpegiak. Lanean ari diren pertsonen artean gizonak gehiago diren bitartean, emakume gehiago daude langabezian, bai lehenengo enpleguaren bila ari diren pertsonen artean, bai pertsona gazteenen artean eta bai lehenago lan egin duten pertsonen artean ere.

2003an biztanleria helduaren artean erregistratu diren langabezia-tasari eta lan-tasari erreparatuz, egitura-mailako desberdintasun nabarmenak aurkituko ditugu lanmerkatuan gizonen eta emakumeen artean.

Biztanleria Aktiboari buruzko Inkestako datuen arabera, 2003ko azken hiruhilekoari buruzkoak, 25-54 urte bitarteko langabezia-tasa %10,07 da emakumeen kasuan eta %6,99 gizonenean. Estatuko gainerako lekuetan are handiagoa da bi taldeen arteko aldea; horrela, aipatutako aldian %14,4koa zen langabezia-tasa emakumeen artean eta %7,01ekoa, berriz, gizonen artean.

**5.8. TAULA 25 urte eta gehiagoko biztanleriaren langabezia-tasa eta enplegu-tasa, adin-taldeen arabera. 2003ko IV. hiruhilekoa (%)**

| | LANGABEZIA-TASAK | | | | ENPLEGU-TASAK | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2003 IH | 2003IIH | 2003IIIH | 2003IVH | 2003 IH | 2003IIH | 2003IIIH | 2003IVH |
| GUZTIRA | | | | | | | | |
| 25-54 urte bitartean | 8,43 | 8,01 | 8,16 | 8,34 | 75,67 | 77,07 | 77,55 | 77,55 |
| 55 urte eta gehiago | 3,64 | 3,82 | 4,54 | 4,24 | 15,56 | 15,63 | 14,94 | 14,83 |
| GIZONAK | | | | | | | | |
| 25-54 urte bitartean | 5,15 | 5,07 | 5,97 | 6,99 | 88,55 | 89,29 | 89,18 | 88,00 |
| 55 urte eta gehiago | 2,11 | 2,10 | 2,72 | 2,82 | 26,34 | 26,30 | 25,38 | 25,04 |
| EMAKUMEAK | | | | | | | | |
| 25-54 urte bitartean | 12,72 | 11,79 | 10,98 | 10,07 | 62,71 | 64,77 | 65,85 | 67,03 |
| 55 urte eta gehiago | 8,15 | 8,71 | 9,90 | 8,41 | 6,82 | 6,97 | 6,47 | 6,55 |

ITURRIA: INE. Biztanleria Aktiboari buruzko inkesta.

*25-54 urte bitarteko pertsonei dagokienez, 2003ko azken hiruhilekoan %8,34 izan da langabezia-tasa orokorra:*

*— Gizonen kasuan %6,99.*

*— Emakumeen kasuan %10,07.*

*Nabarmenagoa da bi taldeen arteko aldea Estatuko gainerako lurraldeetan:*

*— Gizonen langabezia-tasa %7,01 da*

*— Emakumeen langabezia-tasa %14,40 da.*

25-54 urte bitarteko emakumeen langabezia-tasak azken hamarkadetan izandako bilakaerari erreparatuz zera esan daiteke: 1994ra bitartean gorakada handiak izan ziren, %40tik gorakoak. 1995tik aurrera, aitzitik, beherakada handia ezagutu zuen langabezia-tasak, bai gizonen artean bai emakumeen artean, gaur eguneko mailara iritsi arte. Hala ere, gaur egun altuagoa da langabezia-tasa emakumeen artean gizonen artean baino.

**5.4. GRAFIKOA Langabezia-tasaren bilakaera adin-taldeen arabera. 1980-2003**




ITURRIA: INE. Biztanleria Aktiboari buruzko inkesta.

2003an 30 urtetik gorako pertsonek 393.422 enplegu-eskaeren alta aurkeztu zituzten INEMen. Eskaera horien erdia baino gehiago (%54,2) pertsona gazteenek egin zituzten (30-39 urte). Sexuaren arabera izandako enplegu-eskaeren altei dagokienez, desberdintasun handienak 40-49 urte bitarteko taldean (eskaeren %58,1 emakumeek egin zituzten eta %41,9, berriz, gizonek), eta 59 urtetik gorako pertsonen taldean aurkituko ditugu (eskaera guztien %68 emakumeak dira). INEMen erregistratutako

enplegu-eskaeren bajei dagokienez, 2003an guztira 393.675 baja egin zituzten pertsona helduek eta baja horiek sexuen eta adinen arabera aztertuz, alten kasuan lortutako emaitzen parekoak ikusi dira.

**5.9. TAULA** **INEMen erregistratutako enplegu-eskaeren altak eta bajak, adin-taldeen arabera. 2003**

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % | ABS. | % |
| ALTAK | | | | | |
| 30-39 urte bitartean | 213.112 | 110.148 | 51,7 | 102.964 | 48,3 |
| 40-49 urte bitartean | 120.057 | 69.735 | 58,1 | 50.322 | 41,9 |
| 50-59 urte bitartean | 50.365 | 24.671 | 49,0 | 25.694 | 51,0 |
| > 59 urte | 9.888 | 3.164 | 32,0 | 6.724 | 68,0 |
| **GUZTIRA** | **393.422** | **207.718** | **52,8** | **185.704** | **47,2** |
| BAJAK | | | | | |
| 30-39 urte bitartean | 214.596 | 111.340 | 51,9 | 103.256 | 48,1 |
| 40-49 urte bitartean | 120.410 | 70.563 | 58,6 | 49.847 | 41,4 |
| 50-59 urte bitartean | 48.484 | 24.484 | 50,5 | 24.000 | 49,5 |
| > 59 urte | 12.185 | 3.733 | 30,6 | 8.452 | 69,4 |
| **GUZTIRA** | **395.675** | **210.120** | **53,1** | **185.555** | **46,9** |

ITURRIA: INEM.

## LANEKO ARRISKUAK 5.4

Lan-esparruan kontuan hartu beharreko beste alderdi bat laneko arriskuak dira; gero eta garrantzi handiagoa ematen zaie laneko arriskuei erakunde publikoen eta sindikatuen agendatan, batez ere laneko ezbeharrak prebenitzeko neurriak martxan jar-

tzeko eta langileek lan egiten duten ingurunea gero eta osasungarriagoa izatea lortzeko.

Laneko segurtasun eta osasunerako euskal erakundeak (Osalan) laneko ezbeharrei buruz emandako datuen arabera, gizonek izaten dituzte, oro har, ezbehar gehiago lanean ari direla. 26-65 urte bitarteko langile helduen kasuan, 2003an 41.927 laneko ezbehar gertatu ziren. Horietatik %83,2 gizonek izan zituzten, guztira 34.889 ezbehar, eta %16,8 besterik ez emakumeek, hau da, 7.038 ezbehar.

*2003an, 26-65 urte bitarteko langileen artean guztira 41.927 ezbehar gertatu ziren; horietatik %83,2 gizonek izan zituzten eta %16,8 emakumeek.*

Ezbeharren larritasunaren arabera —arinak, larriak edo heriotza eragiten dutenak—, ezbehar-kopurua altuagoa da gizonen kasuan emakumeen kasuan baino, kasu guztietan. Horrela, guztira gertatutako 41.465 ezbehar arinen %83,1 gizonen artean gertatu ziren eta %16,9 emakumeen artean. Antzeko datuak lortu dira ezbehar larriei erreparatuz: 2003an 395 ezbehar larri izan ziren eta horietatik %88,4 gizonek izan zituzten eta %11,6 emakumeek.

Bereziki azpimarragarriak dira pertsona langileen heriotza dakarten ezbeharrak. Zentzu horretan, guztira 67 heriotza gertatu ziren 26-65 urte bitarteko pertsonen artean eta ezbehar gehienak eraikuntzaren manufakturazio-industrien sektoreetan gertatu ziren. Horien artetik 65tan gizonak izan ziren biktima eta 2tan, berriz, emakumeak.

**5.5. GRAFIKOA 26-65 urte bitarteko langileen laneko ezbehar-tasa, larritasunaren arabera. 2003 (%)**




ITURRIA: OSALAN (ez dira barne hartu "in itinere" gertatutako ezbeharrak eta gaixoberritzeak).

Adin-tarte desberdinei erreparatuz, laneko ezbehar-tasa altuagoa da gazteen artean, bai emakumeen kasuan bai eta gizonen kasuan ere. Ildo horretan jasotako datuen arabera, 26-65 urte bitarteko langileek izaten dituzten 10 ezbeharren artetik lau, gutxi gorabehera, 26-35 urte bitarteko pertsonek izaten dituzte. Egoera hori ulertzeko arrazoien artean kontuan hartu beharko litzateke pertsona gazteen lan-ezegonkortasuna handiagoa izaten dela eta, ondorioz, laneko segurtasun-baldintzak eskasagoak izaten direla.

*26-65 urte bitarteko langileek izaten dituzten 10 laneko ezbeharren artetik 4, gutxi gorabehera, 26-35 urte bitarteko pertsonek izaten dituzte.*

**5.10. TAULA** **26-65 urte bitarteko langileen laneko ezbehar-tasa larritasunaren eta adin-taldeen arabera. 2003**

| | | HERIOTZA | LARRIA | ARINA | GUZTIRA | % |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Gizonak | 26-35 urte bitartean | 17 | 87 | 13.287 | 13.391 | 38,4 |
| | 36-45 urte bitartean | 10 | 106 | 10.245 | 10.361 | 29,7 |
| | 46-55 urte bitartean | 19 | 101 | 7.233 | 7.353 | 21,1 |
| | 56-65 urte bitartean | 19 | 55 | 3.710 | 3.784 | 10,8 |
| | Guztira | 65 | 349 | 34.475 | 34.889 | 100,0 |
| Emakumeak | 26-35 urte bitartean | 2 | 19 | 2.782 | 2.803 | 39,8 |
| | 36-45 urte bitartean | 0 | 11 | 2.071 | 2.082 | 29,6 |
| | 46-55 urte bitartean | 0 | 8 | 1.569 | 1.577 | 22,4 |
| | 56-65 urte bitartean | 0 | 8 | 568 | 576 | 8,2 |
| | Guztira | 2 | 46 | 6.990 | 7.038 | 100,0 |
| **GUZTIRA** | **26-65 urte bitartean** | **67** | **395** | **41.465** | **41.927** | -- |

ITURRIA: OSALAN (ez dira barne hartu "in itinere" gertatutako ezbeharrak eta gaixoberritzeak).

# 5.5 POBREZIA

Gizarte-bazterkeriaren inguruan egindako ikerketei erreparatuz, emakumeek testuinguru orotan pairatzen dituzte estutasun ekonomikoak; eta fenomeno horri pobreziaren feminizazioa deitzen zaio. EAEko emakumeei eta gizonei buruz bildutako datuek hipotesi hori berresten dute eta, horrez gain, bi sexuen arteko aberastasun-desberdintasuna eragiten duten hainbat faktore islatzen dituzte. Eusko Jaurlaritzak 2000. urtean landutako Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko inkestaren arabera, eskuarki emakumeek gizonek baino estutasun gehiago pairatzen dituzte. Horrela, pobrezia edo ongizaterik eza pairatzeko arrisku handien duten familiak, funtsean, emakumeak familiaburu dituzten familiak dira.

## 5.11. TAULA Mantenu- eta metatze-pobreziaren adierazleak. 2000 (1)

| | | | | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK |
|---|---|---|---|---|---|---|
| FAMILIAK | **Mantenu-** | Pobrezia pairatzeko | Guztira | 37.776 | 15.930 | 21.846 |
| | **-pobrezia** | arriskua | % | 5,5 | 3,0 | 13,3 |
| | | Ongizaterik eza | Guztira | 198.337 | 112.845 | 85.493 |
| | | pairatzeko arriskua | % | 28,8 | 21,6 | 51,9 |
| | **Metatze-** | Pobrezia pairatzeko | Guztira | 14.676 | 9.750 | 4.926 |
| | **-pobrezia** | arriskua | % | 2,1 | 1,9 | 3,0 |
| PERTSONAK | **Mantenu-** | Pobrezia pairatzeko | Guztira | 74.364 | 28.597 | 45.766 |
| | **-pobrezia** | arriskua | % | 3,6 | 2,8 | 4,3 |
| | | Ongizaterik eza | Guztira | 433.115 | 187.018 | 246.097 |
| | | pairatzeko arriskua | % | 20,9 | 18,4 | 23,3 |
| | **Metatze-** | Pobrezia pairatzeko | Guztira | 52.943 | 22.787 | 30.155 |
| | **-pobrezia** | arriskua | % | 2,6 | 2,2 | 2,9 |

(1) Ongizaterik eza pairatzeko arriskuaren edo sarrera baxuen adierazleen baitan barne hartzen dira talde pobreak. Familiei buruzko datuei dagokienez, erreferentziazko aldagaia familiaren baitako burua da. Tasa pertsonalak kalkulatzeko, pertsona bakoitza bizi den familiaren egoera hartzen da kontuan eta ez baliabide pertsonalen oinarria.

ITURRIA: Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Saila. Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko inkesta.

Txosten horretan bi dira erabilitako kontzeptu nagusiak: mantenu-pobrezia eta metatze-pobrezia. Mantenu-pobrezia esatean, epe laburrera oinarrizko beharrak —elikadura, etxebizitza, arropa, eta abar— estaltzeko baliabide ekonomiko nahikorik ez edukitzea ulertu behar da. Horrela, kontuan hartuta lortzen diren diru-sarrerak ez direla familiek duten baliabide ekonomiko bakarra eta kontuan hartuta ez direla barne hartzen, adibidez, ondare-baliabideak edo kredituzkoak, mantenuarekin erlazionatutako arazoak gehiago dira eskastasun egoera potentzialak benetako egoera errealak baino. Aitzitik, metatze-pobrezia epe luzean bizi-maila egokia bati eusteko beharrezkoak diren kontsumo-ondasunak lortzeko ezintasunarekin dago lotuta eta mota horretako ondasunak lortzeko ezintasunarekin. Horrenbestez, metatze-pobrezia esatean pobreziatik eta gizarte-bazterkeriatik hurbil bizi diren familiak ulertu behar dira.

2000. urtean, guztira 236.113 familia barne hartzen ziren mantenu-pobreziaren baitan eta 507.479 pertsona; metatze-pobreziak, berriz, 14.676 familia eta 52.943 pertsona eragiten zituen. Lortutako datuei erreparatuz, eta adinen araberako desberdintasunak alde batera utzita, emakumeek erregistratu zituzten indizerik altuenak bi pobrezia-moten kasuan, nahiz eta mantenu-pobreziaren kasuan nabarmenagoak diren sexuen arteko desberdintasunak. Horrela, mantenu-pobreziak eragindako familien kasuan 13,3koa da pobrezia-arriskuaren adierazlea, emakumeak familiaburu direnetan; 3koa da aipatutako indizea gizonak familiaburu dituzten familiatan. Ongizaterik ezaren arriskuaren adierazleari dagokionez, 51,9koa da emakumea buru den familiatan eta 21,6koa, berriz, gizona buru den familiatan. Ildo beretik, metatze-pobreziak 3ko tasa lortu du emakumeen artean eta 1,9koa gizonen kasuan.

Pobrezia-egoerek edo pobrezia-arriskuko egoerek eragin handiagoa dute bakarrik bizi diren pertsonengan, guraso bakarreko familietan, adineko pertsonengan, langabezian daudenengan edo lan-egoera ezegonkorra dutenengan eta, oro har, emakumeengan. Nahiz eta aipatutako azterketan ez den egin sexuaren eta adinaren araberako bereizketa zehatzik, pobrezia-tipologiari erreparatuz —talde homogeneotan oinarrituta— aipatutako bi aldagaien inguruko hainbat datu ezagutu ahal ditugu. Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko inkestaren datuen arabera, zalantzarik gabe esan daiteke urritasun eta eskasia gehien duen taldea emakume langabetuena dela. Horrela, pobrezia-egoeran bizi diren familien %58,8tan emakume langabetuak dira familiaburu; eta %28,7tan, berriz, gizon langabetuak dira familiaburu. Hirugarren talde bat bereiz daiteke, hain zuzen 65 urtetik gorako emakume ez-aktiboak: talde horretan %18,4koa da pobreziaren eragina. Bestalde, 65 urtetik gorako emakumeen taldean pobreziak duen eragin handia azpimarratu beharko litzateke (%12,4), biztanleria osoaren batez bestekoa gainditu.

## 5.12. TAULA Pobreziak EAEn duen eragina (mantenua edo metatzea), familiaburuaren arabera. 2000 (%)



| | |
|---|---|
| 1. MOTA: lanean, egoera egonkorra | 1,8 |
| 2. MOTA: lanean, egoera ezegonkorra | 9,2 |
| 3. MOTA: gizon langabetuak | 28,7 |
| 4. MOTA: emakume langabetuak | 59,8 |
| 5. MOTA: gizonak <65 urte ez-aktiboak | 9,2 |
| 6. MOTA: emakumeak <65 urte ez-aktiboak | 18,4 |
| 7. MOTA: gizonak >65 urte | 4,6 |
| 8. MOTA: emakumeak >65 urte | 12,4 |

ITURRIA: Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Saila. Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko inkesta.

Pobrezia-mota desberdinei dagokienez, ezaugarriak aldatu egiten dira batetik bestera. Mantenu-pobreziak eragin handiagoa du 65 urtetik gorako emakumeak familiaburu diren familiatan (%26,4) edo adin hori baino gutxiago duten emakume ez-aktiboak familiaburu diren familiatan (%14,1). Metatze-pobreziak, berriz, gehiago eragiten ditu 65 urtetik gorako gizon ez-aktiboak familiaburu dituzten familiak (%18,1) edo langabezian dauden gizonak familiaburu direnak (%17,1).

## 5.13. TAULA Mantenu- eta metatze-pobreziaren banaketa tipologikoa. 2000 (%)

| | MANTENU-POBREZIA | METATZE-POBREZIA |
|---|---|---|
| 1. MOTA: lanean, egoera egonkorra | 9,9 | 16,1 |
| 2. MOTA: lanean, egoera ezegonkorra | 6,3 | 9,1 |
| 3. MOTA: gizon langabetuak | 10,3 | 17,1 |
| 4. MOTA: emakume langabetuak | 10,4 | 11,4 |
| 5. MOTA: gizonak <65 urte ez-aktiboak | 9,8 | 18,1 |
| 6. MOTA: emakumeak <65 urte ez-aktiboak | 14,1 | 6,0 |
| 7. MOTA: gizonak >65 urte | 12,8 | 9,6 |
| 8. MOTA: emakumeak >65 urte | 26,4 | 12,6 |

ITURRIA: Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Saila. Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko inkesta.

1996-2000 urteen bitartean gorakada nabarmena ezagutu dute mantenu-pobreziaren adierazleek, batez ere emakume langabetuak eta 65 urtetik gorako emakumeak familiaburu diren familien artean. Aldi berdinean gorakada nabarmena ezagutu dute, halaber, pertsona langabetuak familiaburu diren familiei buruzko indizeek, eta zenbait kasutan, batez ere emakume langabetuak familiaburu diren familien kasuan, aurreko indizea hirukoiztera iritsi da.

**5.14. TAULA Mantenu- eta metatze-pobreziaren bilakaera familiako familiaburuaren arabera. 2000 (%)**

| | MANTENU-POBREZIA | | METATZE-POBREZIA | |
|---|---|---|---|---|
| | 1996 | 2000 | 1996 | 2000 |
| 1. MOTA: lanean, egoera egonkorra | 0,4 | 1,2 | 0,8 | 0,8 |
| 2. MOTA: lanean, egoera ezegonkorra | 3,5 | 5,9 | 1,3 | 3,3 |
| 3. MOTA: gizon langabetuak | 29,5 | 24,5 | 10,4 | 15,9 |
| 4. MOTA: emakume langabetuak | 44 | 59,8 | 8,8 | 25,5 |
| 5. MOTA: gizonak <65 urte ez-aktiboak | 5,4 | 6,5 | 0,9 | 4,7 |
| 6. MOTA: emakumeak <65 urte ez-aktiboak | 18,6 | 17 | 2,9 | 2,8 |
| 7. MOTA: gizonak >65 urte | 4,4 | 3,6 | 1,4 | 1,0 |
| 8. MOTA: emakumeak >65 urte | 5,2 | 10,5 | 2,1 | 1,9 |

ITURRIA: Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Saila. Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko inkesta.

Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestako datuak eta Eustat-ek 1997an landutako Errenta Pertsonalaren eta Familia Errentaren Estatistikako datuak kontuan hartuta, argi ikus daitezke gizonen eta emakumeen artean bereiz daitezkeen maila ekonomiko desberdinak.

## 5.6. GRAFIKOA 30-64 urte bitarteko pertsonen guztizko batez besteko errenta pertsonala, adin-taldeen arabera (euroak). 1997*




ITURRIA: EUSTAT. Errenta pertsonalaren eta familia-errentaren estatistika.

Guztizko Errenta —laneko errenta, jarduera-errenta eta kapital-errentaren batura— erreferentziatzat hartuta, 1997an errenta pertsonala 9.888 euro-koa izan zen guztira. Sexuen arabera, gizonen batez besteko errenta 13.882 euro-koa zen eta emakumeenak ez zituen ia sei mila euroak gainditu (6.122 euro). Orokorrean, pertsona helduen (30-64 urte) errentak gainditu egiten zuen sexu bakoitzean erregistratutako errentarik altuena, 50-64 urteko emakumeen kasuan izan ezik (emakumeen batez bestekoa baino baxuagoa da).

Pertsona helduak barne hartzen dituzten adin-tarteen arabera, 45-59 urteko pertsonen kasuan lortu da batez besteko errenta pertsonal altuena. Zehazkiago, 50-54 adintartean erregistratu da desberdintasun handiena, non gizonek saldo positiboa lortu duten (15.111 euro). Aitzitik, 30-34 urteko pertsonen taldean erregistratu da desberdintasun txikiena, nahiz eta kasu horretan ere handia izan. Horrela, 5.583 euro gehiago dira gizonen kasuan.

Bestetik, kontuan hartu behar da bi sexuen kasuan errenta gehienak lanetik lortzen direla; ondoren daude jarduera ekonomikoen errenta eta kapitalaren errenta. Azken errenta-mota horri dagokionez (kapital higigarritik zein higiezinetik lor daitekeena), gizonen eta emakumeen arteko desberdintasuna txikia bada ere, emakumeak dira lehenengo.

*Pertsona helduen batez besteko errenta pertsonala (20-64 urte) altuagoa da, beti, gizonen kasuan:*

*— Desberdintasun handiena 50-54 adin-taldean dago eta 15.111 euro-koa da gizonen aldeko saldoa.*

*— 30-34 adin-taldean lortu da egonkortasun handiena eta gizonen errenta emakumeena 5.583 euro gehiagokoa da.*

## 5.15. TAULA 30-64 urte bitarteko pertsonen batez besteko errenta pertsonala, errenta-motaren arabera (euro). 1997

| | | 30-34 | 35-39 | 40-44 | 45-49 | 50-54 | 55-59 | 60-64 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Guztira** | Guztira | 11.033 | 13.161 | 14.438 | 14.521 | 13.559 | 11.832 | 9.734 |
| **biztanleria** | Lana | 9.844 | 11.569 | 12.597 | 12.512 | 11.386 | 9.703 | 7.808 |
| **9.888 euro** | Kapitala | 247 | 335 | 474 | 670 | 871 | 1.032 | 1.164 |
| | Jarduera | 925 | 1.230 | 1.334 | 1.293 | 1.267 | 1.064 | 734 |
| **Gizonak** | Guztira | 13.798 | 16.923 | 19.362 | 21.174 | 21.135 | 18.612 | 15.004 |
| **guztira** | Lana | 12.206 | 14.732 | 16.877 | 18.519 | 18.364 | 15.956 | 12.724 |
| **13.882 euro** | Kapitala | 244 | 319 | 428 | 622 | 798 | 971 | 1.108 |
| | Jarduera | 1.332 | 1.842 | 2.017 | 1.971 | 1.935 | 1.650 | 1.138 |
| **Emakumeak** | Guztira | 8.216 | 9.449 | 9.528 | 7.817 | 6.024 | 5.085 | 4.700 |
| **guztira** | Lana | 7.438 | 8.448 | 8.330 | 6.458 | 4.447 | 3.483 | 3.114 |
| **6.122 euro** | Kapitala | 249 | 351 | 519 | 719 | 944 | 1.092 | 1.217 |
| | Jarduera | 511 | 626 | 654 | 609 | 603 | 480 | 348 |
| **Desberdinta-** | Guztira | 5.582 | 7.474 | 9.834 | 13.357 | 15.111 | 13.527 | 10.304 |
| **suna** | Lana | 4.768 | 6.284 | 8.547 | 12.061 | 13.917 | 12.473 | 9.610 |
| **(G-E)** | Kapitala | -5 | -32 | -91 | -97 | -146 | -121 | -109 |
| **7.760 euro** | Jarduera | 821 | 1.216 | 1.363 | 1.362 | 1.332 | 1.170 | 790 |

ITURRIA: EUSTAT. Errenta pertsonal eta familia-errentaren estatistika.



# 6

# HEZKUNTZA ETA EUSKARA

Gure gizartearen errealitatean esparru zabala hartzen duen elementua da hezkuntza. Alde batetik, gizartearen eta ekonomiaren aurrerapena lortzeko elementua da eta, bestetik, gizartea osatzen duten pertsonen banakako biografiaren zati garrantzitsua da, berak baldintzatzen baitu pertsona bakoitzaren ibilbide profesionala eta bizitzan baitakoa. Biztanleriaren hezkuntza-mailari buruzko datuei erreparatuz, EAEko pertsona heldu gehienek (30-64 urte) lehen mailako ikasketak dituzte. Lehen hezkuntzako ikasketak dituztenen artean, gehiago dira emakumeak (%53,3) gizonak baino (%46,5). Hezkuntza-maila baxuenei erreparatuz, bestalde, bi alderdi dira bereziki azpimarragarriak: batetik, ia ez da analfabetorik geratzen gure gizartean eta, bestetik, nabarmenki gutxitu dira, azken urteetan, ikasketarik ez duten pertsonak: 1991ean emakumeen %14,4k eta gizonen %12,1ek ikasketarik ez zuten bitartean, 2001ean %4,4 eta %3,5 izatera iritsi dira, hurrenez hurren. Lanbide-heziketako ikasketei dagokienez, desberdintasun handiak ikus daitezke sexuaren arabera: %20,9 gizonak dira eta %13,8 emakumeak. Amaitzeko, erdi-mailako eta goi-mailako ikasketei erreparatuz, ez da sexuen araberako desberdintasun handirik ikusi.

## 6.1. TAULA 30-64 urte bitarteko biztanleriaren bilakaera, ikasketa-mailaren eta sexuaren arabera, 1991-2001 aldia

| | 1991 | | | | 1996 | | | | 2001 | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | EMAKUMEAK | | GIZONAK | | EMAKUMEAK | | GIZONAK | | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
| | ABS. | % | ABS. | % | ABS. | % | ABS. | % | ABS. | % | ABS. | % |
| Analfabetoak | 6.494 | 1,4 | 3.177 | 0,7 | 4.154 | 0,8 | 2.068 | 0,4 | 3.487 | 0,7 | 2.470 | 0,5 |
| Ikasketarik gabe | 68.269 | 14,4 | 57.358 | 12,1 | 25.497 | 5,1 | 21.339 | 4,3 | 22.545 | 4,4 | 17.665 | 3,5 |
| Lehen mailako ikasketak | 266.331 | 56,0 | 228.156 | 48,2 | 273.157 | 54,9 | 232.925 | 47,3 | 272.838 | 53,3 | 236.812 | 46,5 |
| Lanbide-heziketa | 33.294 | 7,0 | 66.451 | 14,0 | 54.997 | 11,0 | 88.126 | 17,9 | 70.622 | 13,8 | 106.656 | 20,9 |
| Bigarren mailako ikasketak | 58.706 | 12,3 | 58.705 | 12,4 | 70.975 | 14,3 | 70.174 | 14,3 | 45.952 | 9,0 | 52.089 | 10,2 |
| Erdi-mailako/goi-mailako ikasketak | 23.616 | 5,0 | 21.400 | 4,5 | 34.838 | 7,0 | 26.277 | 5,3 | 45.723 | 8,9 | 34.576 | 6,8 |
| Goi-mailako ikasketak | 19.020 | 4,0 | 37.893 | 8,0 | 34.229 | 6,9 | 51.126 | 10,4 | 50.914 | 9,9 | 59.251 | 11,6 |
| **GUZTIRA** | **475.730** | **100,0** | **473.140** | **100,0** | **497.847** | **100,0** | **492.035** | **100,0** | **512.081** | **100,0** | **509.519** | **100,0** |

ITURRIAK: EUSTAT. Biztanleria eta Etxebizitzari buruzko estatistikak 1981 eta 1991. INE. Biztanleria eta Etxebizitza Errolda, 2001.

Ikasketa-maila kontuan hartuta, 30-64 urte bitarteko gizonen eta emakumeen arteko banaketa desorekatua da eta desoreka hori islatzen du 6.1. grafikoak. Lehen mailako ikasketak eta Oinarrizko Batxilergoa duten emakumeak gizonak baino gehiago dira; Lanbide Heziketaren kasuan, aitzitik, askoz ere gehiago dira gizonak. Goi-mailako ikasketei dagokienez, azkenik, emakume gehiagok dituzte diplomaturak eta gizon gehiagok dituzte lizentziaturak.

**6.1. GRAFIKOA 30-64 urte bitarteko biztanleria, ikasketa-mailaren eta sexuaren arabera, 2001**




ITURRIA: INE. Biztanleria eta Etxebizitza Errolda, 2001.

Adin-tarteei dagokienez, gero eta gehiago dira ikasketarik gabeko pertsonak eta lehen mailako ikasketak dituztenak adinean gora egin ahala. Aitzitik, gero eta gutxiago dira bigarren mailako ikasketak eta goi-mailakoak dituztenak adinean gora egin ahala. Zentzu horretan, esanguratsua da adin-tarte gazteenetan (44 urte arte) goi-mailako ikasketak dituzten pertsonen artean gehiago direla emakumeak; eta kontrakoa gertatzen da adin zaharrenetan, hots, gehiago dira gizonak.

## 6.2. TAULA 30-64 urte bitarteko biztanleria ikasketa-mailaren arabera eta adin-taldeen eta sexuaren arabera, 2001

| | 30-34 URTE | | 35-39 URTE | | 40-44 URTE | | 45-49 URTE | | 50-54 URTE | | 55-59 URTE | | 60-64 URTE | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| GUZTIRA | ABS. | % | ABS. | % | ABS. | % | ABS. | % | ABS. | % | ABS. | % | ABS. | % |
| Analfabetoak | 614 | 0,4 | 669 | 0,4 | 672 | 0,4 | 574 | 0,4 | 763 | 0,5 | 1.070 | 0,8 | 1.595 | 1,6 |
| Ikasketarik gabe | 1.399 | 0,8 | 1.758 | 1,0 | 2.563 | 1,6 | 3.960 | 2,7 | 7.203 | 5,1 | 10.566 | 8,3 | 12.761 | 12,7 |
| Lehen mailakoak | 12.073 | 7,1 | 16.024 | 9,3 | 21.261 | 12,9 | 28.754 | 19,6 | 38.169 | 27,1 | 43.488 | 34,0 | 41.770 | 41,6 |
| Bigarren mailakoak | 106.720 | 62,9 | 107.510 | 62,7 | 103.435 | 62,9 | 89.632 | 61,0 | 77.969 | 55,3 | 60.737 | 47,5 | 37.427 | 37,3 |
| Hirugarren mailakoak | 48.931 | 28,8 | 45.563 | 26,6 | 36.544 | 22,2 | 23.952 | 16,3 | 16.779 | 11,9 | 11.900 | 9,3 | 6.795 | 6,8 |
| **Guztira** | **169.737** | **100,0** | **171.524** | **100,0** | **164.475** | **100,0** | **146.872** | **100,0** | **140.883** | **100,0** | **127.761** | **100,0** | **100.348** | **100,0** |
| EMAKUMEAK | ABS. | % | ABS. | % | ABS. | % | ABS. | % | ABS. | % | ABS. | % | ABS. | % |
| Analfabetoak | 276 | 0,3 | 329 | 0,4 | 353 | 0,4 | 312 | 0,4 | 466 | 0,7 | 680 | 1,1 | 1.071 | 2,1 |
| Ikasketarik gabe | 642 | 0,8 | 857 | 1,0 | 1.427 | 1,7 | 2.233 | 3,0 | 4.140 | 5,9 | 6.091 | 9,4 | 7.155 | 13,9 |
| Lehen mailakoak | 5.045 | 6,1 | 7.544 | 8,8 | 11.218 | 13,5 | 15.874 | 21,5 | 21.703 | 30,7 | 24.684 | 38,2 | 23.387 | 45,4 |
| Bigarren mailakoak | 48.856 | 58,9 | 51.020 | 59,6 | 50.799 | 61,3 | 44.435 | 60,1 | 37.896 | 53,6 | 29.203 | 45,2 | 17.748 | 34,5 |
| Hirugarren mailakoak | 28.107 | 33,9 | 25.803 | 30,2 | 19.071 | 23,0 | 11.084 | 15,0 | 6.448 | 9,1 | 4.004 | 6,2 | 2.120 | 4,1 |
| **Guztira** | **82.926** | **100,0** | **85.553** | **100,0** | **82.868** | **100,0** | **73.938** | **100,0** | **70.653** | **100,0** | **64.662** | **100,0** | **51.481** | **100,0** |
| GIZONAK | ABS. | % | ABS. | % | ABS. | % | ABS. | % | ABS. | % | ABS. | % | ABS. | % |
| Analfabetoak | 338 | 0,4 | 340 | 0,4 | 319 | 0,4 | 262 | 0,4 | 297 | 0,4 | 390 | 0,6 | 524 | 1,1 |
| Ikasketarik gabe | 757 | 0,9 | 901 | 1,0 | 1.136 | 1,4 | 1.727 | 2,4 | 3.063 | 4,4 | 4.475 | 7,1 | 5.606 | 11,5 |
| Lehen mailakoak | 7.028 | 8,1 | 8.480 | 9,9 | 10.043 | 12,3 | 12.880 | 17,7 | 16.466 | 23,4 | 18.804 | 29,8 | 18.383 | 37,6 |
| Bigarren mailakoak | 57.864 | 66,7 | 56.490 | 65,7 | 52.636 | 64,5 | 45.197 | 62,0 | 40.073 | 57,1 | 31.534 | 50,0 | 19.679 | 40,3 |
| Hirugarren mailakoak | 20.824 | 24,0 | 19.760 | 23,0 | 17.473 | 21,4 | 12.868 | 17,6 | 10.331 | 14,7 | 7.896 | 12,5 | 4.675 | 9,6 |
| Guztira | 86.811 | 100,0 | 85.971 | 100,0 | 81.607 | 100,0 | 72.934 | 100,0 | 70.230 | 100,0 | 63.099 | 100,0 | 48.867 | 100,0 |

ITURRIA: INE. Biztanleria eta Etxebizitza Errolda, 2001.

*— 30-44 urte bitarteko pertsonen artean, emakumeek lortu dituzte indizerik altuenak goi-mailako ikasketei dagokienez.*

*— 44 urtetik gorako pertsonen artean gizonek erregistratu dituzte indizerik altuenak goi-mailako ikasketei dagokienez.*

EAEn bizi diren 30-64 urte bitarteko biztanle atzerritarren hezkuntza-mailari buruzko datuei erreparatuz, analfabeto asko daudela ikus daiteke, batez ere 60-64 urte bitarteko emakumeen artean (%8,9). Ikasketarik gabeko pertsona heldu atzerritarren portzentajeak eta biztanleria oro har aztertzean lortutakoak antzekoak dira, %12 inguru, hain zuzen. Bigarren mailako ikasketak dituzten pertsonen kategorian aurkituko dugu pertsona gehien (%38), bi sexuen kasuan antzeko portzentajeak erregistratu direlarik. Lehen mailako ikasketei eta unibertsitate-mailakoei erreparatuz, bestalde, datuak aldatu egiten dira sexu batetik bestera: emakumeen %25,7k eta gizonen %17,3k dituzte lehen mailako ikasketak, eta emakumeen %14,8k eta gizonen %27,4k dituzte hirugarren mailako ikasketak. Azken horri dagokionez, bereziki azpimarragarria da unibertsitateko ikasketak dituzten pertsonen portzentajeak gainditu egiten duela biztanleria oro har aztertzean lortutakoa (%6,8); gizonen eta emakumeen arteko aldea 12 puntukoa da.



## 6.3. TAULA 30-64 urte bitarteko biztanleria atzerritarra ikasketa-mailaren, adinaren eta sexuaren arabera, 2001

| | 30-34 URTE | | 35-39 URTE | | 40-44 URTE | | 45-49 URTE | | 50-54 URTE | | 55-59 URTE | | 60-64 URTE | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| GUZTIRA | ABS. | % | ABS. | % | ABS. | % | ABS. | % | ABS. | % | ABS. | % | ABS. | % |
| Analfabetoak | 53 | 1,1 | 64 | 1,7 | 88 | 3,2 | 55 | 2,9 | 56 | 5,1 | 43 | 6,2 | 32 | 7,2 |
| Ikasketarik gabe | 264 | 5,6 | 263 | 6,9 | 230 | 8,3 | 168 | 8,7 | 97 | 8,9 | 77 | 11,0 | 54 | 12,1 |
| Lehen mailakoak | 809 | 17,3 | 757 | 19,9 | 599 | 21,5 | 463 | 24,0 | 238 | 21,8 | 164 | 23,5 | 97 | 21,8 |
| Bigarren mailakoak | 2.551 | 54,5 | 1.773 | 46,7 | 1.256 | 45,2 | 839 | 43,5 | 446 | 40,8 | 256 | 36,7 | 170 | 38,2 |
| Hirugarren mailakoak | 1.007 | 21,5 | 943 | 24,8 | 607 | 21,8 | 403 | 20,9 | 256 | 23,4 | 157 | 22,5 | 92 | 20,7 |
| **Guztira** | **4.684** | **100,0** | **3.800** | **100,0** | **2.780** | **100,0** | **1.928** | **100,0** | **1.093** | **100,0** | **697** | **100,0** | **445** | **100,0** |
| EMAKUMEAK | ABS. | % | ABS. | % | ABS. | % | ABS. | % | ABS. | % | ABS. | % | ABS. | % |
| Analfabetoak | 22 | 0,9 | 30 | 1,6 | 50 | 3,5 | 29 | 2,9 | 33 | 5,5 | 27 | 7,5 | 21 | 8,9 |
| Ikasketarik gabe | 118 | 5,0 | 126 | 6,6 | 129 | 9,1 | 74 | 7,3 | 58 | 9,7 | 41 | 11,4 | 28 | 11,8 |
| Lehen mailakoak | 370 | 15,8 | 392 | 20,4 | 318 | 22,3 | 250 | 24,8 | 124 | 20,8 | 102 | 28,4 | 61 | 25,7 |
| Bigarren mailakoak | 1.328 | 56,8 | 921 | 48,0 | 652 | 45,8 | 446 | 44,3 | 272 | 45,6 | 132 | 36,8 | 92 | 38,8 |
| Hirugarren mailakoak | 500 | 21,4 | 449 | 23,4 | 276 | 19,4 | 208 | 20,7 | 110 | 18,4 | 57 | 15,9 | 35 | 14,8 |
| **Guztira** | **2.338** | **100,0** | **1.918** | **100,0** | **1.425** | **100,0** | **1.007** | **100,0** | **597** | **100,0** | **359** | **100,0** | **237** | **100,0** |
| GIZONAK | ABS. | % | ABS. | % | ABS. | % | ABS. | % | ABS. | % | ABS. | % | ABS. | % |
| Analfabetoak | 31 | 1,3 | 34 | 1,8 | 38 | 2,8 | 26 | 2,8 | 23 | 4,6 | 16 | 4,7 | 11 | 5,3 |
| Ikasketarik gabe | 146 | 6,2 | 137 | 7,3 | 101 | 7,5 | 94 | 10,2 | 39 | 7,9 | 36 | 10,7 | 26 | 12,5 |
| Lehen mailakoak | 439 | 18,7 | 365 | 19,4 | 281 | 20,7 | 213 | 23,1 | 114 | 23,0 | 62 | 18,3 | 36 | 17,3 |
| Bigarren mailakoak | 1.223 | 52,1 | 852 | 45,3 | 604 | 44,6 | 393 | 42,7 | 174 | 35,1 | 124 | 36,7 | 78 | 37,5 |
| Hirugarren mailakoak | 507 | 21,6 | 494 | 26,2 | 331 | 24,4 | 195 | 21,2 | 146 | 29,4 | 100 | 29,6 | 57 | 27,4 |
| **Guztira** | **2.346** | **100,0** | **1.882** | **100,0** | **1.355** | **100,0** | **921** | **100,0** | **496** | **100,0** | **338** | **100,0** | **208** | **100,0** |

ITURRIA: INE. Biztanleria eta Etxebizitza Errolda, 2001.

Normalean, pertsona helduek amaituta dute hezkuntza-sistemako prestakuntza arautua. Salbuespen moduan Helduen Hezkuntza Iraunkorra (HHI) azpimarratu behar da, hain zuzen, haurtzaroan zein gaztaroan, edozein arrazoi dela medio, oinarrizko ikasketak eskuratzeko aukerarik izan ez zuten helduei prestakuntza arautua eskaintzen dien hezkuntza. EAEn HHIren bitartez Eskola Graduatua lortzeko matrikulatutako pertsonen bilakaerari erreparatuz, azken urteetan matrikula-kopurua 11.878 izatetik

18.372 izatera pasa dela ikus daiteke. Bilakaerari erreparatuz, era berean, gehiago dira matrikula egin duten emakumeak (%61) gizonak baino, 1999/2000 ikasturtean izan ezik (%34,4 bakarrik izan ziren matrikulatutako emakumeak).

**6.4. TAULA Helduen Hezkuntza Iraunkorreko ikasleak (HHI)* aldi eta sexuaren arabera**

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % | ABS. | % |
| 1994/1995 | 11.878 | 7.255 | 61,1 | 4.623 | 38,9 |
| 1995/1996 | 11.401 | 7.122 | 62,5 | 4.279 | 37,5 |
| 1996/1997 | 10.995 | 6.934 | 63,1 | 4.061 | 36,9 |
| 1997/1998 | 10.037 | 6.545 | 65,2 | 3.492 | 34,8 |
| 1998/1999 | 10.854 | 7.416 | 68,3 | 3.438 | 31,7 |
| 1999/2000 | 11.322 | 3.890 | 34,4 | 7.432 | 65,6 |
| 2000/2001 | 13.508 | 8.483 | 62,8 | 5.025 | 37,2 |
| 2001/2002 | 16.543 | 10.287 | 62,2 | 6.256 | 37,8 |
| 2002/2003 | 18.372 | 11.529 | 62,8 | 6.843 | 37,2 |

* Eskola-graduatua lortzeko ikasketak egiten dituzten ikasleak bakarrik.

ITURRIA: EUSTAT. Irakaskuntzaren estatistika.

*Gehiengoa osatzen dute emakumeek HHIko ikasleen artean.*

Betidanik izan dute agerpen handia emakumeek irakaskuntza bezalako esparru profesionalean. Eta EAEko irakasleen osaerari erreparatuz baieztatzen da esandakoa. Horrela, erregimen orokorreko irakaskuntzei dagokienez, irakasleen guztizkoaren %64,2 emakumeak dira. Emakumeen agerpena nabarmenki ugaritzen da haur-hezkuntzan eta lehen hezkuntzan (%93,2 eta %79,5 hurrenez hurren). Bigarren hezkuntzari erreparatuz, bestalde, nahiko banaketa orekatua ikus daiteke sexuen arabera; lanbide-heziketan eta unibertsitatean, aitzitik, gora egiten dute irakasleak diren gizonen portzentajeek: bietan %63 baino gehiago dira.

— *Gehiengoa dira emakumeak haur-hezkuntzako eta lehen hezkuntzako irakasleen artean.*

— *Gehiengoa dira gizonak unibertsitateko eta lanbide-heziketako irakasleen artean.*

## 6.5. TAULA Irakasleak, maila eta sexuaren arabera. 2002/2003 ikasturtea

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | | GIZONAK | |
|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | ABS. | % | ABS. | % |
| **Erregimen orokorreko irakaskuntzak** | **34.487** | **22.147** | **64,2** | **12.340** | **35,8** |
| Unibertsitatearen aurreko mailak | 29.364 | 20.337 | 69,3 | 9.027 | 30,7 |
| Haur-hezkuntza eta lehen hezkuntza (1) | 13.064 | 11.041 | 84,5 | 2.023 | 15,5 |
| Haur-hezkuntza | 5.159 | 4.807 | 93,2 | 352 | 6,8 |
| Lehen hezkuntza | 9.041 | 7.184 | 79,5 | 1.857 | 20,5 |
| Helduen Hezkuntza Iraunkorra | 704 | 484 | 68,8 | 220 | 31,3 |
| Hezkuntza berezia | 493 | 393 | 79,7 | 100 | 20,3 |
| Bigarren hezkuntza (2) | 15.148 | 8.453 | 55,8 | 6.695 | 44,2 |
| DBH | 10.046 | 6.307 | 62,8 | 3.739 | 37,2 |
| Batxilergoa | 5.618 | 3.155 | 56,2 | 2.463 | 43,8 |
| Lanbide-heziketa | 3.527 | 1.300 | 36,9 | 2.227 | 63,1 |
| Unibertsitateko ikasketak | 5.123 | 1.810 | 35,3 | 3.313 | 64,7 |
| **Erregimen bereziko irakaskuntzak** | **945** | **541** | **57,2** | **404** | **42,8** |
| Arteak eta ofizioak | 69 | 29 | 42,0 | 40 | 58,0 |
| Hizkuntzak | 248 | 190 | 76,6 | 58 | 23,4 |
| Musika | 619 | 315 | 50,9 | 304 | 49,1 |
| Dantza | 9 | 7 | 77,8 | 2 | 22,2 |

(1) Haur-hezkuntza eta lehen hezkuntza: Haur Hezkuntzan eta/edo Lehen Hezkuntzan lan egiten duten irakasleak.

(2) Bigarren hezkuntza: DBHn eta/edo Batxilergoan eta/edo Lanbide-heziketan lan egiten duten irakasleak.

ITURRIA: EUSTAT. Irakaskuntzaren estatistika.

Pertsona helduek osatzen duten taldean euskararen ezagutzari buruz lortutako datuei erreparatuz, ehuneko altuenak bi muturretan lortu direla ikus daiteke eta antzekoak dira, gainera, emakumeen eta gizonen kasuan: pertsona helduen %45ek ulertzen dute eta hitz egiten, irakurtzen eta idazten dakite, eta %43k ez dute ulertzen. Adin-taldeen arabera, urteetan gora egin ahala gero eta gutxiago dira euskararen

ezagutza-maila handia duten pertsonak; edozein modutan, emakume gehiago aurkituko ditugu maila guztietan. Bereziki azpimarragarria da 30-39 urte bitarteko adintartea; kasu horretan, emakumeen %54k ezagutza-maila altuagoa dute, gizonak %46,1 diren bitartean. Eta alderantziz: zenbat eta urte gehiago, orduan eta heldu gutxiagok ezagutzen dute euskara; ildo horretan, 50-64 urte bitarteko pertsonen artean erregistratu dira portzentajerik altuenak (emakumeen %64,3k eta gizonen %63,6k ez dute euskara ezagutzen).

## 6.6. TAULA 30-64 urte bitarteko biztanleria euskararen ezagutza-mailaren arabera, 2001

| | GUZTIRA (adin guztiak) | | 30-39 | | 40-49 | | 50-64 | | 30-64 | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | ABS. | % | ABS. | % | ABS. | % | ABS. | % | ABS. | % |
| EMAKUMEAK | | | | | | | | | | |
| Ez du ulertzen | 455.483 | 43,2 | 61.290 | 36,4 | 82.654 | 52,7 | 120.125 | 64,3 | 264.069 | 51,6 |
| Ulertu bakarrik | 36.827 | 3,5 | 7.389 | 4,4 | 7.342 | 4,7 | 7.264 | 3,9 | 21.995 | 4,3 |
| Ulertzen du eta irakurtzen daki | 8.364 | 0,8 | 2.737 | 1,6 | 1.802 | 1,1 | 1.152 | 0,6 | 5.691 | 1,1 |
| Ulertzen du eta hitz egiten daki | 47.285 | 4,5 | 4.164 | 2,5 | 4.617 | 2,9 | 5.550 | 3,0 | 14.331 | 2,8 |
| Ulertzen du eta hitz egiten eta irakurtzen daki, baina ez daki idazten | 14.949 | 1,4 | 1.989 | 1,2 | 2.676 | 1,7 | 3.396 | 1,8 | 8.061 | 1,6 |
| Ulertzen du eta hitz egiten, irakurtzen eta idazten daki | 490.787 | 46,6 | 90.910 | 54,0 | 57.715 | 36,8 | 49.309 | 26,4 | 197.934 | 38,7 |
| **Guztira** | **1.053.695** | **100,0** | **168.479** | **100,0** | **156.806** | **100,0** | **186.796** | **100,0** | **512.081** | **100,0** |
| GIZONAK | | | | | | | | | | |
| Ez du ulertzen | 441.121 | 43,6 | 73.489 | 42,5 | 84.650 | 54,8 | 115.883 | 63,6 | 274.022 | 53,8 |
| Ulertu bakarrik | 42.641 | 4,2 | 9.073 | 5,3 | 8.315 | 5,4 | 8.574 | 4,7 | 25.962 | 5,1 |
| Ulertzen du eta irakurtzen daki | 9.801 | 1,0 | 3.077 | 1,8 | 1.884 | 1,2 | 1.560 | 0,9 | 6.521 | 1,3 |
| Ulertzen du eta hitz egiten daki | 47.134 | 4,7 | 4.909 | 2,8 | 5.180 | 3,4 | 5.677 | 3,1 | 15.766 | 3,1 |
| Ulertzen du eta hitz egiten eta irakurtzen daki, baina ez daki idazten | 14.878 | 1,5 | 2.559 | 1,5 | 3.083 | 2,0 | 3.534 | 1,9 | 9.176 | 1,8 |
| Ulertzen du eta hitz egiten, irakurtzen eta idazten daki | 456.206 | 45,1 | 79.675 | 46,1 | 51.429 | 33,3 | 46.968 | 25,8 | 178.072 | 34,9 |
| **Guztira** | **1.011.781** | **100,0** | **172.782** | **100,0** | **154.541** | **100,0** | **182.196** | **100,0** | **509.519** | **100,0** |

ITURRIA: INE. Biztanleria eta Etxebizitza Errolda, 2001.

# 7
# AISIALDIA ETA GIZARTE BIZITZA

Denboraren erabilera funtsezko osagai bat da pertsona ororen bizitzan. Azken finean, eguneroko jarduerak garatzeko denborari ematen diogun banaketak edo erabilerak (atseden hartzeko, etxeko lanak egiteko, ikasteko, lan egiteko, harremanetarako, aisialdirako, eta abar) islatzen du gure bizimodua; eta horrexegatik, hain zuzen, gizarteko desberdintasunak islatzen dituen adierazle bikaina da, batez ere emakumeen eta gizonen artean izaten diren desberdintasunak. Hainbat azterlan egin dira denboraren erabilera aztertzeko beharra azpimarratzeko, eta EAEri dagokionez, EUSTATek Denbora Aurrekontuen Inkesta 2003 (DAI-2003) landu zuen. Azterketa horretan eguneroko jarduerak zortzi multzo nagusitan bereizi dira; alde batetik, multzo bakoitzak batez beste hartzen dituen ordu eta minutuak hartu dira kontuan (batez besteko denbora soziala) eta, bestetik, jarduera-mota hori garatzen dutela dioten pertsonek batez beste eskaintzen dioten denbora (parte-hartzaile bakoitzaren batez besteko denbora). Aisialdiak hartzen ditu 2 multzo nagusi (aisialdi aktiboa eta aisialdi pasiboa) eta harremanetarako denborak hartzen du beste multzo bat. Multzo bakoitzean hainbat jarduera barne hartzen dira, jarraian ikusiko dugunez. Inkesta honetako datuak aztertzeko kontuan hartu diren adin-taldeetatik abiatuta, 34-59 urte bitarteko pertsona helduen multzoa aztertuko da oraingoan.

Lehenik eta behin, aisialdi aktiboari erreparatuz, gizonek, oro har, denbora gehiago dute mota horretako jardueretarako; bi sexuen arteko tartea gutxitu egiten da lanegunetan (ordubete inguru bi sexuen kasuan), baina nabarmen geratzen da asteburua iristean, batez ere igandeetan: 2:08 gizonek eta 1:34 emakumeek. Parte-hartzaileei bakarrik erreparatuz, hots, aisialdi aktiboa dutela aitortu duten pertsonak bakarrik kontuan hartuz, areagotu egiten da bi sexuen arteko tartea: gizonen batez bestekoa 2:16 da eta emakumeena 1:53. Kontuan hartu behar da antzeko emaitzak lortu direla 34-59 urte bitarteko biztanleen artean eta biztanleriaren guztizkoaren artean.

**7.1. TAULA** **Biztanleriaren guztizkoak eta biztanle parte-hartzaileek aisialdi aktiborako erabiltzen duten batez besteko ordu-kopurua, adinaren arabera. 2002-3**

| | GUZTIRA | | | 35-59 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK |
| BATEZ BESTEKO DENBORA SOZIALA | | | | | | |
| **Guztira** | **1:17** | **1:27** | **1:08** | **1:10** | **1:16** | **1:04** |
| Astelehenetik ostegunera | 1:03 | 1:07 | 0:59 | 0:55 | 0:55 | 0:56 |
| Ostirala | 1:14 | 1:27 | 1:03 | 0:58 | 1:10 | 0:46 |
| Larunbata | 1:44 | 2:05 | 1:24 | 1:40 | 1:57 | 1:24 |
| Igandea | 1:49 | 2:09 | 1:30 | 1:51 | 2:08 | 1:34 |
| PARTE HARTZAILEEN BATEZ BESTEKO DENBORA | | | | | | |
| **Guztira** | **2:09** | **2:22** | **1:55** | **2:04** | **2:16** | **1:53** |
| Astelehenetik ostegunera | 1:55 | 2:03 | 1:47 | 1:48 | 1:52 | 1:45 |
| Ostirala | 2:05 | 2:22 | 1:49 | 1:49 | 2:05 | 1:31 |
| Larunbata | 2:34 | 2:55 | 2:11 | 2:35 | 2:55 | 2:15 |
| Igandea | 2:31 | 2:47 | 2:14 | 2:35 | 2:52 | 2:15 |

ITURRIA: EUSTAT. Denbora aurrekontuen inkesta, 2003.

Aisialdi aktiboko jardueren baitan kirolak eta txangoak eta ibilaldiak aurkituko ditugu, bai eta ordenagailu, internet eta bestelako ekipamendu informatikoren erabilera ere. Kirolari eskaintzen zaion denborari dagokionez, gizonek denbora gehiago hartzen dute kirola egiteko, bai biztanleriaren guztizkoaren kasuan, bai biztanle partehartzaileen kasuan. Azken kategoria horretan, emakumeek egunean 1:05 minutu erabiltzen dituzte, batez beste, kirola egiteko eta gizonek 1:35 egunero. Txango eta ibilaldiei dagokienez, kirolari baino denbora gehiago eskaintzen diote emakumeek, baina kasu honetan ere denbora gehiago dute gizonek: emakumeek 1:53 minutu erabiltzen dituzte, batez beste, txangoak eta ibilaldiak egiteko eta gizonek, berriz, 2:12 minutu. Larunbatetan eta igandetan ere gizonek 40 minutu inguru gehiago dituzte horrelakoak egiteko.

— *Emakume helduek ordu bat eta bost minutu erabiltzen dituzte kirola egiteko.*
— *Adin berdineko gizonek ordu bat eta 35 minutu erabiltzen dituzte, batez beste, kirola egiteko.*

## 7.2. TAULA Biztanleriak guztira eta biztanle parte-hartzaileek kirola, txangoak, ehiza eta ibilaldiak egiteko erabilitako batez besteko ordu-kopurua, adinaren arabera. 2002-3

| | | GUZTIRA | | | 35-59 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK |
| BATEZ BESTEKO DENBORA SOZIALA | | | | | | | |
| Kirola egitea | **Guztira** | **0:10** | **0:13** | **0:07** | **0:10** | **0:13** | **0:07** |
| | Astelehenetik--ostegunera | 0:10 | 0:12 | 0:08 | 0:12 | 0:14 | 0:09 |
| | Ostirala | 0:11 | 0:17 | 0:06 | 0:09 | 0:14 | 0:04 |
| | Larunbata | 0:10 | 0:16 | 0:05 | 0:09 | 0:13 | 0:05 |
| | Igandea | 0:08 | 0:13 | 0:03 | 0:08 | 0:10 | 0:05 |
| Txangoak, ehiza, ibilaldiak | **Guztira** | **1:00** | **1:04** | **0:57** | **0:56** | **0:56** | **0:55** |
| | Astelehenetik--ostegunera | 0:46 | 0:46 | 0:46 | 0:39 | 0:34 | 0:45 |
| | Ostirala | 0:56 | 1:01 | 0:51 | 0:44 | 0:49 | 0:40 |
| | Larunbata | 1:27 | 1:38 | 1:17 | 1:28 | 1:37 | 1:19 |
| | Igandea | 1:35 | 1:47 | 1:24 | 1:40 | 1:51 | 1:27 |
| PARTE HARTZAILEEN BATEZ BESTEKO DENBORA | | | | | | | |
| Kirola egitea | **Guztira** | **1:24** | **1:37** | **1:06** | **1:22** | **1:35** | **1:05** |
| | Astelehenetik--ostegunera | 1:17 | 1:29 | 1:04 | 1:16 | 1:28 | 1:02 |
| | Ostirala | 1:27 | 1:36 | 1:10 | 1:23 | 1:30 | 1:07 |
| | Larunbata | 1:42 | 1:56 | 1:14 | 1:53 | 2:19 | 1:17 |
| | Igandea | 1:41 | 1:54 | 1:08 | 1:41 | 1:54 | 1:22 |
| Txangoak, ehiza, ibilaldiak | **Guztira** | **2:06** | **2:19** | **1:54** | **2:02** | **2:12** | **1:53** |
| | Astelehenetik--ostegunera | 1:54 | 2:04 | 1:46 | 1:46 | 1:48 | 1:45 |
| | Ostirala | 1:58 | 2:12 | 1:45 | 1:40 | 1:50 | 1:30 |
| | Larunbata | 2:26 | 2:46 | 2:09 | 2:27 | 2:41 | 2:13 |
| | Igandea | 2:23 | 2:36 | 2:10 | 2:28 | 2:43 | 2:12 |

ITURRIA: EUSTAT. Denbora Aurrekontuen inkesta, 2003.

Ordenagailuaren erabilerari dagokionez, 35-59 urte bitarteko pertsona parte-hartzaileen artean galdetuta (jarduera horretan denbora igarotzen duten pertsonak), egunean 1:15 ordu erabiltzen dute ordenagailua batez beste. Ostiraletan eta larunbatetan denbora gehiago erabiltzen da lanegunetan baino; hortaz, ordenagailuaren erabilerak biztanleria helduaren sektore jakin batzuen aisialdiaren zati handi bat hartzen duela esan daiteke. Hala ere, ezin ditugu ahaztu sexuen arabera lortutako datuak; horrela, emakumeen batez besteko denbora 39 minutu da eta 1:24 gizonena. Interneten erabilerari dagokionez, bestalde, antzeko datuak lortu dira, denbora gehiago erabiltzen dute gizonek.

**7.3. TAULA Biztanleriak guztira eta biztanle parte-hartzaileek ordenagailua erabiltzen eta interneten igarotzen duten batez besteko ordu-kopurua, adinaren arabera. 2002-3**



| | | GUZTIRA | | | 35-59 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK |
| BATEZ BESTEKO DENBORA SOZIALA | | | | | | | |
| Ordenagailua erabiltzea | **Guztira** | **0:03** | **0:04** | **0:02** | **0:02** | **0:04** | **0:00** |
| | Astelehenetik--ostegunera | 0:02 | 0:03 | 0:02 | 0:02 | 0:03 | 0:00 |
| | Ostirala | 0:03 | 0:05 | 0:02 | 0:03 | 0:06 | 0:01 |
| | Larunbata | 0:03 | 0:05 | 0:01 | 0:02 | 0:05 | 0:00 |
| | Igandea | 0:02 | 0:03 | 0:02 | 0:01 | 0:01 | 0:00 |
| Internet | **Guztira** | **0:04** | **0:06** | **0:02** | **0:02** | **0:03** | **0:01** |
| | Astelehenetik--ostegunera | 0:04 | 0:06 | 0:03 | 0:02 | 0:03 | 0:01 |
| | Ostirala | 0:04 | 0:05 | 0:03 | 0:01 | 0:02 | 0:01 |
| | Larunbata | 0:04 | 0:05 | 0:02 | 0:01 | 0:02 | 0:01 |
| | Igandea | 0:03 | 0:06 | 0:01 | 0:03 | 0:05 | 0:01 |
| PARTE HARTZAILEEN BATEZ BESTEKO DENBORA | | | | | | | |
| Ordenagailua erabiltzea | **Guztira** | **1:18** | **1:17** | **1:20** | **1:15** | **1:24** | **0:39** |
| | Astelehenetik--ostegunera | 1:11 | 1:08 | 1:18 | 1:01 | 1:09 | 0:30 |

**7.3. TAULA** **Biztanleriak guztira eta biztanle parte-hartzaileek ordenagailua erabiltzen eta interneten igarotzen duten batez besteko ordu-kopurua, adinaren arabera. 2002-3 (jarraipena)**

| | | GUZTIRA | | | 35-59 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK |
| | Ostirala | 1:45 | 1:43 | 1:50 | 1:53 | 2:07 | 1:04 |
| | Larunbata | 1:32 | 1:37 | 1:08 | 2:08 | 2:08 | 0:00 |
| | Igandea | 1:07 | 1:05 | 1:11 | 0:55 | 0:49 | 1:30 |
| Internet | **Guztira** | **1:24** | **1:28** | **1:17** | **1:11** | **1:33** | **0:42** |
| | Astelehenetik--ostegunera | 1:26 | 1:26 | 1:27 | 1:10 | 1:41 | 0:38 |
| | Ostirala | 1:14 | 1:28 | 0:57 | 0:51 | 0:55 | 0:48 |
| | Larunbata | 1:38 | 1:43 | 1:27 | 1:11 | 1:21 | 0:50 |
| | Igandea | 1:17 | 1:26 | 0:55 | 1:27 | 1:41 | 0:56 |

ITURRIA: EUSTAT. Denbora Aurrekontuen inkesta, 2003.

*Emakume helduek 39 minutu igarotzen dituzte, batez beste, ordenagailua erabiltzen. 35-59 urte bitarteko gizonek ordu bat eta 24 minutu eskaintzen diote ordenagailua erabiltzeari.*

Aisialdi pasiboaren baitan sartzen da egunero irakurtzeko, telebista ikusteko, irratia entzuteko, ikuskizunetara bertaratzeko eta zaletasun artistikoez gozatzeko erabiltzen den denbora, bai eta inolako jarduerarik garatzen ez den denbora ere. Biztanleria bere osotasunean hartuta, EAEko biztanle helduek egunero 2:20 ordu dituzte aisialdi pasiborako eta batez besteko hori altuagoa da gizonen kasuan (2:27) emakumeen kasuan baino (2:13). Espero zitekeenaren arabera, igandetan erregistratu ditu indizerik altuenak aisialdi pasiboak eta, oraingoan ere, baxuagoa izan da emakumeen kasuan erregistratu dena (2:44) gizonen kasuan erregistratu dena baino (3:31).

**7.4. TAULA** **Biztanleriaren guztizkoak eta biztanle parte-hartzaileek aisialdi pasiboan eta zaletasunak garatzeko igarotzen duten batez besteko ordu-kopurua, adinaren arabera. 2002-3**

| | GUZTIRA | | | 35-59 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK |
| BATEZ BESTEKO DENBORA SOZIALA | | | | | | |
| **Guztira** | **2:39** | **2:46** | **2:33** | **2:20** | **2:27** | **2:13** |
| Astelehenetik-ostegunera | 2:27 | 2:30 | 2:25 | 2:05 | 2:08 | 2:02 |
| Ostirala | 2:29 | 2:33 | 2:26 | 2:09 | 2:13 | 2:04 |
| Larunbata | 2:56 | 3:12 | 2:42 | 2:44 | 2:55 | 2:33 |
| Igandea | 3:21 | 3:41 | 3:03 | 3:08 | 3:31 | 2:44 |
| PARTE HARTZAILEEN BATEZ BESTEKO DENBORA | | | | | | |
| **Guztira** | **2:54** | **3:02** | **2:47** | **2:33** | **2:42** | **2:25** |
| Astelehenetik-ostegunera | 2:41 | 2:45 | 2:37 | 2:17 | 2:23 | 2:12 |
| Ostirala | 2:48 | 2:52 | 2:44 | 2:25 | 2:29 | 2:22 |
| Larunbata | 3:11 | 3:27 | 2:55 | 2:56 | 3:07 | 2:46 |
| Igandea | 3:36 | 3:51 | 3:22 | 3:22 | 3:44 | 2:58 |

ITURRIA: EUSTAT. Denbora Aurrekontuen inkesta, 2003.

[ *Gizonek emakumeek baino denbora gehiago dute aisialdi pasiborako.* ]

Aisialdi pasiboaren baitan barne hartu diren jarduerei erreparatuz, irakurketa, telebista ikustea eta irratia entzutea dira egunero garatzen diren jardueren artetik gehien aipatzen direnak, eta 35-59 urte bitarteko biztanleen artean batez beste 1:56 ordu erabiltzen dira egunero horretarako. Mota horretako jarduerarik garatzen ez dutenak kanpo utzita, parte-hartzaileen batez besteko denbora 2:20 da gizonen kasuan eta 2:08 emakumeenean. Asteburua iristean denbora gehiago hartzen du aisialdi pa-

siboak, batez ere gizonen kasuan. Horrela, igandetan 3 ordu ematen dituzte gizonek mota horretako jarduerak garatzen eta 2:38 ordu, berriz, emakumeek.

**7.5. TAULA Biztanleriaren guztizkoak eta biztanle parte-hartzaileek irakurtzen, telebista ikusten eta irratia entzuten egunean ematen duten batez besteko ordu-kopurua, adinaren arabera. 2002-3**



| | GUZTIRA | | | 35-59 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK |
| BATEZ BESTEKO DENBORA SOZIALA | | | | | | |
| **Guztira** | **2:05** | **2:11** | **2:00** | **1:52** | **1:56** | **1:48** |
| Astelehenetik-ostegunera | 1:59 | 2:01 | 1:56 | 1:42 | 1:42 | 1:42 |
| Ostirala | 1:56 | 1:59 | 1:53 | 1:40 | 1:45 | 1:35 |
| Larunbata | 2:10 | 2:21 | 2:00 | 2:00 | 2:09 | 1:50 |
| Igandea | 2:35 | 2:51 | 2:21 | 2:36 | 2:52 | 2:19 |
| PARTE HARTZAILEEN BATEZ BESTEKO DENBORA | | | | | | |
| **Guztira** | **2:28** | **2:34** | **2:22** | **2:14** | **2:20** | **2:08** |
| Astelehenetik-ostegunera | 2:20 | 2:24 | 2:16 | 2:02 | 2:05 | 2:00 |
| Ostirala | 2:24 | 2:27 | 2:21 | 2:08 | 2:12 | 2:03 |
| Larunbata | 2:35 | 2:46 | 2:24 | 2:24 | 2:34 | 2:14 |
| Igandea | 2:58 | 3:08 | 2:48 | 2:53 | 3:08 | 2:38 |

ITURRIA: EUSTAT. Denbora Aurrekontuen inkesta, 2003.

Berariazko jarduerarik garatzen ez den denbora adierazle interesgarria da, izan ere, pertsonek egunero erabilera zehatzik gabe dituzten minutuak adierazten ditu. Kasu honetan, biztanleriak lortutako batez bestekoek ez dute sexuen araberako desberdintasun handirik islatu, nahiz eta pertsona parte-hartzaileen kategorian ikus daitekeen gizonek gero eta denbora gehiago dutela "ezer ez egin gabe" egoteko.

**7.6. TAULA Biztanleriaren guztizkoak eta biztanle parte-hartzaileek jarduerarik garatu gabe egondako batez besteko ordu-kopurua, adinaren arabera. 2002-3**

| | GUZTIRA | | | 35-59 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK |
| BATEZ BESTEKO DENBORA SOZIALA | | | | | | |
| **Guztira** | **0:19** | **0:16** | **0:21** | **0:17** | **0:17** | **0:16** |
| Astelehenetik-ostegunera | 0:19 | 0:15 | 0:22 | 0:17 | 0:17 | 0:17 |
| Ostirala | 0:20 | 0:18 | 0:21 | 0:18 | 0:18 | 0:18 |
| Larunbata | 0:19 | 0:19 | 0:20 | 0:19 | 0:18 | 0:20 |
| Igandea | 0:19 | 0:17 | 0:20 | 0:12 | 0:15 | 0:10 |
| PARTE HARTZAILEEN BATEZ BESTEKO DENBORA | | | | | | |
| **Guztira** | **1:11** | **1:05** | **1:17** | **1:05** | **1:10** | **1:00** |
| Astelehenetik-ostegunera | 1:09 | 0:58 | 1:19 | 1:05 | 1:10 | 1:01 |
| Ostirala | 1:09 | 1:12 | 1:07 | 1:02 | 1:07 | 0:57 |
| Larunbata | 1:14 | 1:16 | 1:13 | 1:09 | 1:13 | 1:05 |
| Igandea | 1:22 | 1:20 | 1:23 | 1:00 | 1:07 | 0:53 |

ITURRIA: EUSTAT. Denbora Aurrekontuen inkesta, 2003.

Aisialdi pasiboaren baitan, halaber, ikuskizunak, jolasak eta zaletasun artistikoak sartzen dira. Parte-hartzaileen batez besteko denbora erreferentzia moduan hartuta, gizonek denbora gehiago dute kasu guztietan: ikuskizunei dagokienez, gizonek batez beste 2:08 ordu dituzte ikuskizunak ikusteko eta emakumeek 1:50 (multzo honetan sailkatzen dira, era berean, museoak, antzerkia, zinema, eta abar, sarrerak erosteko edo sartzeko itxaron behar den denbora); jolasei dagokienez, gizonek batez beste 2:08 ordu erabiltzen dituzte eta emakumeek 1:19, eta zaletasun artistikoei dagokienez, amaitzeko, gizonek 1:47 ordu dituzte egunean eta emakumeek 1:30. Salbuespen bat azpimarratu behar da: igandetan eta astelehenetik ostegunera emakumeek den-

bora gehiago eskaintzen diete beren zaletasun artistikoei: lanegunetan 3 ordu batez beste eta gizonek, berriz, 1:47.

**7.7. TAULA Biztanleriaren guztizkoak eta biztanle parte-hartzaileek ikuskizun, jolas eta zaletasunetan igarotako batez besteko ordu-kopurua, adinaren arabera. 2002-3**

| | | GUZTIRA | | | 35-59 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK |
| BATEZ BESTEKO DENBORA SOZIALA | | | | | | | |
| Ikuskizunak | **Guztira** | **0:05** | **0:06** | **0:05** | **0:05** | **0:05** | **0:05** |
| | Astelehenetik--ostegunera | 0:01 | 0:01 | 0:01 | 0:02 | 0:01 | 0:02 |
| | Ostirala | 0:04 | 0:04 | 0:04 | 0:03 | 0:03 | 0:03 |
| | Larunbata | 0:14 | 0:15 | 0:12 | 0:16 | 0:18 | 0:14 |
| | Igandea | 0:14 | 0:15 | 0:12 | 0:10 | 0:12 | 0:08 |
| Jolasak | **Guztira** | **0:08** | **0:10** | **0:05** | **0:05** | **0:07** | **0:03** |
| | Astelehenetik--ostegunera | 0:06 | 0:09 | 0:04 | 0:03 | 0:06 | 0:01 |
| | Ostirala | 0:07 | 0:09 | 0:05 | 0:05 | 0:06 | 0:04 |
| | Larunbata | 0:10 | 0:13 | 0:08 | 0:07 | 0:06 | 0:07 |
| | Igandea | 0:11 | 0:15 | 0:08 | 0:09 | 0:12 | 0:06 |
| Zaletasun artistikoak eta beste hainbat | **Guztira** | **0:02** | **0:03** | **0:01** | **0:02** | **0:02** | **0:01** |
| | Astelehenetik--ostegunera | 0:02 | 0:03 | 0:01 | 0:01 | 0:02 | 0:00 |
| | Ostirala | 0:02 | 0:02 | 0:02 | 0:02 | 0:02 | 0:03 |
| | Larunbata | 0:03 | 0:04 | 0:02 | 0:02 | 0:02 | 0:02 |
| | Igandea | 0:03 | 0:03 | 0:02 | 0:01 | 0:01 | 0:01 |
| PARTE HARTZAILEEN BATEZ BESTEKO DENBORA | | | | | | | |
| Ikuskizunak | **Guztira** | **1:56** | **2:01** | **1:52** | **1:59** | **2:08** | **1:50** |
| | Astelehenetik--ostegunera | 1:41 | 1:47 | 1:37 | 1:53 | 2:06 | 1:46 |
| | Ostirala | 1:39 | 1:42 | 1:36 | 1:38 | 2:01 | 1:24 |
| | Larunbata | 2:03 | 2:09 | 1:56 | 2:10 | 2:15 | 2:04 |
| | Igandea | 2:03 | 2:04 | 2:02 | 1:55 | 2:02 | 1:46 |

**7.7. TAULA** **Biztanleriaren guztizkoak eta biztanle parte-hartzaileek ikuskizun, jolas eta zaletasunetan igarotako batez besteko ordu-kopurua, adinaren arabera. 2002-3 (jarraipena)**

| | | GUZTIRA | | | 35-59 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK |
| Jolasak | **Guztira** | **1:46** | **1:56** | **1:32** | **1:48** | **2:08** | **1:19** |
| | Astelehenetik--ostegunera | 1:46 | 1:57 | 1:30 | 1:57 | 2:15 | 1:08 |
| | Ostirala | 1:34 | 1:37 | 1:29 | 1:36 | 1:51 | 1:18 |
| | Larunbata | 1:43 | 1:52 | 1:31 | 1:39 | 1:48 | 1:32 |
| | Igandea | 1:58 | 2:13 | 1:39 | 1:50 | 2:18 | 1:17 |
| Zaletasun artistikoak eta beste hainbat | **Guztira** | **1:42** | **1:50** | **1:28** | **1:37** | **1:40** | **1:30** |
| | Astelehenetik--ostegunera | 1:40 | 1:49 | 1:15 | 1:52 | 1:47 | 3:00 |
| | Ostirala | 1:30 | 1:21 | 1:39 | 1:43 | 1:45 | 1:42 |
| | Larunbata | 1:42 | 2:03 | 1:20 | 1:30 | 2:00 | 1:07 |
| | Igandea | 1:59 | 2:06 | 1:49 | 0:51 | 0:46 | 0:59 |

ITURRIA: EUSTAT. Denbora Aurrekontuen inkesta, 2003.

Amaitzeko, bizitza soziala funtsezko elementu bat da pertsonen eguneroko bizitza ulertzeko. Zentzu horretan lortutako datuei erreparatuz, biztanleriak, oro har, 50 minutu eskaintzen dio, egunean, bizitza sozialari eta asteburuetan ordu erdi inguru areagotzen da denbora hori. Parte-hartzaileen batez bestekoa 1:36 da, eta antzeko batez bestekoak lortu dira emakumeen eta gizonen artean. Orain aztertzen ari garen jarduera-multzo honetan, horrenbestez, ez ditugu sexuen araberako desberdintasunak aurkituko, aisialdi aktiboaren eta pasiboaren artean ikusten genituen bitartean.

## 7.8. TAULA Biztanleriaren guztizkoak eta biztanle parte-hartzaileek gizarte-harremanetarako duten batez besteko ordu-kopurua, adinaren arabera. 2002-3

| | GUZTIRA | | | 35-59 | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK | GUZTIRA | GIZONAK | EMAKUMEAK |
| BATEZ BESTEKO DENBORA SOZIALA | | | | | | |
| **Guztira** | **0:58** | **1:04** | **0:52** | **0:50** | **0:51** | **0:48** |
| Astelehenetik-ostegunera | 0:41 | 0:47 | 0:35 | 0:40 | 0:41 | 0:38 |
| Ostirala | 0:53 | 0:55 | 0:52 | 0:42 | 0:37 | 0:47 |
| Larunbata | 1:26 | 1:36 | 1:17 | 1:11 | 1:20 | 1:02 |
| Igandea | 1:42 | 1:50 | 1:34 | 1:17 | 1:18 | 1:15 |
| PARTE HARTZAILEEN BATEZ BESTEKO DENBORA | | | | | | |
| **Guztira** | **1:50** | **1:57** | **1:43** | **1:36** | **1:37** | **1:34** |
| Astelehenetik-ostegunera | 1:26 | 1:32 | 1:19 | 1:20 | 1:19 | 1:20 |
| Ostirala | 1:46 | 1:49 | 1:44 | 1:32 | 1:26 | 1:37 |
| Larunbata | 2:22 | 2:28 | 2:15 | 2:07 | 2:16 | 1:57 |
| Igandea | 2:30 | 2:48 | 2:15 | 2:01 | 2:09 | 1:54 |

ITURRIA: EUSTAT. Denbora Aurrekontuen inkesta, 2003.

# 8

# PERTSONA HELDUEN OSASUNA

Osasunak berebiziko garrantzia du pertsona ororen bizitzan eta, neurri handi batean, bizi-kalitatea baldintzatzen du. Pertsonek osasunarekin duten erlazioa aldatu egiten da sexuaren eta adinaren arabera. Horrela, helduaroa oso une interesgarria da osasunaren eragina aztertzeko, gaztarotik —osasun-mailako arazo gutxi egoten den etapa— zahartzarora —gaixotasun kronikoak ugariagoak dira eta, ondorioz, harreman handiagoa dute osasun-zerbitzu eta –programekin.

Honako atal honetan pertsona helduen osasuna aztertuko dugu eta, horretarako, hainbat adierazle erabiliko dira, hala nola: nork bere osasunaz duen pertzepzioa, osasun-baliabideen erabilera edo portaera arriskutsu ohikoenak. Horiez gain, heriotza eragiten duten arrazoi nagusiak eta beste hainbat adierazle erabiliko dira.

Euskadiko Autonomia Erkidegoan bizi diren pertsonek nahiko pertzepzio positiboa adierazi dute beren osasunari buruz galdetzean. Biztanleriaren erdiak baino gehiagok uste dute osasun ona edo oso ona dutela, nahiz eta pertzepzio horrek okerrera egin, bi sexuetan, adinean gora egin ahala. Pertsona helduen artean emaitza anitzak lortu dira adin-tartearen arabera. Horrela, 25-44 urte bitarteko pertsonek, beren osasunari buruz galdetzean, oso pertzepzio positiboa adierazi dute, baina 44-64 urte bitarteko pertsonek, ordea, pertzepzio negatiboagoa adierazi dute. Ez da desberdintasun handirik antzeman gizonen eta emakumeen artean, eta azken urteotako emaitzen arabera, gero eta positiboagoa izango da, bi sexuen kasuan, osasunaren gaineko pertzepzioa.

## 8.1. TAULA Osasunaren pertzepzioa adinaren eta sexuaren arabera (%). 1997-2002

| | OSO ONA | | ONA | | NORMALA | | TXARRA | | OSO TXARRA | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1997 | 2002 | 1997 | 2002 | 1997 | 2002 | 1997 | 2002 | 1997 | 2002 |
| GUZTIRA | | | | | | | | | | |
| **Guztira** | **15,0** | **15,5** | **45,0** | **47,2** | **32,7** | **30,0** | **6,6** | **6,8** | **0,7** | **0,6** |
| 25-44 | 17,2 | 19,1 | 51,4 | 53,8 | 27,9 | 24,4 | 3,3 | 2,5 | 0,2 | 0,1 |
| 45-64 | 9,4 | 9,3 | 42,2 | 45,4 | 39,3 | 36,6 | 8,2 | 8,2 | 0,8 | 0,6 |
| GIZONAK | | | | | | | | | | |
| Guztira | 16,2 | 17,0 | 44,9 | 48,6 | 31,3 | 28,3 | 7,1 | 5,5 | 0,6 | 0,5 |
| 25-44 | 17,7 | 20,4 | 49,5 | 54,3 | 28,2 | 22,9 | 4,5 | 2,2 | 0,2 | 0,2 |
| 45-64 | 9,7 | 8,8 | 43,7 | 47,1 | 35,8 | 35,8 | 10,0 | 7,8 | 0,8 | 0,6 |
| EMAKUMEAK | | | | | | | | | | |
| Guztira | 13,8 | 14,1 | 45,2 | 45,8 | 34,0 | 31,5 | 6,2 | 7,9 | 0,8 | 0,7 |
| 25-44 | 16,7 | 17,7 | 53,4 | 53,3 | 27,6 | 26,0 | 2,2 | 2,9 | 0,2 | 0,1 |
| 45-64 | 9,2 | 9,7 | 40,8 | 43,7 | 42,6 | 37,4 | 6,5 | 8,7 | 0,9 | 0,5 |

ITURRIA: Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza. Osasunari buruzko inkesta.

Biztanleriaren osasuna aztertzeko orduan, ariketa fisikoa eta kirola egiteko ohitura dugu adierazle interesgarrietako bat. Horrela, datuen arabera, ariketa fisikoak ehuneko oso baxuak lortu ditu biztanle helduen artean eta biztanleriaren guztizkoaren artean. Zehazkiago, adierazle horien bilakaera aztertuz, azken urteetan egoneko jarrerak gorakada handia ezagutu du.

Ildo horretan, nabarmenak dira sexuen araberako desberdintasunak. Kategoria aktiboenetan, 25-44 urte bitarteko gizonek adin bereko emakumeek baino portzentaje askoz altuagoak lortu dituzte: gizonen %8,95 kategoria oso aktiboan sailkatzen dira eta emakumeen artean %5,4 bakarrik dira. Aitzitik, sedentarismoa edo egoneko jarrera zabalduagoa dago emakumeen artean: %68,6 emakumeak eta %62,1 gizonak. Adinaren piramidean gora egin ahala ugaritu egiten da egoneko jarrera eta gutxitu egiten da ariketa fisikoa, bi sexuen kasuan 45-64 urte bitarteko pertsona helduei da-

gokienez, emakumeen eta gizonen artean emaitza desberdinak aurkituko ditugu, nahiz eta ez izan hain nabarmenak.

**8.2. TAULA Ariketa fisikoa adinaren eta sexuaren arabera (%). 1997-2002**

| | EGONEKOA | | NEURRITSUA | | AKTIBOA | | OSO AKTIBOA | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1997 | 2002 | 1997 | 2002 | 1997 | 2002 | 1997 | 2002 |
| GUZTIRA | | | | | | | | |
| **Guztira** | **56,9** | **64,6** | **19,0** | **16,9** | **14,8** | **13,0** | **9,3** | **7,3** |
| 25-44 | 56,9 | 65,3 | 19,7 | 17,2 | 14,2 | 11,7 | 9,2 | 7,2 |
| 45-64 | 58,2 | 65,0 | 19,1 | 16,9 | 14,7 | 11,2 | 8,0 | 6,4 |
| GIZONAK | | | | | | | | |
| Guztira | 52,9 | 60,2 | 18,2 | 16,9 | 16,3 | 13,4 | 12,6 | 9,5 |
| 25-44 | 53,8 | 62,1 | 18,6 | 17,2 | 15,7 | 11,8 | 11,9 | 8,9 |
| 45-64 | 57,1 | 64,1 | 20,1 | 16,5 | 13,4 | 12,3 | 9,4 | 7,1 |
| EMAKUMEAK | | | | | | | | |
| Guztira | 60,5 | 68,7 | 19,7 | 17,0 | 13,4 | 9,2 | 6,3 | 5,1 |
| 25-44 | 60,0 | 68,6 | 20,9 | 17,3 | 12,6 | 8,7 | 6,5 | 5,4 |
| 45-64 | 59,3 | 65,9 | 18,2 | 17,3 | 15,9 | 11,1 | 6,6 | 5,7 |

ITURRIA: Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza. Osasunari buruzko inkesta.

[ *— Gizonek emakumeek baino ariketa fisiko gehiago egiten dute.*
*— Emakumeek gizonek baino sedentarismo-tasa altuagoak dituzte.* ]

Tabakoaren eta alkoholaren kontsumoa pertsonen osasunerako arriskutsua da. Zentzu horretan, datuei erreparatuz, desberdintasunak aurkituko ditugu adin helduko gizonen eta emakumeen artean, nahiz eta desberdintasun horiek beste adin-tarteetan antzemandakoak baino txikiagoak izan.

Alkoholaren kontsumoari buruzko adierazleen arabera, gizonek emakumeek baino ohitura handiagoa dute alkohola edateko. Adin helduko gizon gehiago dago asko

edo gehiegi edaten dutenak eta gehiago dira emakumeak noizean behinka edaten duten pertsonen artean edo inoiz edaten ez dutenen artean. Sexuen arteko desberdintasunak nabarmenagoak dira adin-tarteen araberako azterketa bat eginez; horrela, eskuarki, gizon helduenen artean erregistratu da alkoholaren kontsumo-tasarik altuena, emakumeengandik distantzia handira.

Zentzu horretan, 25-44 urte bitarteko gizonen %3,7k bakarrik aitortu dute ez dutela edaten eta adin bereko emakumeak %12 izan dira. Distantzia handiagoa ikus daiteke 45-64 adin-tartean; kasu horretan, gizonen %2,9k eta emakumeen %23k aitortu dute ez dutela edaten. Beste muturrean, aitzitik, gizonen tasak altuagoak dira, bai asko edaten duten pertsonen artean bai gehiegi edaten dutenen artean, zenbait kasutan emakumeen tasak bikoiztuz.

## 8.3. TAULA Alkoholaren kontsumoa adinaren eta sexuaren arabera (%). 1997-2002

| | EZ DU EDATEN | | EDALE OHIA | | NOIZEAN BEHINKA EDATEN DU | | NEURRIAN EDATEN DU | | ASKO EDATEN DU | | GEHIEGI EDATEN DU | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1997 | 2002 | 1997 | 2002 | 1997 | 2002 | 1997 | 2002 | 1997 | 2002 | 1997 | 2002 |
| GUZTIRA | | | | | | | | | | | | |
| **Guztira** | **14,1** | **13,3** | **3,6** | **3,4** | **35,3** | **39,0** | **35,5** | **34,0** | **7,9** | **7,4** | **3,6** | **2,8** |
| 25-44 | 9,7 | 7,8 | 2,4 | 3,0 | 36,9 | 41,1 | 39,7 | 38,7 | 8,1 | 6,8 | 3,3 | 2,6 |
| 45-64 | 16,2 | 13,1 | 3,6 | 3,6 | 31,2 | 36,2 | 30,6 | 32,2 | 11,6 | 10,5 | 6,9 | 4,4 |
| GIZONAK | | | | | | | | | | | | |
| Guztira | 6,3 | 4,9 | 5,9 | 4,8 | 24,5 | 31,2 | 45,8 | 45,2 | 11,3 | 10,0 | 6,3 | 4,0 |
| 25-44 | 5,0 | 3,7 | 4,2 | 3,2 | 25,7 | 33,5 | 49,5 | 48,0 | 10,6 | 7,9 | 5,0 | 3,8 |
| 45-64 | 5,6 | 2,9 | 6,8 | 5,9 | 15,7 | 25,4 | 42,8 | 44,5 | 16,1 | 15,1 | 12,9 | 6,2 |
| EMAKUMEAK | | | | | | | | | | | | |
| Guztira | 21,2 | 21,3 | 1,4 | 2,1 | 45,2 | 46,3 | 26,0 | 23,5 | 4,9 | 4,9 | 1,2 | 1,7 |
| 25-44 | 14,3 | 12,0 | 0,5 | 2,9 | 47,9 | 48,9 | 30,0 | 29,2 | 5,6 | 5,6 | 1,7 | 1,5 |
| 45-64 | 26,2 | 23 | 0,5 | 1,4 | 45,8 | 46,8 | 19,1 | 20,2 | 7,4 | 6,1 | 1,1 | 2,6 |

ITURRIA: Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza. Osasunari buruzko inkesta.

Tabakoaren kontsumoari erreparatuz, neutralizatu egiten dira emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak, baina adinaren arabera desberdintasun handiak nabarmendu ahal dira. Horrela, 25-44 urte bitarteko pertsonei buruzko estatistikek adierazten dutenez, antzeko adierazleak lortu dira gizonen eta emakumeen artean, nahiz eta oraindik gehiago diren erretzeko ohitura duten gizonak. Aitzitik, 45-64 urte bitarteko pertsonen artean lortutako datuei erreparatuz, desberdintasunak handiagoak dira sexuaren arabera: adibidez, erretzen ez duten emakumeak (%69,3) erretzen ez duten gizonen bikoitza dira (%33,7).

## 8.4. TAULA Tabakoaren kontsumoa adinaren eta sexuaren arabera (%). 1997-2002

| | EZ DU ERRETZEN | | ERRETZAILE OHIA | | NOIZEAN BEHINKAKO ERRETZAILEA | | ERRETZAILEA | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1997 | 2002 | 1997 | 2002 | 1997 | 2002 | 1997 | 2002 |
| GUZTIRA | | | | | | | | |
| **Guztira** | **52,6** | **54,9** | **13,9** | **15,2** | **4,5** | **3,9** | **29,1** | **26,1** |
| 25-44 | 39,0 | 45,2 | 14,1 | 13,9 | 5,3 | 5,2 | 41,6 | 35,7 |
| 45-64 | 56,1 | 51,8 | 17,6 | 20,1 | 3,1 | 3,6 | 23,2 | 24,5 |
| GIZONAK | | | | | | | | |
| Guztira | 39,6 | 43,3 | 19,6 | 20,4 | 5,6 | 4,9 | 35,2 | 31,4 |
| 25-44 | 35,8 | 42,8 | 14,2 | 13,1 | 5,5 | 5,4 | 44,5 | 38,6 |
| 45-64 | 34,9 | 33,7 | 27,0 | 28,9 | 4,9 | 5,4 | 33,2 | 32,0 |
| EMAKUMEAK | | | | | | | | |
| Guztira | 64,6 | 65,8 | 8,6 | 10,2 | 3,4 | 2,9 | 23,4 | 21,1 |
| 25-44 | 42,2 | 47,7 | 14,0 | 14,7 | 5,1 | 4,9 | 38,7 | 32,7 |
| 45-64 | 76,0 | 69,3 | 8,8 | 11,6 | 1,5 | 1,9 | 13,7 | 17,2 |

ITURRIA: Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza. Osasunari buruzko inkesta.

*Alkohol eta tabakoaren kontsumo-tasak altuagoak dira gizonen artean.*

Pertsona helduek osasunarekin duten erlazioa ezagutzeko, bestalde, pertsona heldu horiek pairatzen dituzten gaixotasunei buruzko adierazleak erabili ahal dira, zehazkiago adin horretan heriotza eragiten duten gaixotasunak. Lehenengo ondorio interesgarri bezala, gizonen heriotza-tasa altuagoa azpimarra daiteke: 2001ean 2.200 gizon eta 866 emakume hil ziren 30-64 urteko pertsonen taldean. Pertsona helduen artean heriotza eragiten duen arrazoi nagusia tumoreak dira, hain zuzen adin horretako emakumeen heriotzen %59,35 eta gizonen heriotzen %46,18 eragiten dituzte. Bi sexuen kasuan zirkulazio-sistemarekin erlazionatutako gaixotasunak dira heriotza gehien eragiten dituztenak, batez ere gizonen artean: horrela, gizon helduen artean gertatzen diren heriotzen %21,13 zirkulazio-sistemarekin erlazionatutako gaixotasunek eragin dituzte eta emakumeen artean, berriz, heriotzen %13,74. Eskuarki, gizonek tasa eta kopuru absolutu altuagoak erregistratzen dituzte heriotza eragiten duten arrazoi gehienen kasuan, nahiz eta bereziki azpimarragarria den nerbio-sistemaren gaixotasunen eta sentimen-organoekin erlazionatutakoen ondorioz hil diren emakumeek kopuru eta ehuneko altuagoak erregistratu dituztela, arrazoi berdinen ondorioz hildako gizonekin alderatuta.

**8.5. TAULA Heriotzak, heriotza eragin duen arrazoiaren eta adin-taldeen arabera. 2001**

| | GUZTIRA | | 30-64 URTE BITARTEAN | |
|---|---|---|---|---|
| | E | G | E | G |
| Gaixotasun kutsagarriak eta parasitarioak | 152 | 229 | 28 | 94 |
| Tumoreak | 2.010 | 3.488 | 514 | 1.016 |
| Odolaren eta org. hematopoietikoen gaixotasunak eta inmunitate-mekanismoa eragiten duten hainbat asaldura | 44 | 34 | 2 | 6 |
| Gaixotasun endokrinoak, nutrizionalak eta metabolikoak | 314 | 192 | 9 | 22 |
| Adimen- eta portaera-asaldurak | 465 | 219 | 3 | 13 |
| Nerbio-sistemaren eta sentimen-organoen gaixotasunak | 401 | 324 | 36 | 31 |
| Zirkulazio-sistemaren gaixotasunak | 3.067 | 2.692 | 119 | 465 |

## 8.5. TAULA Heriotzak, heriotza eragin duen arrazoiaren eta adin-taldeen arabera. 2001 (jarraipena)

| | GUZTIRA | | 30-64 URTE BITARTEAN | |
|---|---|---|---|---|
| | E | G | E | G |
| Arnasketa-sistemaren gaixotasunak | 627 | 989 | 15 | 65 |
| Digestio-sistemaren gaixotasunak | 451 | 526 | 51 | 160 |
| Azalaren eta azal azpiko ehunaren gaixotasunak | 16 | 9 | 0 | 1 |
| Hezur- eta gihar-sistemaren eta ehun konjuntiboaren gaixotasunak | 110 | 37 | 3 | 3 |
| Sistema genitourinarioaren gaixotasunak | 171 | 175 | 8 | 20 |
| Haurdunaldia, erditzea eta puerperioa | 0 | 0 | 0 | 0 |
| Jaiotza inguruko gaixotasunak | 14 | 21 | 0 | 0 |
| Sortzetiko malformazioak, deformazio eta anomalia kromosomikoak | 18 | 21 | 6 | 7 |
| Sintoma eta ezaugarri ezohiko klinikoak eta laborategikoak | 324 | 183 | 9 | 27 |
| Heriotza eragiten duten kanpo-arrazoiak | 232 | 532 | 63 | 270 |
| **GUZTIRA** | **8.416** | **9.671** | **866** | **2.200** |

ITURRIA: INEren Heriotzen Estatistikako datuetan oinarrituta landu da.

*30-64 urte bitartean hiltzen diren emakumeen %59,35 eta gizonen %46,18 tumoreen ondorioz izaten da.*

Buru-hilketari dagokionez, oso gutxitan agertzen buru-hilketa heriotza eragiten duen arrazoi gisa. Hala ere, sexuen araberako desberdintasunak ikus daitezke. Hain zuzen, pertsona helduen artean gehiago dira bere buruaz beste egiten duten gizonak emakumeak baino.

## 8.6. TAULA Buru-hilketak adin-taldeen arabera. 2002

| | GIZONAK | EMAKUMEAK | GUZTIRA |
|---|---|---|---|
| 30-39 urte bitartean | 18 | 6 | 19 |
| 40-49 urte bitartean | 13 | 6 | 20 |
| 50-59 urte bitartean | 13 | 7 | 45 |
| **GUZTIRA** | **93** | **35** | **128** |

ITURRIA: INE. Buru-hilketen estatistika.

Pertsona helduen osasuna ezagutzeko, halaber, pertsona horiek osasun-zerbitzu eta –programekin duten erlazioa aztertu ahal da. Txosten honetan osasun-zerbitzuak erabiltzeko maiztasunari buruzko datuak eta gaixotasunak prebenitzeko eta antzemateko programetan izaten diren parte-hartzaileei buruzko datuak barne hartu dira.

Emakumeak dira, betidanik, osasun-zerbitzuak gehien erabiltzen dituztenak. Makina bat ikerketatan baieztatu ahal izan denez, emakumeak gehiago joaten dira osasun-zentroetara edo anbulatorioetara kontsultak egitera, baina ospitaleetan egiten diren egonaldiei erreparatuz, ordea, altuagoa da gizonen ehunekoa.

Pertsona helduek osasun-zerbitzuetan egiten dituzten kontsulten maiztasunarekin erlazionatutako adierazleei dagokienez, joera horrekin bat egiten dute, nahiz eta adin-tartearen arabera emaitza anitzak lortu diren. Horrela, 45-64 urte bitarteko pertsonen artean, oro har, sarriagotan erabiltzen dira horrelako zerbitzuak: emakumeen %11,8 eta gizonen %10,2 urtean hamar alditan baino gehiagotan joaten dira osasun-zerbitzuetara. Beste muturrean, ordea, emakumeen %14,2k eta gizonen %20,4k adierazi dute ez direla joaten osasun-zerbitzuetara. Aurreko adin-tartean ez dira hain sarritan joaten osasun-zentroetara; horrela, 25-44 urte bitarteko gizonen artetik %32,5 ez dira osasun-zentroetara joaten eta emakumeen artean, berriz, %22,7 dira joaten ez direnak.

## 8.7. TAULA Osasun-zerbitzuetan urtean egindako kontsulten maiztasuna adinaren eta sexuaren arabera (%). 1997-2002

| | BAT ERE EZ | | BAT EDO BI | | 3TIK 9RA | | 10 ETA GEHIAGO | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1997 | 2002 | 1997 | 2002 | 1997 | 2002 | 1997 | 2002 |
| GUZTIRA | | | | | | | | |
| **Guztira** | **21,5** | **20,6** | **39,3** | **40,9** | **29,7** | **29,4** | **9,5** | **9,2** |
| 25-44 | 29,2 | 27,6 | 43,2 | 44,8 | 21,5 | 22,2 | 6,1 | 5,3 |
| 45-64 | 17,7 | 17,3 | 36,9 | 39,8 | 33,6 | 31,9 | 11,8 | 11,0 |
| GIZONAK | | | | | | | | |
| Guztira | 25,4 | 23,7 | 40,4 | 41,8 | 25,8 | 26,4 | 8,4 | 8,2 |
| 25-44 | 34,5 | 32,5 | 44,1 | 45,9 | 16,2 | 17,8 | 5,2 | 3,9 |
| 45-64 | 21,8 | 20,4 | 36,8 | 41,0 | 30,8 | 28,4 | 10,6 | 10,2 |
| EMAKUMEAK | | | | | | | | |
| Guztira | 17,8 | 17,7 | 38,1 | 40,0 | 33,4 | 32,2 | 10,6 | 10,1 |
| 25-44 | 23,9 | 22,7 | 42,3 | 43,8 | 26,9 | 26,8 | 6,9 | 6,8 |
| 45-64 | 13,6 | 14,2 | 37,0 | 38,7 | 36,4 | 35,3 | 12,9 | 11,8 |

ITURRIA: Osasun Saila. Eusko Jaurlaritza. Osasunari buruzko inkesta.

Gaixotasunak antzemateko programei dagokienez, bereziki azpimarragarria da euskal erakundeak egiten ari diren lan handia, batez ere bularreko minbizia antzemateko esparruan. Ildo horretan, 1996an Bularreko Minbizia Garaiz Antzemateko Programa jarri zen martxan, eta gero eta gehiago dira programak barne hartzen dituen emakumeak: 2001ean 109.176 emakumeri deitu zitzaien, eta aurreko urteetan baino mamografia gehiago egin ziren.

## 8.1. GRAFIKOA Deitutako emakumeak, urteen eta Bularreko Minbizia Garaiz Antzemateko Programaren arabera. 1996-2002




ITURRIA: Osakidetza. 2001 memoria.

## 8.8. TAULA Mamografiak eta errebalorizazioak Bularreko Minbizia Garaiz Antzemateko Programaren arabera. 1996-2001

| | MAMOGRAFIA BASALAK | ERREBALORIZAZIOAK |
|---|---|---|
| 1996 | 6.109 | 550 |
| 1997 | 50.305 | 3.987 |
| 1998 | 80.758 | 6.539 |
| 1999 | 68.544 | 6.958 |
| 2000 | 76.472 | 7.001 |
| 2001 | 78.508 | 6.477 |
| 2002 | 78.942 | 6.296 |

ITURRIA: Osakidetza. 2001 memoria.

Emakumeen taldea zuzenean eragiten duen osasun-esparruko beste elementu bat haurdunaldiaren borondatezko etendurak (HBE) dira. EAEri buruzko datuei erreparatuz, 2002an guztira 1.804 HBE egin ziren, eta horietatik 1.637 (%90,74) 20 urtetik gorako emakumeek egin zituzten.

**8.9. TAULA Haurdunaldiaren borondatezko etendura, 15-44 urte bitartean. 1995-2002**

| | GUZTIRA | 15-19 URTE BITARTEAN | % | 20 URTE ETA GEHIAGO | % |
|---|---|---|---|---|---|
| 1995 | 1.256 | 165 | 13,14 | 1.091 | 86,86 |
| 1996 | 1.278 | 153 | 11,97 | 1.125 | 88,03 |
| 1997 | 1.301 | 169 | 12,99 | 1.132 | 87,01 |
| 1998 | 1.305 | 147 | 11,26 | 1.158 | 88,74 |
| 1999 | 1.435 | 183 | 12,75 | 1.252 | 87,25 |
| 2000 | 1.653 | 167 | 10,10 | 1.486 | 89,90 |
| 2001 | 1.646 | 147 | 8,93 | 1.499 | 91,07 |
| 2002 | 1.804 | 167 | 9,26 | 1.637 | 90,74 |

ITURRIA: Emakunde, Osasun eta Kontsumo Ministerioak emandako datuetatik abiatuta.

Amaitzeko, kontuan hartu behar da zenbait pertsona helduk osasun-esparruarekin duten erlazio profesionala. Nahiz eta azken urteetan pixkanaka gauzak aldatzen hasi diren, oraindik ere sexuen artean desberdintasunak ikus daitezke osasun-sektoreko hainbat lanbidetan. Hasi dira parekatzen emakume eta gizon medikuak eta odontologoak, nahiz eta oraindik gehiago diren emakumeak. Gainera, %60 gehiago dira gizon albaitariak. Aitzitik, gailendu egiten dira emakumeak kolegiatu farmazeutikoei erreparatuz (%76,9) eta erizaintzan diplomatutakoen artetik ia %90 dira.

## 8.10. TAULA Osasun-esparru profesional kolegiatuak motaren arabera. 2002

| | GUZTIRA | EMAKUMEAK | GIZONAK |
|---|---|---|---|
| Sendagileak | 10.216 | 4.340 | 5.876 |
| Odontologoak eta Estomatologoak | 1.241 | 576 | 665 |
| Farmazeutikoak | 2.442 | 1.878 | 564 |
| Albaitariak | 709 | 245 | 464 |
| Erizaintzako diplomadunak: guztira (1) | 12.100 | 10.807 | 1.293 |
| Erizaintzako diplomadunak: emaginak | 450 | 440 | 10 |

(1) Erizaintzako Diplomadunen titulazio jakin batera kolegiatua egotea eskatzen ez denez, baliteke datuak zehatzegiak ez izatea.

ITURRIA: Odontologia eta Estomatologoen, Farmazeutikoen eta Albaitarien Lanbide Elkargoen Kontseilu Nagusiak eta INE.

# 9

# EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA (3)

Gaur egungo gizartean, emakumeen aurkako indarkeria garrantzi handiko arazo bihurtu da. Arazo bihurtu da gure inguruan, bai eta nazioartean ere. Hori dela eta, emakumeen aurkako indarkeria esparru pribatutik atera da eta gero eta beharrezkoagoa egin da herri-erakundeek arazoa desagerrarazteko esku hartzea. 1993an Vienan egindako Giza Eskubideei buruzko Mundu Konferentzian aitortu zenez, emakumeen aurkako indarkeriak giza eskubideen urraketa zekarren; beranduago, 1995ean Nazio Batuek Pekinen antolatutako IV. Mundu Konferentzian lortu zen bertan parte hartu zuten herrialdeek emakumeen aurkako indarkeriarekin amaitzeko politikak martxan jartzeko konpromisoa hartzea.

Adin guztietako emakumeek pairatzen dute indarkeria, maila ekonomikoa eta kulturala edozein izanik. Indarkeria-mota desberdinak bereiz daitezke (indarkeria fisikoa, psikikoa edo sexuala), eta guztiak jartzen dute arriskuan emakumeen osasuna eta bizitza. Gaur egun, salatzen diren emakumeen aurkako indarkeria-egintzak gizartean bizi dugun arazo larriaren adibide gutxi batzuk besterik ez dira.

Txosten honetan barne hartutako emakume helduen aurkako indarkeriaren datuak , tratu txarrei eta sexu-askatasunaren aurkako delituei buruzkoak dira eta Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak landutako estatistikatik hartu dira (2003an jarritako salaketak). Estatistika horretan bi kontzeptu bereizten dira: biktimizazioak eta biktimak. Biktimizazioa indarkeriazko gertaera bat gertatu eta salatu denean erabiltzen da, pertsona berberak (biktimak) gertaera hori behin baino gehiagotan pairatzen badu ere.

## 9.1. TAULA Emakumeen biktimizazioa etxeko indarkeriaren ondorioz eta urraketa-motaren eta adinaren arabera. 2003

| | | 28-59 URTE | | | | | | | GUZTIRA ADIN GUZTIAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | <=27 | 28-32 | 33-39 | 40-49 | 50-59 | GUZTIRA | >=60 | EZEZAG. | |
| **DELITUAK** | | | | | | | | | |
| **Gizahilketa eta antzekoak** | **--** | **1** | **--** | **2** | **--** | **3** | **--** | **--** | **3** |
| Gizahilketa | -- | -- | -- | 2 | -- | 2 | -- | -- | 2 |
| Hilketa | -- | 1 | -- | -- | -- | 1 | -- | -- | 1 |
| **Lesioak** | **224** | **170** | **204** | **222** | **85** | **681** | **76** | **6** | **987** |
| Familiaren baitako tratu txarrak | 200 | 146 | 182 | 206 | 77 | 611 | 68 | 6 | 885 |
| Lesioak | 24 | 24 | 22 | 16 | 8 | 70 | 8 | -- | 102 |
| **Askatasunaren aurkakoak** | **96** | **68** | **73** | **62** | **34** | **237** | **29** | **2** | **364** |
| Bahiketa | 1 | -- | 1 | 1 | -- | 2 | -- | -- | 3 |
| Mehatxuak | 83 | 58 | 69 | 56 | 28 | 211 | 27 | 2 | 325 |
| Hertsapena | 10 | 10 | 3 | 5 | 6 | 24 | 2 | -- | 36 |
| **Ohorearen aurkakoak** | **1** | **2** | **4** | **4** | **2** | **12** | **1** | **--** | **18** |
| Kalumniak | 1 | 1 | 4 | 2 | 1 | 8 | -- | -- | 9 |
| Irainak | -- | 1 | 4 | 2 | 1 | 8 | 1 | -- | 9 |
| **Guztira DELITUAK** | **321** | **241** | **285** | **290** | **121** | **937** | **106** | **8** | **1.372** |
| **HUTSEGITEAK** | | | | | | | | | |
| Lesio-hutsegitea | 120 | 49 | 71 | 69 | 36 | 225 | 19 | 2 | 366 |
| Zuhurtzigabekeriaren lesio-hutsegitea | -- | -- | -- | 1 | -- | 1 | 0 | -- | 1 |
| Familiaren baitako tratu txarren hutsegitea | 51 | 31 | 45 | 31 | 10 | 117 | 13 | 3 | 184 |
| Tratu txarren hutsegitea lesiorik gabe | 8 | 4 | -- | 6 | 1 | 11 | 2 | -- | 21 |
| Bexazio-hutsegitea | 35 | 4 | 7 | 6 | 3 | 20 | 2 | 1 | 28 |
| Mehatxu-hutsegitea | 49 | 59 | 62 | 57 | 33 | 211 | 16 | -- | 276 |
| Hertsapen-hutsegitea | 20 | 14 | 23 | 16 | 5 | 58 | 6 | -- | 84 |
| Irain-hutsegitea | 12 | 3 | 5 | 20 | 2 | 30 | 5 | -- | 47 |
| **Guztira HUTSEGITEAK** | **265** | **164** | **213** | **206** | **90** | **673** | **63** | **6** | **1.007** |
| **GUZTIRA** | **586** | **405** | **498** | **496** | **211** | **1.610** | **169** | **14** | **2.379** |

ITURRIA: Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saila.

2003an indarkeria eta tratu txarrengatiko delitu eta hutsegiteei dagokienez, 2.379 kasu erregistratu ziren (biktimizazioak) eta 2.027 emakumek jasan zituzten (biktimak). Hortaz, ohikoa da emakume batek salaketa bat baino gehiago jartzea urtean. Biktimizazio guztiak kontuan hartuta, hamarretik ia zazpi (%67,7) emakume helduak ziren (28-59 urte bitarteko emakumeak); lau biktimizaziotik bat, berriz, emakume gazteak izan ziren (<=27 urte). Azkenik, biktimizazio guztien artetik %7,1 60 urtetik gorako emakumeak izan ziren.

Emakume helduen adin-taldeari bakarrik erreparatuz, biktimizazio guztien erdia baino gehiago (%58,2) delitu gisa tipifikatu ziren. Indarkeriazko gertaera ohizkoenak lesioekin eta familiaren baitako tratu txarrekin zerikusia izan zuten (681 eta 611 kasu hurrenez hurren). Bereziki azpimarragarria da hiru indarkeriazko gertaeretan muturreko egoerak eragin zirela, hots, erasotzaileak biktima hil zuela.

Iazko emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datuekin alderatuz, %16,2 areagotu da emakume biktimen kopurua eta antzeko gorakada ezagutu du biktimizazio-kopuruak (%16,5). Biktima-kopuruari dagokionez, hazkundea zertxobait handiagoa izan da 28-59 adin-tarteko emakumeen artean. Hala ere, iazko Estatistikarekin alderatuta, bereziki azpimarragarria da 28-32 urte bitarteko emakume biktimen kopuruak izandako hazkundea, izan ere, adin-tarte horretan %28,6 egin du gora portzentajeak, gainerako taldeetan izandako batez besteko hazkundea nabarmenki gaindituz.

## 9.2. TAULA 2002-2003 etxeko indarkeriaren biktima izan diren emakumeak, adinaren arabera. Konparazioa

| | 2002 | 2003 | ↖ | 2002 | 2003 | DIF. |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 12 urte baino gutxiago | 8 | 7 | -12,5 | 0,46 | 0,35 | -0,11 |
| 12-17 urte | 55 | 65 | 18,2 | 3,15 | 3,21 | 0,05 |
| 18-22 urte | 148 | 177 | 19,6 | 8,48 | 8,73 | 0,25 |
| 23-27 urte | 229 | 260 | 13,5 | 13,12 | 12,83 | -0,30 |
| 28-32 urte | 262 | 337 | 28,6 | 15,01 | 16,63 | 1,61 |
| 33-39 urte | 361 | 408 | 13,0 | 20,69 | 20,13 | -0,56 |
| 40-49 urte | 374 | 428 | 14,4 | 21,43 | 21,11 | -0,32 |
| 50-59 urte | 161 | 184 | 14,3 | 9,23 | 9,08 | -0,15 |
| 60-69 urte | 79 | 83 | 5,1 | 4,53 | 4,09 | -0,43 |
| 70-79 urte | 41 | 50 | 22,0 | 2,35 | 2,47 | 0,12 |
| 79 urte baino gehiago | 13 | 15 | 15,4 | 0,74 | 0,74 | 0,00 |
| Ezezag. | 14 | 13 | -7,1 | 0,80 | 0,64 | -0,16 |
| **GUZTIRA** | **1.745** | **2.027** | **16,2** | **100,00** | **100,00** | **-** |
| **28-59 urte** | **1.158** | **1.357** | **17,2** | **66,36** | **66,95** | **0,59** |

ITURRIA: Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saila.

Era berean, bereziki azpimarragarria da adin guztietako emakumeen aurka kontabilizatu diren indarkeriazko arau-hauste guztien artetik gehienak, hau da, hiru laurdenak (1.773 biktimizazio) biktimaren bikotekideak edo bikotekide ohiak egin zituztela. Emakume helduen kasuan, 1.610 biktimizazioetatik 1.291 (%80,2) biktimaren ezkontideak edo parekoak eragin zituzten. Gainera, gainerako arau-hausteen artetik %61,8 delitu gisa tipifikatu ziren eta gainontzekoak hutsegite gisa. Datu horrek adierazten digu emakumeek beren bikotekideen aldetik jasaten dituzten erasoen intentsitatea.

## 9.3. TAULA Emakumeen biktimizazioak etxeko indarkeriaren (ezkontideak edo parekoak eragindakoa) ondorioz, arau-hauste motaren eta adinaren arabera. 2003

| | 28-59 URTE | | | | | | | | GUZTIRA ADIN GUZTIAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | <=27 | 28-32 | 33-39 | 40-49 | 50-59 | GUZTIRA | >=60 | EZEZAG. | |
| **DELITUAK** | | | | | | | | | |
| **Gizahilketa eta antzekoak** | **--** | **1** | **--** | **2** | **--** | **3** | **--** | **--** | **3** |
| Gizahilketa | -- | -- | -- | 2 | -- | 2 | -- | -- | 2 |
| Hilketa | -- | 1 | -- | -- | -- | 1 | -- | -- | 1 |
| **Lesioak** | **164** | **152** | **187** | **190** | **64** | **593** | **35** | **3** | **795** |
| Familiaren baitako tratu txarrak | 148 | 134 | 172 | 179 | 61 | 546 | 30 | 3 | 727 |
| Lesioak | 16 | 18 | 15 | 11 | 3 | 47 | 5 | -- | 68 |
| **Askatasunaren aurkakoak** | **68** | **58** | **61** | **49** | **21** | **189** | **9** | **--** | **266** |
| Bahiketa | 1 | -- | 1 | 1 | -- | 2 | -- | -- | 3 |
| Mehatxuak | 60 | 50 | 57 | 44 | 16 | 167 | 8 | -- | 235 |
| Hertsapena | 7 | 8 | 3 | 4 | 5 | 20 | 1 | -- | 28 |
| **Ohorearen aurkakoak** | **--** | **1** | **7** | **3** | **1** | **12** | **--** | **--** | **12** |
| Kalumniak | -- | -- | 4 | 1 | -- | 5 | -- | -- | 5 |
| Irainak | -- | 1 | 3 | 2 | 1 | 7 | -- | -- | 7 |
| **Guztira DELITUAK** | **232** | **212** | **255** | **244** | **87** | **798** | **44** | **3** | **1.077** |
| **HUTSEGITEAK** | | | | | | | | | |
| Lesio-hutsegitea | 75 | 37 | 49 | 44 | 14 | 144 | 5 | -- | 224 |
| Zuhurtzigabekeriaren lesio-hutsegitea | -- | -- | -- | 1 | -- | 1 | -- | -- | 1 |
| Familiaren baitako tratu txarren hutsegitea | 36 | 30 | 44 | 22 | 8 | 104 | 5 | 1 | 146 |
| Tratu txarren hutsegitea lesiorik gabe | 5 | 3 | -- | 5 | -- | 8 | 1 | -- | 14 |
| Bexazio-hutsegitea | 3 | 4 | 6 | 5 | 3 | 18 | 2 | 1 | 24 |
| Mehatxu-hutsegitea | 36 | 48 | 52 | 39 | 16 | 155 | 4 | -- | 195 |
| Hertsapen-hutsegitea | 17 | 11 | 18 | 13 | 3 | 45 | 2 | -- | 64 |
| Irain-hutsegitea | 7 | 2 | 4 | 11 | 1 | 18 | 3 | -- | 28 |
| **Guztira HUTSEGITEAK** | **179** | **135** | **173** | **140** | **45** | **493** | **22** | **2** | **696** |
| **GUZTIRA** | **411** | **347** | **428** | **384** | **132** | **1.291** | **66** | **5** | **1.773** |

ITURRIA: Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saila.

Etxeko indarkeriaren eragilea gehienetan biktimaren ezkontidea dela baieztatuko dugu, era berean, biktimizazioez gain, etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeak kontuan hartzen baditugu. Horrela, 2003an etxeko indarkeriaren biktima izan ziren 28-53 urte bitarteko emakumeei dagokienez, %78,6tan biktimaren bikotekidea edo bikotekide ohia da erasotzailea. Horrez gain, erasoen %7tan erasotzailearen ama zen biktima eta, amaitzeko, biktimen artetik %14,4ren kasuan familiako kide bat zen erasotzailea.

### 9.4. TAULA Etxeko tratu txarren biktima izan diren emakumeak erasotzailearenganako erlazio-motaren eta adinaren arabera. 2003

| | 28-59 URTE | | | | | | | | GUZTIRA ADIN GUZTIAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ERLAZIOA | <=27 | 28-32 | 33-39 | 40-49 | 50-59 | GUZTIRA | >=60 | EZEZAG. | |
| Ezkontidea edo parekoa | 347 | 283 | 347 | 325 | 112 | 1.067 | 59 | 4 | 1.477 |
| Alaba, adin-txikikoa | 27 | -- | -- | -- | -- | -- | -- | -- | 27 |
| Ama | -- | 2 | 11 | 42 | 40 | 95 | 55 | 4 | 154 |
| Gainerako senideak | 135 | 52 | 50 | 61 | 32 | 195 | 34 | 5 | 369 |
| **GUZTIRA** | **509** | **337** | **408** | **428** | **184** | **1.357** | **148** | **13** | **2.027** |

ITURRIA: Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saila.

Sexu-askatasunaren aurkako delituak ere emakumeen aurkako indarkeria erakusteko modu bat dira. 2003an 274 salaketa jarri ziren guztira, aurreko urtean baino 42 gehiago (hau da, %18,1eko hazkundea). Delitu horien artetik heren bat inguru (91 delitu) 28-59 urte bitarteko emakumeek jasandako indarkeriazko gertaerak ziren. Aurreko urtean lortutako datuekin alderatuta, adin-talde horretako emakumeen biktimizazio-kopurua ugaritu egin da (24 kasu gehiago), hain zuzen %35,8 egin du gora. Era berean, delitu gehienak sexu-erasotzat eta sexu-abusutzat tipifikatu ziren (55 eta 33 kasu hurrenez hurren).

**9.5. TAULA Sexu-askatasunaren aurkako delituek eragindako emakumeen biktimizazioak, gertaera-motaren eta adinaren arabera. 2003**

| GERTAERA MOTA | <=27 | 28-59 URTE: 28-32 | 28-59 URTE: 33-39 | 28-59 URTE: 40-49 | 28-59 URTE: 50-59 | 28-59 URTE: GUZTIRA | >=60 | EZEZAG. | GUZTIRA ADIN GUZTIAK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Sexu-erasoa | 89 | 18 | 24 | 9 | 4 | 55 | 4 | 1 | 149 |
| Sexu-abusua | 49 | 16 | 10 | 5 | 2 | 33 | 1 | -- | 83 |
| Sexu-jazarpena | 3 | 2 | -- | -- | -- | 2 | -- | -- | 5 |
| Exhibizionismoa eta sexu-probokazioa | 29 | -- | -- | -- | -- | -- | -- | -- | 29 |
| Adingabekoen galbideratzea | 4 | -- | -- | -- | -- | -- | -- | 1 | 5 |
| Prostituzioa | 2 | -- | -- | 1 | -- | 1 | -- | -- | 3 |
| **GUZTIRA** | **176** | **36** | **34** | **15** | **6** | **91** | **5** | **2** | **274** |

ITURRIA: Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saila.

Sexu-askatasunaren aurkako delituek eragindako biktimizazioen kasuan, emakume gazteak dira, nagusiki, biktimak (%64,2 27 urtetik beherako emakumeak dira); etxeko indarkeria izenez ezagutzen diren egoeren kasuan, bestalde, tarteko adin-taldeetako emakumeak dira biktima nagusiak.

*2003an 28-59 urte bitarteko emakumeen aurkako indarkeria dela eta 1.610 salaketa jarri ziren, guztira, EAEn. Horien artetik hiru kasutan biktimaren heriotza gertatu zen.*